# Goienkaria

2009ko abenduaren 4a > Egubakoitza > X. urtea > 400. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net TOKIKOM


"Justiziarik balego lasai nengoke, baina sentsazioak dira txarrak"



**Joan Mari Torrealdai**
'Egunkaria' auzian akusatua > 09

**POLITIKA**
**Bailarako lau lagun auzipetu ditu Garzonek asteon itxitako auzian** > 05

**ARETXABALETA**
**Copreci lantegia aparkaleku aldera handitzea erabaki dute** > 24

**ELGETA**
**Beka atera dute 36ko gerrak herrian izandako eragina ikertzeko** > 31

**ARAMAIO**
**Alkatearen epaiketaren kontrako mozioa onartu du udalbatzak** > 32



**EGILEAK** Markel Urrutia (Des-kontrol ), Juan Carlos Irizar, Pello Zabala, Karmele Igartua, Amaia Diaz de Monasterioguren, Juan Martin Elexpuru eta Iñaki Goitia (Malenkonia), Monterronen. XABIER URTZELAI

**KULTURA** > 44. DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

# Debagoieneko uzta Durangoko azokara

**BAILARATIK** Debagoieneko hainbat idazlek eta musikarik lan berriak eramango dituzte Durangora

**TOPALEKUA** Urtero moduan, euskal kulturaren festa hartuko du Durangok gaurtik martitzenera > 37

**EKONOMIA** > ENPRESA

## Cegasa, energian puntakoa

Auto elektrikoen bateria prototipoa garatzen dabil > 02-03

**LANA** > PROTESTA

## Garbitasun greba ospitalean

Hilaren 10ean bi orduko lanuztea egingo dute > 06

**AURKIBIDEA**


**Debagoiena** > 04-06
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47








**EKONOMIA** > ENPRESA

# Cegasa: etxeko piletatik, autoendako baterietara




**BERRITASUNA** Ibilgailu elektrikoak elikatzeko, litio ioi teknologian oinarritutako baterien prototipoa garatzen dihardu Cegasak

**EPE LABURREAN** Hemendik eta 2012. urterako, elikagailu horiek modu masiboan ekoizten hasi nahi du Oñatin sortutako enpresak

**GASTEIZ** Etxerako pila gehiago ez ditu egingo Cegasak, merkaturatu soilik, eta Gasteizko ordezkari sindikalekin elkarrizketa hasi du


Gasteizko egoitza, 1964ko argazkian.

ARGAZKIAK: VK COMUNICACION

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Prototipoa sekretua da, baina asmoak, ez: Oñatin jaiotako Cegasa enpresa automobil elektrikoendako lehenengo bateria prototipoak garatzen dabil. Euskadik nahi du mundu osoan liderretako bat izan bateria horien sektorean, eta Cegasak lidergo horren aurreko lerroan egon nahi duela dirudi. Hala, bere ikerketa eta garapen proiektu horretan Seat etxe ezagunarekin elkarlanean dabil. Kontuan hartu behar da, Cegasak dioenez, bateria horien %80 Asian egiten dituztela, eta Europa hirugarren dela sektore horren garapenean, AEBen atzetik. "Hala ere, automobil ekoizleek argi eta garbi eskatzen dute bateriak eurengandik gertu egin daitezen", dio Cegasak.

Erabaki horrekin bat doa azaroan Cegasak jakinarazi zuen erabakia: etxerako pilarik ez du gehiago ekoiztuko Gasteizko lantegian; bai, ordea, komertzializatu. Horren arrazoia da produktu horren bezeroek beste ekoizle batzuei erosten zietela, eta Cegasak ezin zuela prezio lehiakorra eskaini. Horrek ekarri du Gasteizen beste 61 langile kaleratzea (lantalde horrek bazituen bi ERE), eta etorkizunaren gaineko gogoeta; enpresak dio beste jarduera batzuk egingo dituela han.

### "HAU DA ETORKIZUNA"

Cegasa Taldearen produktu-ikurra pilak izan dira, betidanik. Baina 80ko hamarkadatik dihardu bere jarduera dibertsifikatzen eta zabaltzen, beti ere, energia muin hartuta.

Dibertsifikazio horren adierazpen berriena bateria prototipoen ikerketa da, baina, gaurkotasuneko kontua izan arren, bateria mota horien gaineko Berritasun eta Garapen lanak baditu 10 urte Cegasan. Horren barruan, hidrogenozko bateriak badabil egiten; eta, bestetik, automobil elektrikoendako erabiliko dituztenak, litio ioi teknologia darabiltenak, gaur egun eramateko ordenagailuen, poltsikoko telefonoen eta beste aparailu elektriko eta elektroniko batzuen bateriek erabiltzen dutena. Iñaki Madina oñatiarrak, Cegasa Taldeko Industria-Ondasunen Negozioko zuzendariak, euren asmoak azaltzen dizkigu: "Orain, prototipoak probatzen gabiltza, eta gure helburua da 2010 eta 2012 bitartean egiten hastea: 2010ean, baterion elementu batzuk modu masiboan egiteko makinak erosiko ditugu; 2011n, beste elementu batzuk egitekoak; eta 2012an, bateriak modu masiboan egiten hasi gura dugu".

Litio ioizko bateriak ez dira aukera bakarra automobil elektrikoendako: berunezko, nikelezko... bateriak ere badaude. Madinak Cegasaren aukera azaltzen du: "Tradizio handiena dute berunezko bateriek; beste mota batzuetakoak ere izan dira. Horien aurrean, litio ioizkoek abantaila asko dituzte: espazio txikiagoan, energia gehiago pilatzen dute; besteak baino askoz egonkorragoak, iraunkorragoak eta kargatze eta deskargatze zikloan hobeak dira". Cegasa Taldeak argi dauka: "Litio ioizko bateriak dira etorkizuna".

Bateria horiek, gainera, ez dira bakarrik automobil elektrikorako erabiliko: "Energia berriztagarrietan erabiliko dira, sortzen den energia gordetzeko; eta baita sarerik ez dagoen lekuetan energia lortzeko: telekomunikazioak, antenak...", esaten du Iñaki Madinak.

### DIBERTSIFIKATUZ JOAN DA

Orain dela 75 urte pilak egiten hasi zen Oñatiko enpresa txiki hark bere burua berritzen jarraitzen du, baina, pilak egiteari utzi dion arren, horretan daukan esperientzia handia aplikatzen dabil bateria prototipo berrien ikerketan.

Gaur egun Cegasa Taldea dena 1934an sortu zuten Oñatin Zelaia, Enparantza eta Galdos (gaur egungo ugazaba Juan Galdosen aita) bazkideek. Etxerako kontsumo ondasunak egiten hasi ziren; batik bat, etxerako pilak, Tximist marka ezagunekoak. 1956an, Euskal Herriko eta Espainiako lehenak izan ziren kontsumorako linternak egiten.

Gasteizera eraman zuten lantegiaren egoitza nagusia, 1964an; hala ere, Oñatiko lantegiak beti jarraitu izan du. Zabalkunde prozesuak aurrera egin zuen, 1967an

DATUA

**210**

**MILIOI EURO**

Orain azkeneko ekitaldian, Cegasa Taldeak 210 milioi eurotik gora fakturatu ditu, aurrekoan baino gehiago. Horrela, "azken urteotako hazkunde joerarekin jarraitu" dute, dio Taldeak.

DATUA

**60**

**HERRIALDE**

Bost kontinenteetan eta 60 herrialde baino gehiagotan saltzen ditu Cegasa Taldeak produktuak, bai zuzenean, bai tokian tokiko banatzaileen bitartez.

TEKNOLOGIA

## Auto elektrikoa, oraindik ibilbidea hasi berri duen aurrerapena

Espainiako Gobernuak asmo handiak ditu: 2014. urterako, Hego Euskal Herrian eta Espainian milioi bat automobil elektriko egon daitezen nahi du. Horretarako, auto horien abantailak gogorarazten ditu: gauez kargatzen da, poltsikoko telefonoa balitz bezala –tamaina desberdina alde batera utzita...–; 100 kilometroko 1,5 euro bakarrik gastatzen du; kerik ez du botatzen; eta ez dauzka ohiko motoreen bibrazioak eta zaratak.


Auto elektriko bat, bateria kargatzen. GOIENKARIA

**"OSO BERDE DAGO"**

Abiadura osoan doa autoa, hortaz? Ez; oraindik hasieran dago. Zalantza handiena energia da, eta ea milioi bat auto (edo gehiago) elikatzeko adina energia egongo den sarean. Cegasa bat dator adituen iritziarekin: litio ioi teknologia duten bateriak dira aukera eragingarriena; hori bai, gaur egun, oso garestiak dira. Beste kontu bat da zelan kargatu ahal izango diren bateriok. Modu bat izango litzateke birkargatzeko postuak edo estazioak ipintzea, *elektrolinera* antzeko batzuk, eta Repsolek, adibidez, erabaki du Petronor zerbitzu-estazioetan auto elektrikoak kargatzeko zerbitzua ere ipintzea. Beste modu bat da norberak bere bateria kargatzea etxean; baina, jakina, automobila ez da poltsikoko telefonoa. Auto elektriko saltzaile Juanma Gay arrasatearrak dioenez, "merkatua oso-oso berde dago; jendeak ez du ondo ezagutzen, eta horrek eragiten du ez ausartzea auto elektrikoarekin. Gaur egun, etxean kargatzea, beste aukerarik ez dago".

PRODUKTUAK

## Errepiderako seinaleak ere bai

Energiaren inguruan, pilak egiten hasi zen Cegasa, Tximist pila ezagunak. Poliki-poliki, beti energia eta, zehatzago esateko, energia metatzeko teknologia ardatz gisa hartuta, bere jarduera zabaltzen joan da Cegasa Taldea. Gaur egun, multinazionala da, eta bi sailetan banatzen da bere lana: batetik, etxerako kontsumo-ondasunak edo produktuak egiten ditu; eta, bestetik, industriara zuzendutako produktuak edo zerbitzuak.

Gaur egun, 11 multzotan banatzen da Cegasa Taldearen produkzioa, Cegasa markarekin edo beste batzuekin (Cega-Power, Zigor, Solac, Decor, Air Alkaline eta Jupiter): kontsumo handiko pilak; energia-metagailuak eta kargadoreak; linternak; lanparak (kontsumo txikia, halogenoak eta goritasunezkoak); etxerako eskularruak (garbitzeko, manipulatzeko...) eta eskularru industrialak; etxeko bilgarriak (elikagaiak batzeko papera, zaborra batzeko poltsak); tresna elektrikoak (GMC markaren banatzaile gisa); etxetresna elektriko txikia (Solac); etxerako tresnak (Decor); eta errepideetarako seinaleak (obretarako balizak, luminariak, erremolkeak, mezu aldakorreko panelak, abiadura kontrolatzeko gailuak, radar informatikoak, softwarea...).

CEGASAREN PRODUKTUAK


Solac plantxa.


Solac ile-lehorgailua.


Latex eta kotoizko eskularruak.


Ilea (biloa) kentzekoa.


Zabor-poltsak.



Economy lanpara elektronikoa.


Decor lapiko azkarra.


Solac kafe makina.



GMC markako lixatzailea.



Rechargeable metagailuak.

kanpoko batek egindako produktu bat bere negoziora sartu zuenean Cegasak, lehenengo aldiz: goritasun-lanparak.

Beste hamarkada bat hasi zen, 80koa, Air Alkaline pila industrialak merkatuan ipiniz. Horrek abangoardiako teknologia eskaintzen zuen, muturreko baldintzetan energia burujabea behar zen uneetarako. Hamarkada horretan bertan, 1983an, Tximist markaren ordez Cegasa erabiltzen hasi ziren, eta 1989an, merkatuko lehenengo pila ekologikoa aurkeztu zuten.

Dibertsifikazioaren zabaltze eta sendotze garbia ekarri zuen 90eko hamarkadak, Cegasa Taldea osatzen duten bost enpresak sortu ziren-eta 1993-1994 urteetan: Cegasa, Cegasa Internacional, Cega Multidistribucion, Energia Portatil SA (Oñatiko lantegia) eta Amcel-Iberica SA. Bestalde, 1994-2001 urte artean, hainbat enpresarekin elkarlana hasi zuen Cegasa Taldeak; tartean, Philips Lighting eta Telefonica Moviles (Movistar) enpresekin, haien produktuak garatzeko edo merkaturatzeko.

Marka gehiago Taldearen barruan txertatu ziren: hala nola Solac etxetresna elektriko enpresa, 2005ean; eta, urte berean, sukalderako tresnen Decor marka. Urte bat geroago, Australiako GMC markako erreminta elektrikoen banatzaile esklusibo bihurtu zen Cegasa. Philips eta Lumilite marken banatzaile ere bada Euskal Herrian eta Espainian.

Energia arloa dela kontuan izanda, ingurumenaz "betidanik" arduratu izan dela dio enpresak, eta ISO kalitate ziurtagiriak ditu, ingurumenari dagozkionak.

**ZERBITZUAK ERE EMATEN DITU**

Cegasa Taldeak zerbitzuak ere eskaintzen ditu, batik bat, enpresei zuzenduak, eta hori egiten du bidez: logistika zerbitzuak (Cega Multidistribucion-en bidez); kategorien kudeaketa integrala (kanpoko produktu eta markei merkaturatze zerbitzu integralak, Cegasa Internacional-en bidez); kontsumo handiko produktuak merkaturatzea (Cegasa Internacional-en bidez); promozio-opariak (promozio-kanpainak kudeatzen ditu, eta produktuak saldu edo manipulatzen ditu; hori ere, Cegasa Internacional enpresak egiten du); errepideetarako seinaleztapen produktuak errentan ematen ditu (Cegasa Internacional-ek egiten du jarduera hori); eta ingeniaritza zerbitzuak ere ematen ditu, errepideak seinaleztatzeko edo zirkulazioa kontrolatzeko, eta baita proiektuak exekutatu edo mantentzeko (Cegasa Internacional).

Produktuak eta zerbitzuak emateko, bost egoitza ditu (lau Gasteizen eta bat Oñatin), eta 14 filial mundu osoan.

DATUA

# 1.000

**PERTSONA**

Cegasa Taldea hiru bazkidek sortu zuten, eta Oñatin zuten lantegi bakarra; gaur egun, 1.000 pertsona dabiltza Taldean, eta Oñatiko lantegiak Energia Portatil SA gisa jarraitzen du.

DATUA

# 14

**FILIAL**

Honako herrialdeetan ditu filialak: Frantzia, Portugal, Erresuma Batua, AEBak, Alemania (bi), Italia, Hong Kong, Txina (bi), Txekia, Polonia, Bulgaria eta Eslovenia.

KALERATZEAK

## Gasteizko pila lantegiko beste 61 kontratu eten egingo ditu

Gasteizko pila lantegia luzaroan egon da krisian. Enpresak behin eta berriz eman zuen pilen negozioak eragiten zituen galeren berri; hala, 2008an 23 milioi galdu zituela esan zuen. 2003-2007 urte bitartean %15 jaitsi zen, batez beste, Cegasa pilen prezioa. Martxoan ERE bat onartu zen, 360 kontratuetatik 203 bukatzeko; eta abuztu bukaeran beste ERE bat sinatu zuten enpresak eta sindikatuek, 142 kontratu bukatzeko. Orain, Cegasak esan du beste 61 kontratu eten egingo dituela, eta sindikatuekin elkarrizketa prozesua irekitzen dela.

Langileek beti salatu izan dute enpresaren jarrera, esanez "urte askoan irabaziak" izan zituela pilen negozioak, eta urte bateko galerek ez zutela "justifikatzen" hura ixtea. Era berean, mesfidantzaz hartu zituzten enpresak agertutako asmoak: kanpoan egindako pilen etiketatua eta paketatze lanak eta beste jarduera batzuk Gasteizen egingo dituztela.

**HEDABIDEAK** > TOPAGUNEA

# Tokiko aldizkariek marka bateratua sortu dute

## Tokikom marka sortu dute, aldizkarion elkarlana eta talde izaera azpimarratzeko

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Tokiko aldizkariek Tokikom marka sortu berri dute, tokiko aldizkarien elkarlana eta talde izaera azpimarratzera datorren marka bateratua.

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioan bazkide diren 36 tokiko aldizkarietatik, 20k sortu dute Tokikom; GOIENKARIAk, besteak beste. Epe ertainera, guztiak egotea da asmoa.

Tokikom, oinarrian, marka bat da, euskarazko tokiko hedabideak eta haien ezaugarri eta balio komunak batzen dituena, nork berea galdu barik.

**EZAUGARRI KOMUNAK INDARTU**

Topaguneko euskarazko hedabideak askotarikoak izan arren, maiztasunari, formatuari eta itxurari dagokionez badira guztiok komunean dauzkaten ezaugarriak: hurbileko informazioa lantzen dute, gai orotarikoak; unibertsalak dira eta populazio osoarendako lantzen dute informazioa; liderrak dira euren esparruan eta tokian tokiko hedabide guztien baturak bihurtzen ditu, era berean, lider euskarazko hedabideen artean ez ezik, Euskal Herriko edozein hedabideren artean. Izan ere, 220.000 irakurletik gora dituzte guztien artean.

Bada, komunean dituzten ezaugarri horiek azpimarratzea eta indartzea da asmoa, eta elkarlanerako kanalak irekitzea ere bai. Era berean, zenbait arlotako informazioa partekatzea eta guztiok batuta 220.000 irakurletik gora izateak ematen dien indarra hobeto baliatu ahal izatea ere bada haien helburua.

## 'Tokikom.com' webgunea ere sortu dute

Tokikom-en ekarpenetako bat da *Tokikom.com* webgunea. Dagoeneko ikusgai dago eta bisita daitezke tokian tokiko hedabideek lantzen dituzten albisteak. Beste ekarpen bat da publizitate eskaintza bateratua ere egin ahal izango dutela Tokikom-eko aldizkariek. Modu horretan, iragarle handiei eskainiko zaie euskarri ezin hobea helarazteko mezua ahalik eta jende gehienarengana. Gainera, iragarleak aukeratu ahal izango du non jarri nahi duen mezua, hedabide guztietan edo komeni zaionetan. Epe ertainera, haurrentzako gehigarriak, liburuak... ere ekoiztuko dituzte.

Marka hori izango dute aldizkariek.

Bestalde, Tokikom-en barruan dauden aldizkariek ikurra eroango dute azalean, buruan. GOIENKARIAk aurreko astetik darama.

**HEDABIDEAK** > TEKNOLOGIA

# Euskadiko tokiko telebistek berdintasuna eskatu dute digitalizazio prozesuan

## DIGIBATek salatu du diskriminazioa bizi dutela eduki orokorreko kateekiko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Euskadiko Tokiko Telebisten Elkarteak (DIGIBAT) prentsaurrekoa egin zuen eguaztenean, eduki orokorreko telebistekiko Euskadiko tokiko telebistek bizi duten diskriminazioa salatzeko. "Digitalizazio prozesua gidatzen ari diren erakunde publiko guztien aldetik jasaten ari garen tratua salatu nahi dugu", esan zuten agerraldian DIGIBATekoek. Gainera, esan zuten: "erakunde publikoek diru publikoa banatu dute TVE, ETB, Antena3, Tele5, Cuatro eta La Sexta digitalizatzeko eta gure herrietara eramateko, inolako gainkargarik ezarri barik".

**1,10 MILIOI EURO URTERO**

Era berean, esan zuten tokiko telebistek euren kabuz egin behar dutela analogikotik digitalerako trantsizioa. "Aldaketa zenbakietara ekarriaz, egokitze prozesu honek urtean 1,10 milioi eurotik gora eskatzen dizkigu, zerbitzu publikoa herritar guztiengana helarazteko", esan zuten. Horregatik guztiagatik, eduki orokorreko kateek duten tratu berbera aldarrikatu zuten.

**LIZENTZIADUN OPERADOREAK**

Orain dela hiru urte zabaldu zuen Eusko Jaurlaritzak EAEn tokiko telebista digitalen lizentziak banatzeko lehiaketa. Guztira, 58 banatu zituzten. Ondorioz, lizentziadun operadoreek DIGIBAT elkartea sortu zuten 2007ko udan; besteak beste, GOITB, Teledonosti eta Canal Gasteiz dira DIGIBATeko kide.

**HITZARMENA**

Bestalde, Gipuzkoan lurreko telebista digitalaren estaldura erregulatzen duen hitzarmena sinatu dute Foru Aldundiak, Eudelek eta Eusko Jaurlaritzak. Aurrekontu orokorra 3.500.000 eurokoa izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak %25 finantzatuko du (875.000 euro). Horietatik, 475.000 euro 2009an egindako ordainketarekin konpentsatuko dituzte; eta gainerakoa 2010eko lehen hiruhilekoan ordainduko dute.




ALMACENES ARRASATE
FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**


2 URTE BERME
1200 b/min 7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA F-2712 FAGOR
420 -105 (Renove plana)
315 €


2 URTE BERME
1000 b/min 6 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA 3F-1610 FAGOR
335 -105 (Renove plana)
230 €


1000 b/min 5 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA ALF-110 aspes
280 -105 (Renove plana)
175 €


2 URTE BERME
185 x 60 x 60
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA DREAM G-185 edesa
490 -85 (Renove plana)
405 €


144 x 55 x 60
A Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA AFD-145 aspes
295 -85 (Renove plana)
210 €


2 URTE BERME
TELEBISTA TX-L32X10Y LCD 32" Panasonic
495 €


2 URTE BERME
TELEBISTA TX-P42X10Y PLASMA 42" Panasonic
635 €


2 URTE BERME
TELEBISTA UE40B7020 LED 40" SAMSUNG
1.190 €


A Sailkapen energetikoa
PIROLISIS LABEA 6H-755 X FAGOR
405 -75
330 €


A Sailkapen energetikoa
LABEA ETA BITROZERAMIKA aspes
360 -75 (Renove plana)
285 €

RENOVE PLANA
GARBIGAILUAK
ONTZI-GARBIGAILUAK
HOZKAILUAK
IZOZKAILUAK
A -85 €
A+ -105 €
LABEAK -75 €

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen bataz besteko energia kontsumoaren araberako energia aurreztea.
A+ 70%
A 45%
B 25%

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



Ezkerretik hasita, Ernesto Murgiondo, Cipriano Marin, Javier Gomez-Limon, Lourdes Idoiaga, Rafa Uribarren, Iker Urtzelai eta Joan Poch, inaugurazioan. GOIENKARIA

**NATURA ETA TURISMOA** > JARDUNALDIAK

# Asteon hazten ari den segmentu estrategikoaz jardun dute

Eguaztenean, espazio publikoei buruz jardun zuten Arantzazun

Eguenean, berriz, lurazpiko turismoaz hitz egin zuten

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Eguaztenetik eguenera bitartean, *Natura Turismoa: hazten ari den segmentu estrategikoa* izeneko jardunaldiak egin zituzten Arantzazuko Gandiaga topagunean. Askotariko alorretako 60 lagun inguru batu ziren han.

Eguaztenean, iraunkortasunari eta espazio publikoei buruz hitz egin zuten. Unescoko Turismo Arduratsua Institutuko kide Cipriano Marinek, esaterako, naturaren eta turismoaren praktika onaz eta gaur egungo erronkez jardun zuen; eta Basquetourreko Iker Urtzelaik gaur egun naturari atxikituta dauden turismo produktuez. Horren harira, ibilbideen gaineko errepasoa egin zuen.

Atzo, eguena, geologia izan zuten hzipide: lur azpiko turismoa, hain zuzen. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Geologia irakasle Joan Pochek hitzaldia egin zuen. Gainera, Gipuzkoako Diputazioko Mendi eta Ingurumen zuzendari Asier Arresek basoen erabileraz eta ustiazpenaz berba egin zuen.

**ALORRA LANTZEN HASI BEHAR**

Jardunaldietan, Oñatiko Turismoko zinegotzi Ernesto Murgiondok Oñatirendako naturari lotutako turismoaren garrantzia azpimarratu zuen: "Gipuzkoa mailan, zabaleran, kilometro gehien duen herria da Oñati; hain justu ere, 108 kilometro karratu inguru ditugu. Landagunez oso ondo hornituta dago eta natura-turismoa lantzen hasi behar dugu ezinbestean".

Oñatiko alkate Lourdes Idoiagak bat egin zuen Murgiondoren hitzekin. Horren harira, nabarmendu zuen jardunaldien bidez "ikasi" egin nahi dutela: "Aurreikuspenak onak badira ere, oraindik asko dugu ikasteke". Gipuzkoako Landa Ingurunearen Garapenerako diputatu Rafa Uribarrenek, azkenik, jardunaldietatik "fruitu eta emaitza onak" lortzea espero duela esan zuen.

ESANAK

**"Oñati zabalena izateaz gain, landa gunez ondo hornituta dago eta natura-turismoa lantzen hasi behar dugu"**

**Ernesto Murgiondo** > Zinegotzia

DATUA

**60**

**PARTAIDE**

Askotariko alorretako 60 bat lagun batu ziren: tartean, lurraldeko zein lurralde kanpoko agentzietakoak, landara eremuko agentzietakoak edo turismo aktiboan dihardutenak.

**POLITIKA**

## Debagoieneko lau lagun auzipetu ditu Garzonek

Epaileak Batasuna, EHAK eta EAE-ANVren aurkako auzia itxi du asteon

**J.IRIONDO / M.BITERI** > BERGARA

Lau debagoiendar daude Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaile Baltasar Garzonek Batasuna, EHAK eta EAE-ANVren aurkako auzian auzipetu dituen 43 lagunen artean. Aittor Arantzabal, Mikel Zubimendi eta Mikel Garaiondo bergarararrak eta Arrasateko alkate Ino Galparsoro dira. Garzonek sumarioa itxi eta zigor arloko bigarren salaren esku utzi du asteon auzia. Sala horrek erabaki behar du orain epaiketa egin edo ez.

Goiena Telebista Ino Galparsororekin izan da. Arrasateko alkateak zalantza gutxi du epaiketa egin egingo dela. Horrekin batera, aipatu du ahalegintzen dela epaiketa horrek izan ditzakeen ondorioetan gehiegi ez pentsatzen: "Ni saiatzen naiz buruan gai hori gehiegi ez edukitzen. Gertatuko dena ez dago nire esku. Alkate izaten jarri behar dut indarra, eta saiatzen naiz horretan".

**"DENA ETA DA"**

Sumario horretan auzipetutako 43 lagun gehienak bezala, kartzelan daude egun Aittor Arantzabal, Mikel Zubimendi eta Mikel Garaiondo. Galparsoro ere izan zen espetxean, eta badaki badaudela aukerak berriz ere, sartu dezaten. Dio lehenago ere asko eraman dituztela euren ideia politikoengatik. ETAkide izatea leporatzen diete auzipetuei, "dena ETA da" baieztapenaren baitan, dio Galparsorok.

Horren aurrean, baina, Galparsorok ikusten ditu itxaropentsu izateko arrazoiak, eta ezker abertzaleak Altsasun aurkeztutako planteamendua gogorarazi du.

**HIZKUNTZA** > ABENDUAK 3

# Ugariak izan ziren atzo euskararen aldeko mezuak

Bailaran ekimen ugari antolatu zituzten euskaldunon hizkuntzaren eguna ospatzeko

**M.B.** > BERGARA

Atzo, abenduak 3, Euskararen Eguna izan zen, eta, urtero moduan, Debagoienean ekintza ugari antolatu ziren. Esaterako, Debagunekoek, Debagoieneko Euskara Elkarteen Elkargokoek, egun osoa eman zuten *Niri euskaraz* zioten pegatinak eta *En euskara sabe mejor* piruletak banatzen dendetan eta udal langileen artean.

Hori, Debaguneri dagokionez. Baina bailarako herri gehienetan ere ekimenak egin zituzten. Aramaion, esaterako, umeei zuzendutako euskalkien gaineko mahai-ingurua egin zuten goizean kultura etxean. Lierni Altunak gidatu zuen hori.

Bestalde, Bergarako Aranzadi ikastolan, urtero bezala, Ikastolen eta Euskararen Eguna ospatu zuten egun osoan eta ekintza ugari egin zituzten maila guztietako ikasleek. Gainera, arratsaldean, Hizkuntza Eskubideen Behatokiko zuzendari Paul Bilbaok hizkuntza eskubideei buruzko tailerra eman zuen kultura etxean.

**EUSKARAREN ALDEKO MEZUAK**

Eskoriatzan, berriz, euskararen gaineko mezuak zintzilikatu zituzten. Plazan jartzeko asmoa zuten arren, eguraldi txarra zela eta udaletxeko arkupeetan zintzilikatu zituzten. Arratsaldean, berriz, jaialdia izan zuten Luis Ezeizako ikasle eskoriatzarrek eta gatzagarrek pilotalekuan. Oñatin ere ekimen asko egin zituzten ETEO, Txantxiku ikastola, Elkar Hezi eta Errekalde herri eskolako ikasleek.




*FAR WESTEKO EUSKAL HERRIA! Mendebal Urruneko paisaia, pioneroak, urre-bilatzaileak eta diligentziak, artzainen eta abeltzainen arteko liskarrak, indioak, cowboyak … Far West zaharraren historia, baina ez Hollywooden bertsioan, baizik eta han ibili ziren euskaldunek kontatua.*

**Durangoko Azokan salgai**

PAMIELA
www.pamiela.com

**EKONOMIA** > FAGOR TALDEA

# Oraingoan, sari osoa gura dute bazkideek

## Kontseilu Orokorraren proposamena atzera botata, ez dago halako beste neurririk aurreikusita

**G.ARANA-L.KORTABARRIA** > ARRASATE

Fagor Taldeko langileek erabaki dute Gabonetako aparteko ordainsaria osorik kobratzea, eta ezetz esan diote Kontseilu Orokorrak egin zuen proposamenari, ordainsariaren erdia bakarrik jasotzeari, alegia. Kontseilu Sozialak aldeko botoa eskatu zien, baina eskatu zaien beste zuhurtasun neurri horrekin bat ez egitea erabaki dute bazkideek. Izan ere, Fagor Taldeko bazkide guztiendako, joan den abendutik eskatzen zitzaien bigarren ahalegina zen; eta Fagor Etxetresnetako bazkideendako, hirugarrena, iazko Gabonetako aparteko ordainsariari osorik uko egin zioten-eta.

Bozketa azaroaren 25ean egin zuten Fagor Taldeko bazkide guztiek, zortzi kooperatibetakoek. Lehenengo aldiz bozkatzen zuten Taldeko lantegi guztietako bazkideek neurri bat denek batera. Langileen %40,6k proposamenaren aldeko botoa eman zuten (2.188 boto) eta %59,4k, kontrakoa (3.200 boto). Proposamenak aurrera egin izan balu, Fagor Taldeak sei milioi euro aurreztu izango zituzkeen. Diru horren %75 Fagor Taldearen urteko emaitzak orekatzeko edo osatzeko izango zitekeen; eta beste %25a, elkartasun fondo baterako, Fagor Taldean txartoen dabiltzan kooperatibei laguntzeko. Ekarpen horrek ez ziokeen egoerari guztiz buelta emango, baina lagundu izango zukeen. Proposamen horri ezetza jasota, taldeak ez du oraingoz beste zuhurtasun neurririk buruan.

**SOLDATA %8 JAITSI ZUTEN**

Hasieran, Kontseilu Orokorraren proposamena zorrotzagoa zen: iaz bezala, Gabonetako ordainsari osoari uko egitea. Kontseilu Sozialak horren aurka proposatu zuen, aldiz, ordainsariaren erdiaren gaineko galdera egitea.

Fagor Etxetresnen iazko ahalegina ez da bakarra izan Taldean; hala, Fagor Talde osoak, 6.000 bazkidetik gora, soldatak %8 jaistea onartu zuten urte erdia pasata. Horren zergatia zen 2008ko emaitzak txarrak izan zirela: Fagor Etxetresnek, adibidez, 2007an baino %98 gutxiago irabazi zuten.



Langilea, Fagor Arrasaten. GOIENKARIA

etxeko leihotik



**Monika Belastegi** > 'mbelastegi@goiena.com'

## Teknologiaz baliatu lehengoari eusteko

Ronaldoren lesioek, U2ren diskoek edo Dan Brownen liburuek Bilbon hasi eta Tokyora arteko jarraitzaile multzo handiak dituzte; mundu globalizatuan bizi izatearen ondorioetako bat da hori. Komunikatzeko modu berriei esker kultura uniformatzen ari da eta hainbat herrialde euren kultura eta nortasuna galtzen joan dira globalizazioaren ondorioz; belaunaldien artean etena egon da ohituren transmisioan. Euskal Herrian ere zenbait ohitura aldatzen edo galtzen joan dira.

Kanpotik etorritako kultura molde berriek nabarmen aldatu dituzte euskaldunon ohiturak. Eta ez dago zertan oso atzera egin denboran, horretaz jabetzeko. Gure gurasoek aisialdia emateko zituzten moduak eta gureak, esaterako, asko aldatu dira. Baina, zorionez, beste hainbatek irmo jarraitzen du: gaur hasi den Durangoko azokak martitzenean jokatuko den lau t'erdiko pilota txapelketaren finalak eta BECen hilaren 13an izango den bertso finalak erakusten dute Euskal Herrian, behintzat, belaunaldien arteko transmisioak jarraitzen duela. Ekitaldiok jakin izan dute gaur egunera egokitzen eta benetan arrakastatsuak dira, gainera. Halaber, gaur egungo aurrerapen teknologikoek komunikatzeko eskaintzen dituzten abantailez baliatu dira, euskal kultura gaur egungo unibertso zabalean mantentzeko.

**"Durangoko azoka, bertso txapelketa... teknologia berriez baliatu dira"**

**> Txikitik, handira.** **Bergaratik mundu osora zabaldu zuten Elhuyar anaiek Wolframioa. 1783an isolatu zuten eta oso garrantzitsua izan da metalurgiaren garapenerako. Xehetasun guztiak, Bergarako osoko bilkuran dagoen erakusketan.**

**> Euskararen Egunak** **60 urte bete zituen atzo. Urteotan asko aldatu da gizartea; berrikuntzak garrantzi handia du eta euskarentzat ere aukera izan daiteke hori, hizkuntzen industriaren bidez. Hori aztertzen ari da Gipuzkoa Berritzen (*www.innobasque.com*).**

**EKONOMIA** > ERREKONOZIMENDUA

# Ezagutzaren kudeaketan Europako 10 enpresa onenen artean dute Mondragon

## MAKE txostenak eman dio sari hori Arrasateko korporazioari; bigarren aldiz irabazi du

**L.K.** > ARRASATE

Europan Gehien Miresten diren 10 enpresen artean (European Most Admired Knowledge Enterprises–MAKE) errekonozitu dute Mondragon Taldea, Ezagutzaren Kudeaketari dagokionez, MAKE txostenaren bederatzigarren edizioan; Mondragon Korporazioak bigarren aldiz jaso du sari hori. Erresuma Batuko BBC eta British Petroleum, Suediako Ericsson eta Ikea, Finlandiako Nokia, Herbehereetako eta Erresuma Batuko Royal Dutch Shell, Alemaniako SAP eta Siemens eta Espainiako Uria Menendez abokatuen langela ere saritu dituzte.

**"LEHIAKIDEAK BAINO HOBETO"**

Txostenaren egileak dira Teleos enpresa, ezagutzaren eta kapital intelektualaren kudeaketan diharduena, eta Know Network web komunitate globala, ezagutza praktikak aztertzen eta elkartrukatzen diharduten erakundeak biltzen dituena, kalitateko emaitzak bilatzeko.

Teleoseko zuzendari gerente Rory Chaseren iritziz, "erakunde horiek Europako lidertzat hartu dira eraginkortasunez jakin dutelako enpresaren ezagutza aberastasuna, produktuak eta soluzioak sortzeko ideia bihurtzen. Kapital intelektual eta ukiezineko aktiboak sortzen ari dira –jarraitu zuen–, eta horrek ahalbidetuko die etorkizunean lehiakideak baino hobeto ibiltzea".

Azterketaren emaitzak Europako 500 enpresa nagusietako goi-mailako exekutiboei egindako galderen erantzunetan oinarrituta lortu dira.

**LANA** > PROTESTA

# Ospitaleko garbitasun langileek greba egingo dute

## Baldintza hobeak eskatzeko lanuztea egingo dute lehenik hilaren 10ean

**J.IRIONDO-L.K.** > ARRASATE

Eskualde ospitaleko garbitasuneko langileek eskatu dute ospitaleetako garbitasun lanetan jarduten duten azpikontratatutako enpresetako langileen soldatak eta eskubideak Osakidetzako langileenekin parekatzea. Hori esan zuten martitzenean ELA, UGT, CCOO, LAB eta ESK sindikatuek deituta egin zuten bilkuran. Egoera aldatu ezean, hilaren 10ean bi orduko lanuztea egingo dute, eta 16an, greba.

Langileok diote 2007. urtean onartu ziela Osakidetzak baldintza horiek, baina azpikontratatutako enpresak ez dabiltzala hitzartutakoa betetzen. Eskatzen dute antzinakotasunean oinarritutako gehigarri bat ordain diezaieten, Osakidetzako gainerako langileek badutena; esaten dute orain, urtean 1.000-4.000 euro bitarteko aldea dagoela bi taldeon artean.


ALDEKO AURREZKIA ALDEAN
Interesa, mahai gainean
Hotzari aurrea hartu eta zure aurrezkien interesak produktu bero eta dotore bihur itzazu, praktiko eta diseinuzko. Kutxan produkturik onenak bilatzen ditugulako, unearen eta zure beharrizanen arabera. Aukera ezazu zeure interesa: zeure ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 telefono-zenbakian, www.kutxa.net-en edo kutxaren kutxazainetan
Hautatu zer eraman nahi duzun
Edredoi bat, emakume edo gizonezko erloju bat edo xukadera-sorta bat ere eraman ditzakezu.
Baldintzak kontsultatu.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa



zabalik

Txipi Ormaetxea

# Balioak

Bai, bizitzan goren ditugun balioak, balio etikoak, nolabait esateko; badakizu, askatasuna, familia, adiskidetasuna, duintasuna, euskara akaso... Banaka batzuk indarra galtzen doazen neurrian, beste batzuk nagusitzen ari dira. Aurreko mendearen erdialdera, esaterako, euskaldunen artean fedea horietako balioa bide zen; gaur, ostera, fedea ez genuke ziurrenik balio nagusien artean sartuko. Eta horrela beste batzuekin.

Azken urteetan kezka sortzen didan zerbait aipatu gura dut orain. Emandako hitza betetzea balio handikoa izan da nire bizitzan. Bi berbarekin ondo azaldu zuten hori gure arbasoek: *Hitza hitz!*. Iparraldean beste hau ere bai: *Hitza hitz, bestela gizona hits*, emandako hitzari atxikitzen ez zaiona barregarri geratzen dela adieraziz. Orain dela gutxi gazte bizkaitar bati entzun diot bere herrian "berbie zorra da" diotela gauza bera esateko. Gotzon Garate euskaltzale eta euskalari handiak honako hau ere jaso zuen, beste batzuen artean: *Berba emon, zor*. Beste hau ere Gotzoni entzuna naiz behin baino gehiagotan, ingelesez euskaldunei buruz dagoen esaera bat: *The Basque is faithful* (alegia, euskalduna hitzekoa dela).

**"Gazteez ez dut gaizki berba egin gura, baina... Konpromisoa ez dut uste gaur egun modan dagoenik"**

Bada, zer esango dizuet, gero eta garbiago ikusten dut esaera horiek diotenak gero eta gaurkotasun txikiagoa duela gure gizartean. Oro har, eta gazteen artean, bereziki. Gazteez ez dut txarto berba egin gura, baina haiengan ikusten dudanagatik aipagai dugun balio horrek ez du pisu handiegirik (zorionez, badira ere salbuespen nabarmenak). Konpromisoa ez dut uste gaur egun modan dagoenik. Tamalez, nire uste apalez.

usteak uste

Arritxu Barruso

# Zazpi urte gure egunkari barik

Ia zazpi urte pasatu dira Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz, *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuela. Egunkari barik geratu ginen euskaldun eta euskaltzale guztiok. 1990eko abenduaren 6an kaleratu zuten lehen zenbakia eta pozik hartu genuen esku artean; euskara hutsean argitaratzen zen lehen egunkaria zen, aurrerapauso itzela. Gure egunkaria itxi izana salatzeko kalera atera ginen milaka pertsona 2003ko otsailean; Donostia txiki geratu zen. Abenduaren 19an berriro ere kalera ateratzeko eguna dugu Bilbon, *Aski da!* esateko.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# 'Tuenti'-n argazkiak jartzeagatik kartzelara

**Bertol Belloso**
www.goiena.net/blogak/29A

Gaurko gazte asko *Tuenti* sare sozialean dabiltza, are gehiago, nahiko arraroa da bertan ez dabilen gazterik aurkitzea. Ziur nago zuek ezagutzen dituzuen gazteen artean eta *Tuenti*-n kontua duten galdetuz gero, erdiak baino gehiagok kontua izango duela; erabiliko duten ala ez beste kontu bat da.

Hemendik urte batzuetara Espainiako presidente izango dena *Tuenti*-n dago, seguru; hemendik urte batzuetara Euskal Herriko lehendakaria izango dena *Tuenti*-n dago seguru; jende piloa aurki dezakegu.

Azken albistea: gazte bat kartzelara joan daiteke *Tuenti*-n jarri dituen argazkiak direla eta. Mutilak neska laguna zuen eta harekin ateratzen ari zen bitartean, egun batean zenbait argazki berezi (larru gorritan) atera zituen. Hasieran neskak ez zion garrantzirik emango, erlazioa ongi baitzihoan baina denborak aurrera egin ahala neskak mutila uztea erabaki zuen; ondorioz, mutilak min egiteko argazkiak *Tuenti*-n jartzea otu zitzaion. Mutilak ez zituen ondorioak pentsatu, mutila aski haserre egongo zen neska utzi zuela eta; horrela kristoren burugabekeria egin zuen: Argazkiak mila gazteren begietan jartzea.

Badirudi gaztea azkenean kartzelara ez dela joango, datozen bi urteetan horrelakorik egiten ez badu; baina nik zera galdetzen diot ene buruari:

(...)

Zer nolako arriskuak ekar ditzakete gaur egungo teknologia eta sare sozialen erabilpen desegokiek?

Ez dakit, baina nik uste dut badela garaia erabiltzaileak hezitzeko; zeren hemendik gutxira mugikor berria edonork izango du, egun osoan *on-line* egoteko aukerarekin, sare sozialak ere erabilpen hauetarako sortuko dira... (sortu ez baldin badira, jada). Eta beti, nahiz eta lagun artean ibili, atentu izan zelako argazkiak eta nork egiten dituen.

koplak

Eñaut Uriarte

# Hizkuntz motorra da gure altxorra

Euskaran eguna izanda
nik hartu nahi neuke txanda
euskal jentiai galdetutzeko
gure ama hizkuntza non da?

Pena ematen dau benetan
gure herriko kaleetan
euskaldun zaharra izanda erdaraz
eitten dabenak berbetan.

Hau omendu nahi ezkero
arren ez ahaztu gero
omenaldirik onena dala
erabiltzia egunero.

Euskaldun berriak ara
merezi dabe eupada
euskaraz bizi ta mintzatzia
oso txalogarria da.

Beraz jarri arreta horra
egin daigun lan gogorra
gal ez dagigun mende asko dala
guria dogun altxorra.

Asko da euskaran kontrako
politiko asko tarteko
euskaldun denak elkartu ezkero
hori ez da inoiz gertatuko.

Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale • **Difusioa:** 19.724 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Joan Mari Torrealdai konbentzituta dago 'Egunkaria'-ren kontrako auzian arrazoi emango dietela epaileek, arrazoi juridikorik ez dagoelako haiek epaitzeko. Baina, era berean, dio "susmoak, sentsazioak" direla txarrak. Izan ere, hark dioen moduan, "Auzitegi Nazionalera sartzen zarenean, beste parametro batzuen arabera epaitzen zaituzte".

**Joan Mari Torrealdai** > 'Egunkaria' auzian akusatua

# "Justiziarik balego lasai nengoke, baina sentsazioak dira txarrak"

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

**Oihana Elortza lankideak Arrasate Irratian elkarrizketatu du Joan Mari Torrealdai, *Egunkaria* kasuaren auzi politikoan auzipetua dagoena. Irratiko solasaldia ekarri dugu paperera.**

**Hilaren 15ean hasiko da *Egunkaria* auziaren gaineko epaiketa Auzitegi Nazionalean…**

Hedabideetatik jakin dugu abenduaren 15ean hasiko dela epaiketa. Hori guganako errespetu falta handia da. Bestalde, bi auzi daude. Bigarrena ekonomikoa da eta datorren urtean epaituko da. Lehenengoa, politikoa. Gure kontrako salaketa da *Egunkaria* ETAren tresna zela. Salaketa hori oraingoa da, ze hasieran beste salaketa batzuk baitzeuden, beste hipotesi batzuk: Guardia Zibilak leporatu zigun *Egunkaria* zela ETAren diruarekin egindakoa eta ETAren dirua zuritzeko. Hipotesi horrek porrot egin zuen eta gero pasatu ziren hasieran pentsatu ere egiten ez zuten bestera, zerbaiti heldu behar-eta.

**Kosta ahala kosta aurrera egin nahi izan dute epaiketarekin?**

Fiskalak esan die epaileei: "Hasi zineten esaten ETAren diruarekin egiten zela *Egunkaria*, baina ezin izan zenuten frogatu; esan zenuten ETArendako dirua zuritzen zuela *Egunkaria*-k eta hori ere ezin izan duzue frogatu; eta, orain, zatozte esaten *Egunkaria* ETAren tresna dela, baina hori ere ez duzue frogatu". Horregatik, fiskalak erretiratu egin ditu beste fiskal batek, PPren garaikoak, jarritako salaketak.

**Fiskalaren akusazio barik zoazte, hortaz, epaiketara?**

Dignidad y Justicia eta AVT elkarteen herri akusazioarekin.

**Zergatik gailentzen da herri akusazioaren salaketa fiskalarenaren gainetik?**

Bageneki… Europa demokratikoan hori ez da posible. Herri akusazioaren figura ez da existitzen. Hiru akusatzaile mota daude: bata da Estatuarena, fiskala; bigarrena da akusazio partikularra; hau da, kaltetuaren salaketa. Guk ez daukagu ez fiskalarena eta ezta kaltetuena ere, ez dago kalteturik auzi honetan. Hirugarren bat daukagu: herri akusazioa. Figura hori, jatorrian, ona da. Elkar hartze bat dagoenean aginte politikoaren eta ekonomikoaren artean, esaterako, eta kaltetu jakin bat ez badago, egon dadila beste helduleku bat. Baina herri akusazioaren perbertsio bat dago euskaldunen kontrako auzietan.



Joan Mari Torrealdai, *Egunkaria* kasuagatik epaitua izateko zain. ARGAZKI PRESS

***Egunkaria*-ren aurkako epaiketa biak Auzitegi Nazionalean egingo dira?**

Ez dakigu ziur, baina hori da beste absurdo absolutu bat. Ekonomia kontuekin zerikusia duen auzian, fiskalak esaten die epaileei zertara datozen orain diru kontuengatik epaitzera lehenago hipotesi hori eskuartean eduki eta erretiratu dutenean? Ez dauka zentzurik. Diru kontuekin zerikusia duten irregulartasunak baleude, horiek epai daitezela epai naturala den esparruan, hau da, Tolosan, baina ez Auzitegi Nazionalean, kontu honek ez daukalako terrorismoarekin zerikusirik. Hori dena esan die fiskalak epaileei. Hala eta guztiz ere, oraingoz, han epaituko gaituzte.

FROGARIK EZ

**"Fiskalak erretiratu egin ditu beste fiskal batek, PPren garaikoak, jarritako salaketak"**

JUSTIZIA

**"Ez daukat amorruaren sentsaziorik; etsipena sentitzen dut, justiziarik ez dudalako ikusi"**

MANIFESTAZIOA

**"Jendeak badu 'Aski da!' esateko gogoa. Edozer gauza edozein preziotan ezin dela egin"**

**Epaiketara ze aldarterekin zoazte?**

Susmoak eta sentsazioak dira txarrak. Kezka, beldurra, segurantza falta… Justiziarik balego, lasai egongo ginateke. Baina justizia egin nahi da ala beste zerbait? Auzitegi Nazionalera sartzen zarenean beste parametro batzuen arabera epaitzen zaituzte.

**Zuen abokatuak zela ikusten du epaiketa?**

Edukia kontuan izanda eta testuinguruaren abstrakzioa eginda, oso itxaropentsu, baina gu baino askoz hobeto ezagututa epaitegi horrek zela funtzionatzen duen, beldur handiarekin ere bai.

**Okerrenerako prest zaudete?**

Okerrenerako preparatuta ez, jakina. Okerrena ere gerta daitekeela pentsatuta bai, baina ni neu optimista naiz. Sinestezina gertatzen zait pentsatzea gaizki buka daitekeela.

**Ze ondorio ekar lezake honek?**

Epaia kontrakoa bada, euskara bera jartzen da auzitan. Ezagutzen dugu txosten bat, 2001ekoa, Guardi Zibilarena, hori bai nobela beltza, errealitatearen asmazioa den aldetik… Txosten horretan oso garbi ikusten da zein den haien tesia: euskararen defentsarako eta promoziorako badaude erakunde publikoak eta hortik kanpora egiten den guztia ETAren alde lan egiteko mozorro bat da.

***Egunkaria* itxi aurreko txosten bati buruz diharduzu.**

Bai, *Egunkaria* auziaren historia 2001ean hasi zen. Urte horretan Guardia Zibilaren kapitain batek eroan zion txosten hau Garzoni eta honek ez zuen ikusi gairik juizio baterako. Eta, orduan, eroan zioten Fungairiñori, orduko fiskal nagusiari. Hark eman zion Del Olmo epaileari, sartu berria Auzitegi Nazionalean. Merituak egiten zebilen eta hor abiatu zen *Egunkaria* auzia. Txostena ikaragarri paranoikoa da, inteligentziari egiten zaion iraina.

**Zelakoak izan dira iaz zapi urte hauek?**

Ez daukat amorruaren sentsaziorik. Etsipena sentitzen dut zentzu batean, justiziarik ez dudalako ikusi. Hau ez da posible! Ia zazpi urte hauek galdutzat ematen ditut. Kulturatik atera naute. Mundua txikitu egin didate, obsesio batekin bizitzera laburtu dute nire mundua.

***Egunkaria* itxi osteko manifestazioa izugarria izan zen. Ordutik babes hori hoztu egin da ala babestuta sentitu zarete?**

Oso babestuta; edo hobeto esanda, oso maitatuak. Abenduaren 19an Bilbon *Egunkaria* itxi osteko Donostiako manifestazio hura berritu eta ahal bada gainditu nahiko genuke. Izan ere, konbentzituta gaude manifestazio hark beste eraso batzuk geldiarazi zituela. Konturatu ziren horren urruti ezin zirela joan. Jendeak badu *Aski da!* esateko gogoa. Edozer gauza edozein preziotan ezin dela egin. Bestalde, aurreko gobernuak, hirukoak, Gobernu programan zeukan *Egunkaria*-ren artxiboa eskatzea. Oraingo gobernuaren aldetik ez dugu babes hori lortu, nahiz eta saiatu. Haiek ere ikusiko dute ze argazki nahi duten beren buruarekiko, justiziarekiko eta gurekiko.

## 'Biluztuz jantzi. Identitate feministak sortuz, Euskal Herria aldatu!'

**Iraitz Agirre**
(Arrasateko Bilgune Feminista)
Arrasate

Horrela dio Bilgune Feministak datorren abenduaren 12rako deitu duen emakume abertzaleon IV. Topaketa feministarako aukeratutako izenburuak. Emakume abertzaleontzat hausnarketarako bideak zabaltzen dituen izen deigarria, deigarririk bada...

Biluztu gaitezen ispiluaren aurrean eta aitor diezaiogun gure buruari, gutxienez eta abiapuntu moduan, emakumeak garela. Emakume izatea eta emakume izaera ere badugula. Askotan sentibera eta aldakorra, edo guztiz kontrakoa, baina zalantza barik, kulturatik datorkigu gure jendartean, auzoan eta espazio ezberdinetan dugun izateko modua. Sozializazio femeninoa deitu izan zaio horri; izan ere, sozializazio hori gabe, gorputza hori besterik ez baita, animalia objektiboa, bere ezaugarri objektiboekin. Gure gorputzak hori baino askoz gehiago dio, ordea; garen bezalako emakume gara, gure testuinguru familiar eta pertsonalaren bateraketagatik, gure arraza eta nortasun kolektibo guztiengatik, gu eta gure ingurukoen historia, jaioterria eta bizilekuagatik; gure ama hizkuntzagatik eta inposatu zaizkigunengatik, gure aukera sexual eta historia afektiboagatik; gure klase egoera eta lanpostuagatik: sinesmenengatik edo ukatu ditugun dogmengatik; gure bizitzan irakurri ditugun liburu, ezagututako leku eta inguratzen gaituzten lagunengatik. Horregatik denagatik gara eta horrela gara gure emakumetasunean, gure emakume gorputzean.

Guzti honek kontu hartzen dio gure baitako pertsonari eta gure pertsona izaerarekin, hori dena ere adierazten dugu. Emakume izan edo gizon izan. Ispiluaren aurrean biluzik bagaude, begiratzen duguna begirada bera dela ezin dezakegu ahaztu. Ispiluan ikusten duguna emakumea edo gizona da gutxienez, eta begirada, beraz, emakumearena edo gizonarena izango da. Aipatu ditugun nortasun guzti horiek gure pertsona izatetik transzenditzen dute.

Emakume gara bai, eta NOR izate horretan, euskaldun, abertzale, langile, ama, alaba... hainbestean bagara! Emakume garen abiapuntutik identitate horiek denak josten ditugulako... Biluzteko gai bagara, gure nortasun guzti horiek banan-banan edo kaotikoki ezagutu eta ezagutarazteko gai izango gara, gura eta erabakitako jantziarekin, gainera.

Emakume gara eta emakume izateko modu bat erakutsi digu jendarteak. Benetan ohartzen al gara "izateko modu horiek" nolakoak diren? Inposatuta datozkigu edo guk aukeratu ditugu? Zalantza barik, hein handi batean behintzat, inposatuta datozkigu. Inposaketa zehatzak jasaten ditugu. Identitateak ez dira txarrak edo onak, baina gizartea bera botere harremanen arabera eraikita dagoela kontuan hartuta, hierarkia horrek nortasun batzuk babestu eta besteak kaltetzen dituela argi ikusten dugu. Irakurketa bizkorra botata, lan mundua, genero indarkeria, gorputz estereotipatuak, hizkuntza sexista, espazio publiko eta pribatuaren erabilera, etab. Oso modu ezberdinean bizi ditugu emakume eta gizonok. Aldaketak aldaketa, kaltetu eta babestuen arteko oreka ez da parekoa. Hor errotzen da feminismoaren borroka, ezberdintasunak aitortu bai, baina parekidetasuna aldarrikatzean, hain justu ere.

Emakume garen aldetik parekidetasun horren alde lan egiteko hamaika arrazoi izaten jarraitzen dugu. Egia da parekidetasunaren aldeko borroka emakume zein gizonei dagokigula, baina injustiziak gainditzeko orduan, kaltetuenen ahotsa jarraitu beharreko bidea izatea ezinbestekoa da. Horrela bakarrik eraldatuko baitira orain arteko moldeak, "patroiak" (izenak berak dio nondik nora moztu izan diren orain arte). Feminismoa eraldaketarako tresna garrantzitsua da, trans-formazio erreal bat lortzeko bidea. Hitzak berak dio: trans (beste aldea edo barrena) eta formazioa (ikasketa prozesua). Alderantsiak behar ditugu horren arabera mundua ikusteko eta ikasketa prozesuak, izateko modu berriak sortzeko. Guk identitate feministen aldeko apustua egiten dugu zalantza barik, garen guztia garela ere, nortasun horiek feminismotik eraiki behar ditugula uste baitugu.

Emakume jaio gara munduko leku honetan, Euskal Herrian, borroka egiten jarraitzeko hamaika arrazoi eta erronka ditugun herri txiki honetan. Euskaldun, abertzale eta langile gara, gainera. Horren arabera eraikitzen dugu egunero-egunero gure herri hau, behin eta berriro ukatua den herri hau. Izan ere, gure identitateak lantzeaz dihardugun honetan, gure herri nortasuna ukatua zaigula ezin dezakegu ahaztu. Abiapuntu honetatik, emakume euskaldun, abertzale eta langileok gure ikuspuntua landu eta bateratzeko beharra dugula sentitzen dugu, lehen aipatutako trans-formazio hori gure herrian ere eman dadin.

Asko gara gure herri, auzo eta etxeetan sinesten dugunagatik lanean gabiltzan emakumeak, inposatutako errealitateak eraldatzeko gogoz dihardugun abertzale eta langileak. Emakume abertzaleen topaketa feministak guzti horien elkartzeko toki izan gura du datorren abenduaren 12an Tolosan, hausnarketa egun jendetsua izatea helburu duen IV. edizio honetan. Bilgune Feministatik emakume abertzale guztiei dei egin nahi diegu, biluztuz jantziz, identitate feministak sortuz, Euskal Herria eraldatzeko bidean denon indarrak batzera gonbidatuz.

## Miguel Alberdiren aurkako idatziei buruz

**Miren Olazabal Alberdi**
(Miguel Alberdiren familiaren eta lagunon izenean)
Arrasate

Azken aste hauetan Arrasateko kaleak Miguel Alberdiren aurkako idatziz eta kartelez josita agertu dira. Bertan, bere pertsonaren kontra mehatxu eta lizunak erakusten dira eta esan beharra dago, gainera, idazki horiek guztiz anonimoak direla (ez da azaltzen sindikatu edota talderen baten izenik ere).

Munduko krisi ekonomikoa dela-eta, hemen ere sufritzen ari gara ondorio latzak eta egoera dramatikoetan desesperazioaren eskutik gizakion jokabideek bide desegokiak har ditzakete, baina ezin dira onartu era hauetako odarkorrak.

Guk, Miguel ondo ezagutzen dugunok, bere zintzotasuna ere ezagutzen dugu eta espero dugu garai txar hauek denok gainditzea.

## Subentzioak xahutu, ekimen eza eta hitz hutsak

**Rosa Mondragon**
(Aramaioko EAJren Uri Batzarra)
Aramaio

Azaroaren 19an, Aramaioko alkateak, Asier Agirrek, Goiena Telebistari eskainitako elkarrizketan argi utzi zuen ideiarik ez duela gure herriaren arau subsidiario berriak noizko izango ote ditugun, gaiaren inguruko ezjakintasuna erakutsiz.

EAJ-PNV alderdiaren ustez, Aramaion hain beharrezkoak ditugun arau hauek ez dute inoren inprobisazioaren menpe zergatik egon. Gainera, telebistan agertutako elkarrizketa osoan, haserako zirriborroa prestatzeko agente sozialekin egindako hamaika bilera aipatu zituen Agirrek, baina landutako eduki bakar bat azaltzeko gai ez zen izan. Honako zirriborroaren inguruko txosten juridikoa egitearen ardura udaletxekoa ez den abokatu baten esku jarriko dute, nahiz eta orain arte dokumentuaren erredakzio taldeak bere tesiaren defentsarik azaldu ez duen.

Bestalde, hiltegi zaharrari dagokionez, Asier Agirrek aurreko korporazioak onartutako proiektuaren aurkako erabateko jarrera erakutsi, eta ez hori bakarrik, proiektu berriak %80ko diru laguntza jasoko duela ere iragarri zuen. Horrela, honen aurrean, zera da guk alkateari luzatzen diogun galdera: zertan datza proiektu berria eta ze erakundek ipiniko du subentzio kopurua?

Zintzotasun une bakar bat erakutsi zuen. Hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiak onartu eta subentzioa ihes egin diola aitortu zuenean, aurten obra lanak exekutatzeko ezintasuna duelako. Hauxe da, besteak beste, gaurko udal agintariengandik Aramaioko herritarrek jaso behar izan dugun zigorra: haren gaitasun ezagatik, herriari zegokiona galdu izana.

Zentzu honetan, arriskuan daukagu ere Bañerako parkea, non obra lanak hasi ondoren alkateak ez dituen legez ezarrita dauden epeak betetzen. Honetan ere, errua hirugarren bati egotzi dio.

Alkateak bi bide hartu dituela ikusten dugu: subentzioak xahutzearena edo proiektuak ebastearena. Hona hemen adibidea.

EAJ-PNV alderdiak Gazteen Egoitzarako proposaturiko proiektua alkateak nola bereganatzen duen ikustea lotsagarria da. Hauteskundeetan, gai honen aurrean, ANV buru belarri aritu zen besteok baino defentsa sutsuagoa egingo zutela esanez. Gaur, haien proposamenak, ezinezkoak, faltsuak edo hutsak zirela onartu beharrean, nahiago izan dute EAJ-PNVk proposatutakoak bereganatzea.

Hutsegite eta akatsen zerrenda luzea da. Larria benetan. Are gehiago, EAJ-PNVk proiektu askoren zatirik zailena gertu utzi eta errematatzea besterik egin behar ez zenean. Aramaiorako diru laguntzak prest utzi genituen eta Udaletxeko diru-kaxan 700.000 eurotik gora obra lanei aurre egiteko.

Alkate honen gaurko saldoa hitz gutxitan laburtzen da: subentzioen galerak, epe hausteak, ekimen eza eta hitz hutsak. Okerragorik ezin.

## ZUZENKETA

Joan den egubakoitzeko GOIENKARIAn, Arrasateko gaitarien albistean, 45. orrialdean, huts bat zegoen. Argazki nagusiaren oinean, Arteman jartzen zuen, baina argazkiaren egilea Antonio Murillo da, eta ez Arteman.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 12
Posta elektronikoa: goienkaria@goiena.com

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!
Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 22:15ean.




# Eibarko El Corte Inglés

## Beste estilo bat eguneroko erosketetarako






### SUPERMERKATURIK ONENA

Espazio bakar honetan, produktu freskoetan kalitaterik onena eta janarietan ugaritasun paregabea aurkituko dituzu beti. Lehenengo markak eta gure lurreko produktu tradizionalak El Corte Inglés-en markako produktuen garantiarekin. Eta hori guztia preziorik onenetan.



### ETA GOURMETAREN KLUBA EL CORTE INGLÉS-EN

Gourmetentzako denda handia munduko bazter guztietatik heldutako benetako delikatessen deritzenekin. Irandar kabiarra, xanpain frantsesa, ezkur-urdaiazpiko iberiarra...
Gastronomia-luxuok gozarazi egingo diete ahorik finenei ere.

EGO GAIN, 7. EIBAR

El Corte Inglés

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 – 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA. GURETIKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es INTERNETEKO DENDA HANDIA


44.
DURANGOKO
EUSKAL LIBURU
ETA DISKO AZOKA
2009ko Abenduaren 4tik 8ra
Literaturaren alde gaude, musikaren alde.
Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude,
unibertsoak sortzen dituztenen alde,
hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.
Kulturaz mintzo garenean,
guztion mintzaira baitarabilgu.
Entzuten zaitugu
www.eroski.es/compromisos
902 540 340
EROSKI
zurekin



**> ARRASATE** Nazioarteko XVII. akordeoi lehiaketan 11 jolek dihardute **> 17**



**> BERGARA** Abenduaren 17an piztuko dituzte Gabonetako argiak **> 19**



**> ARETXABALETA** Bere egoitzaren aparkaleku aldera hedatu gura du Coprecik **> 24**



**> OÑATI** Atzeko kaleko zirkulazioa zelan hobetu aztertuko du Udalak **> 27**

**Patxi Uribarren Leturiaga** > Euskaltzaina

# "Garbi nuen sarrera hitzaldia Aramaion egingo nuela; ni aramaioarra naiz"



Patxi Uribarren karmeldar aramaioarra. GOIENKARIA

LEIRE KORTABARRIA > ARAMAIO

**Patxi Uribarren Leturiaga (Aramaio, 1942) euskaltzain oso izendatu zuten iaz, eta orain jakin du Euskaltzaindiak maiatzaren 29a aukeratu duela sarrera hitzaldia egin dezan, eta Aramaion egingo du. Mutikotatik han bizi ez den arren, ez dauka saltzeko jaioterria.**

**Zuk erabaki zenuen sarrera hitzaldia Aramaion egitea?**

Nik hori garbi neukan: ni aramaioarra naiz, eta hartueman handiak ditut hango jendearekin. Gaur egun, normalean, jaietan eta horrelakoetan joaten naiz; familiakoak han ditut, eta kultura arloko jendearekin ere egon izan naiz.

**Gertu daukazu sarrera hitzaldia?**

Guztiz gertu oraindik ez, idatzi egin behar dut; pentsatzen ibili naiz eta, gutxi gorabehera, gaiak aukeratuta dauzkat, eta Gabon ostean hasiko naiz idazten, orain presazko gauza batzuk bukatzen nabil-eta.

**Baina Aramaio aipatuko duzu hitzaldian?**

Zer esanik ez Aramaio aipatuko dudala; eta Aramaioko beste seme batzuk aipatzeko asmoa ere badaukat.

**Parte hartu duzu *Adorez 11 hiztegi elebiduna* egiten. Zelako hiztegia da?**

Bai. Alde batetik, aurten 26 urte egingo dituen Adorez taldean nabil. Hasieran, sinonimoen hiztegia, euskararako hiztegia… egin genituen; gero jauzi bat egin eta atera genuen *3000 hiztegia*, eta orain atera berri dugu Adorez Hiztegiak izango den sortako liburu hori. Euskaltzaindiaren bidetik euskara normalizatzeko lagungarri izan dadin prestatu dugu, eta nahiko harrera ona izaten ari da.

Beste alde batetik, Euskaltzaindian Euskara Batuko lantalde berezi bat egin da hori bultzatzeko, eta hor ere banabil lanean.

**Ze berritasun nagusi dakar *Adorez 11 hiztegi elebiduna*-k?**

Alde batetik, Euskaltzaindiak onartutako berba guztiak markatuta datoz, kurtsiban, jendeak jakin dezan zein berba diren onartuak izan direnak. Gero, onartzeko bidean dituen 12.000 berba ere kurtsiban eskaintzen ditugu, baina markatxo batekin, oraindik guztiz onartuak ez direlako izan.

Baina, erdaratik euskararako arloan, Euskaltzaindiak onartutako berba guztiak kurtsiban eta letra handitxoagoarekin eskaintzen ditugu, jendeak jakin dezan zeintzuk diren normalizatuak eta beste zenbait eta zenbait erabil daitezkeenak, sarritan egokiago direnak, baina normalizatu barik daudenak.

**Interneten ipiniko duzue hiztegia?**

Oraingoz, ez. Eta hor beste gako bat dago, kontuan hartzekoa: jendeak uste du Internet dena konpontzeko modukoa dela, baina Interneten itaundu-ta berba bati buruz, informazioa hari buruz ematen du bakarrik. Hiztegia zabaldu eta aurrekoak eta atzekoak agertzen dira: *eder* begiratuz gero, *edertu, ederki, edertasun*… hainbat berba agertuko dira alboan. Dena batera ikusteak asko laguntzen du itzulpenean eta kontzeptuak garbi egoteko. Internetek hori ez du konpondu.

> **"Aramaio aipatuko dut hitzaldian, eta Aramaioko seme batzuk"**
>
> **"Normalizazioan lagungarri izan dadin prestatu dugu 'Adorez 11 hiztegi elebiduna"**
>
> **"Oraingoz, ez da sarean egongo; Internetek ez du dena konpontzen"**

**Irakasle izan zaren aldetik, zer diozu Hezkuntza Sailaren hizkuntza ereduez?**

D eredua izan da, hain justu, umeak euskaldun egiten dituena; beste ereduekin, hori ez da lortzen. Garbi dago A ereduak porrota izan duela, eta leku batzuetan, B ereduarekin, gogo handiz ibilita irakasleak, lortu dute D ereduak emandako emaitzak eskuratzea. Gezurra esaten zaio jendeari: hemendik urte askotara, A ereduan ibili direnak ez dira gai izango euskaraz ondo ibiltzeko. Iruzurra egiten zaie.

**Non ikusten dituzu normalizazio premia handienak?**

Gizarteko arlo gehienetan ez dira errespetatzen euskaldunon eskubideak, eta administrazioan, adibidez, erdaldunen erosotasun berarekin jardun beharko genuke. Bestetik, ume eta gazteek oso erraz erdarara egiten dute. Lehenago, txikiek denbora luzeagoa ematen zuten etxean, gurasoekin, aitaita-amamekin… eta euskararen transmisioa errazago egiten zen. Momentu honetan euskararen transmisioa zaindu, indartu eta bultzatu egin behar dugu. Gogotsu jardun behar dugu, ekintzak eginez jendea pozik bizi dadin euskara munduan. Eta adi egon behar dugu, aldaketa handiak datozelako Internetetik-eta. Interneten dagoen bitartean, jendeak ez du berba egiten, eta horrela hizkuntza ez da finkatzen.

HIZTEGI BERRIA

## Hiztegi Batuko sarrerak jasotzen ditu




*Adorez 11 hiztegi elebiduna.*

Adorez Hiztegiak delako sortan, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara sailak ditu *Adorez 11 hiztegi elebiduna*-k. 1.556 orri ditu, eta 103.468 sarrera, 147.784 adiera eta 98.928 adibide batzen ditu. Aurrekaria *3000 Hiztegia* da, hori ere Adorez sortakoa, baina hark baino eduki handiagoa du. Funtsean, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko sarrera eta azpisarrera guztiak eta Hiztegi Batuko Lantaldeak baturako proposatutako sarrerak era didaktikoan eskaintzen ditu. Patxi Uribarren izan da Adorez hiztegiaren ikerlanaren koordinatzailea.

GOIENKARIA
2009ko abenduaren 4a



Luzma Rojas, bidezko merkataritzako saltokikoa, produktuak erakusten. U.M.

**JENDARTEA** > ELKARTASUNA

## Bidezko merkataritzako otarreak, Gabonetarako

**U.M.** > ARRASATE
Hiru otarre mota prestatu ditu Harreman gobernuz kanpoko erakundeak Gabonetarako, prezio eta produktuaren arabe-rakoak: *Eskubideen otarrea* (18 euro); *Koherentziaren otarrea* (28 euro) eta *Elkartasunaren otarrea* (35 euro). Eroski hipermerkatuan eskura daitezke, aldez aurretik eskaera eginda.

Boliviako kakaoa, Paraguaiko azukrea, Costa Ricako piña zatitxotan, bonboiak… halako produktudun otarreak dira.

Badira hiru urte Gabonetako otarreak egiten dihardeula Harremanek; aurten, baina, indar berezia eman gura diete, ez dutelako zabalduko Gabonetako erdialdeko saltokia, "krisiaren eraginez".

**JENDARTEA** > MAHAI-INGURUA

## Boluntariotzaren garrantzia azpimarratzeko ekitaldia

ASPACE, Hurkoa, Nagusilan eta Gizalde elkarteek eta San Juan de Dios ospitaleko boluntarioek mahai-ingurua antolatu dute datorren eguenerako, abenduaren 10erako. Hitzordua egin dute Kulturaten, Jokin Zaitegi aretoan, 19:00etan.

Helburuak honakoak dira: Arrasaten elkarteok "ezagutzera eman, boluntarioek elkarte horietan egiten duten edo egin ahal duten lana ezagutarazi eta herritarrak boluntariotzaren inguruan sentsibilizatu. Era berean, azpimarratuko dutena da "boluntariotzak eguneroko jardunarekin, gaur egungo errealitatean egunero-egunero duen eragin isil bezain eraginkorra".

Ekimenera gonbidatu gura dituzte, bereziki, boluntario izan gura dutenak edo halako elkarteen lana ezagutu gura dutenak.

**HIRIGINTZA** > ZERBITZUAK

# Bospasei hilabete barru, Ferrerias kaleak plazatxo berria izango du

Arrasateko Biark Studiok egin du proiektua, Abaroa zaharren egoitza berriaren proiektua egin duen arkitekto estudio berak




Ferrerias eta Erdiko kale artean eraikiko duten plazaren proiektua. GOIENKARIA

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Asteon deitu du Udalak Ferrerias kalean plaza berria eraikitzeko lehiaketa, eta behin obrak hasita, bost hilabetean bukatuta izan beharko dituzte. Aurrekontua ere zehaztu dute: 178.537,28 euro (BEZarekin).

**EGURREZKO ZORUA**
Plazatxo berezia da Ferreriasen eraiki gura dutena. Besteak beste, egurrezko zorua izango duelako, eta baita harmailak ere, jarleku modura-edo erabiltzeko. Hain justu, harmaila artean egurra tartekatuko dute, jarleku funtzioa bete dezaten.

Bestalde, lau gune sortu gura dizkiote plazatxoari; eta lorontzi handiak eta jarlekuak erabiliko dituzte guneok desberdintzeko.

Horrekin batera, farolak (sei), paperontziak (bi) eta zailtasunak dituztenendako egokitutako iturri bat ere izango ditu.

**BI KALEEN ARTEAN**
Casino elkarte gastronomikoaren orube zaharrean eraikiko dute. Horretarako, baina, lehenengo bota egin beharko dute hango terraza (Kuku atzeko eraikina). Hala ere, plazatxo berriak ez du hartuko orube guztia. Erdialde inguruan eraikiko dute; izan ere, plazaren albo banatan Udalak erosita dauzka orubeak "udal ekipamenduetarako bi eraikin egin ahal izateko", Udaleko iturrien arabera. Horiek, baina, geroago eraikiko dituzte.

Ferreriastik gainera, Erdiko kaletik ere iritsi ahal izango da plazatxo berrira. Arrapala eraikiko dute lotura egiteko.

IGOGAILUA ETA OINEZKOEN PASABIDEA LOTZEKO PROIEKTUA

### Bizkaia etorbideko igogailuaren obrak

Arrasateko Udalak deitu du, baita ere, Bizkaia etorbideko igogailua luzatzeko eta igogailu hori oinezkoen pasealekuarekin lotzeko zubitxoaren lanen lehiaketa. Kasu horretan, aurrekontua da 292.918,92 euro (BEZarekin) eta behin obrak hasita, bost hilabetean bukatuta izan beharko dituzte. Dorre moduko bat gehituko diote garajeen eraikinari. Eta dorre horretatik abiatuko da oinezkoendako pasabidea, Gernika Oinezkoen Zumardiaren gainetik 10 metrora, Larragain kalera iritsi arte.

## Gertu eta erabilgarri dago nagusiendako zirkuitu berria

Kirola egin, giharrak erabili edo beste barik osasuna zaintzeko zirkuitu bio-osasuntsua gertu dute erretiratuek. Joan den astean bukatu zituzten aparailuak ipintzeko lanak. Hamar aparailu gimnastiko dituzte eskura, LKS ingeniaritzak diseinatutakoak eta Yor enpresak ipinitakoak. Gernika pasealekuan dago, Galiza eta Santa Marina kalearen azpiko aldean.



U.M.

> DEIA

### Josu Erkorekak hitzaldia egingo du hilaren 11n

Madrilgo Kongresuko EAJren bozeramaile Josu Erkorekak hitzaldia egingo du datorren egubakoitzean, abenduaren 11n, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 19:30ean.

Oro har, Madrilen EAJ taldearen papera izango du berbagai ordezkari nazionalistak. "Abertzaleon ordezkarien bozeramaile den heinean, Madrilen Aberria nola egiten den azaltzea nahiko genuke", diote Arrasateko EAJko ordezkariek. Berbagai izango du, adibidez, Zapateroren aurrekontua, egoera ekonomikoa eta beste.

GABONAK > BOLOA

# San Nikolasko boloa bi txandatan egiten duten azken urtea izan daiteke aurtengoa

Abenduaren 6an, domekan, egingo dute San Nikolasko boloa; eguraldi ona egiten badu Herriko Plazan egingo dute, 12:00etan, eta txarra egiten badu, Uarkape frontoian


Umeak pozik iazko boloan. GOIENKARIA

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Azken urteetako ohiturari jarraituz, abenduaren 6an, domekan, egingo dute aurtengo boloa. Beste urtebetez, *San Nikolas* abesten duten haur eta gaztetxoen artean gozokiak, intxaurrak eta beste banatuko dituzte udal ordezkariek.

Aurtengo boloa Herriko Plazan egingo dute, 12:00etan eta 12:30ean. Hala ere, eguraldi txarra iragarriz gero, Uarkapera pasako dute. Ordua, baina, bera izango da.

**BI TXANDATAN**

Azken hamar urteotan bi txandatan egin da boloa, adin ezberdinetako haur eta gaztetxoei begira. Baina sistema horrek ez du erabat funtzionatu, batzuetan nahasmena sortu delako adin konkretu bakoitzeko ume edo gaztetxoek euren ordua errespetatzeko orduan. Horregatik, baliteke boloa bi txandatan egiten duten azken urtea izatea. Arrasateko Udaleko Kultura Saileko teknikariak azaldu duen moduan, aukera dago datorren urtean ohitura zaharra berreskuratu eta boloa behin bakarrik egitea, adin guztietako ume eta gaztetxoendako. Urtero egiten duten moduan, aurten ere Udaleko Kultura Saileko arduradunek San Nikolasko bolora joateko gonbidapena bidali diete udal ordezkariei. Oraindik inork ez du konfirmatu han egongo denik, baina ia gauza ziurra da ez dela udal ordezkaririk faltako aurtengo boloan eta eurek banatuko dituztela gozokiak, aurreko urteotan egin duten moduan.

**XX. MENDETIK HONA**

XX. mende hasierako data duen liburu baten aipatzen da orduruko Arrasaten boloa egiten zela *San Nikolas* kantatzen zuten ume eta gaztetxoen artean. Eta ohitura horri jarraituz, aurten ere abenduaren 6an, domekan, egingo dute.

ELKARTASUNA

# Espetxe Pastoralak denetarik bilduko du

Abenduaren 9, 10, 11 eta 14an egingo dira bilketak, 17:00etatik 19:00etara bitartean

J.B. > ARRASATE

Espetxeratuekiko pastoralak elkartasun deialdia zabaldu du. Izan ere, bilketa egingo dute Arrasateko Iturriotz kaleko 43. zenbakian dagoen abade etxean. Abenduaren 9, 10, 11 eta 14an egingo dira bilketak, 17:00etatik 19:00etara. Bilketarako azken eguna abenduaren 18a izango da.

**DENETARIK JASOKO DA**

Bilketa egunetan denetarik jasoko du espetxeratuekiko pastoralak. Hala ere, honako gauzak dira presoei ezin hobeto datozkienak: barruko arropa berria, galtzerdiak, tabako gorria, hortzetako eskuilak, gutun-azalak eta zigiluak, bainurako xaboia, desodorante barra, azazkal-moztekoak, pilak, turroi biguna eta dutxarako txankletak.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



IKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR



Ibai Bolinaga, aste barruan, Arrasateko Uarkape pilotalekuan; klubeko gaztetxoek ondo zirikatu zuten Arrasatekoa, baina Bolinagak pazientzia eta umore ona dituela erakutsi zuen. XABIER URTZELAI

**Ibai Bolinaga** > Pilotaria

# "Gustura ibiltzen naiz pilotan jokatzen, baina ez noa hortik haratago"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Aspaldian Arrasatek ez du izan pilotan egiteko dohain bereziak dituen pilotaririk. Maila txikietatik, baina, pilota jarraitzen dutenek Ibai Bolinagaren eboluzioa jarraitu dute. Gaztetatik kategoria guztietan nabarmendu den pilotariak dagoeneko seniorretara egin du salto, baina Bolinagarendako profesional moduan jokatzea ez da lehentasuna. Beste ardura batzuk ditu.**

**DV txapelketan ezin izan duzu aurrera egin. Ze balorazio egiten duzu?**

Balorazioa ezin da ona izan, antolatzaileek taldeko buru moduan jarri gintuztelako eta lehenengo partiduan kanpora joan ginelako. Domekan Egian beste partidu garrantzitsu bat nuen, eta tako askorekin jokatzea erabaki nuen, eskuak babesteko. Hala, ez nuen pilota nahi moduan gozatu, eta hasieran urduri ibili nintzen. Nire bikotekide Urbietak ere ez zuen egun onena izan, eta kanporatu egin gintuzten.

**Domekan, berriz, arantza atera ahal izan zenuen Egian. Zer moduzko urtea izan da?**

Joko aldetik momentu onak izan ditut, baina sasoiren baten eskuetako minarekin ere ibili naiz. Hala ere, Egiako txapelketa, Antiguakoa, Debarrokoa... horiek irabazi egin ditut, eta ezin naiz kexatu.

**Seniorretako lehenengo urtea duzu hau.**

Bai, eta igarri egiten da. Lehenengo urtea izanda, kategoriari eskua hartzea izan da helburua.

**Aspaldiko urteotan zeu zara profesionaletara salto egiteko Arrasatek eman duen pilotari osoena.**

Bueno, baina horri ez diot aparteko garrantzirik ematen. Etortzen bada, ondo, baina profesionaletara jauzi egitea ez da niretako lehentasuna. Gainera, gazte asko daude nire moduan.

**Eta euretako batzuek apustu garbia egin dute profesional bilakatzeko.**

Bai, baina apustu arriskutsua da hori, askok ez dutelako besterik egiten, ez ikasi eta ezta lanik egin ere. Nik pilotan jokatzen gozatu egiten dut, ondo pasatzen dut, eta, oraingoz, ez dut nahi hori lanbide bilakatzea. Unibertsitatean SHEE (IVEF) ikasten hasi naiz aurten, multikiroleko eskolak ematen ditut, eta oso gustura nabil. Atsegin dut gaztetxoekin ibiltzea, pilotan irakastea, eta etxean aspertu egiten naizenez Uarkapera etortzen naiz, baina ez profesional bilakatzeko lan egitera, ondo pasatzera baizik. Pilotan jokatzeaz aspertzen naizen egunean utzi egingo dut, beste barik.

**Amateur mailan zabiltzatenok ondo jakingo duzue ze zaila den gora igotzea.**

Besteak beste, bi enpresa nagusi baino ez daudelako. Kategoria honetan jende asko dago, eta asko eta asko maila oso oneko pilotariak dira.

**Pilota profesionala alde batera utzita. Pilotak eman dizun momentu gogoangarriena?**

[Gure parean Arrasatek 2007an lortutako Herri Arteko Txapelketako argazkiak dituzte] Duda barik, une haiek [argazkiok seinalatu ditu]. Talde moduan oso lorpen polita izan zen, eta Arrasateko herritarren babesa jaso genuen. Oso berezia izan zen.

**Lorpen hura errepikatzeko aukerarik ikusten duzu?**

Bai, maila txikietan oso pilotari politak datozelako. Oraindik gaztetxoak dira, baina duten adinerako oso ondo jokatzen dute askok eta askok.

**Bergarak irabazi du aurten txapela. Inbidia apur bat ere izango zenuten.**

Duda barik, bagenekielako zer bizi izaten ari ziren. Baina eurengatik poztu egin nintzen, gertukoak direlako.

**Martitzenean Gonzalezek eta Irujok jokatuko duten finalean zer gertatuko da?**

Zaila da esatea. Gonzalezek dakien moduan jokatzen duenean oso pilotari gutxi daude hura geratzeko gauza direnak, baina bai, irregularra da.

### BOLINAGA, MOTZEAN

Jaioturtea: **1991.**
Garaiera: **1,86 m.**
Pisua: **82 kg.**

**> Gustuko pilotaria:**
Titin. Gainera, gurasoen laguna da, eta oso tipo jatorra.
**> Gustuko pilotalekua:**
Atano III.a. Han irabazi genuen Herri Arteko Txapelketako finala.
**> Pilotan noraino:**
Pilotan gozatzen jarraitu, hori da asmoa.
**> Finalerako pronostikoa:**
22-18, Gonzalezen alde.

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE




LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**MUSIKA** > LEHIAKETA

# Nazioarteko akordeoi-jole onenen soinuak entzungai

## Nazioarteko lehiaketa eta Gipuzkoako lehiaketa eta jaialdia ospatuko dituzte datozen bost egunotan; ibarreko 10 neska-mutiko lehiatuko dira Arrasateko jaialdian



Akordeoi-joleak Amaia antzokian. GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Dagoeneko martxan da Arrasaten jokatzen duten nazioarteko XVII. akordeoi lehiaketa. Goizean goiz hastekoak ziren gaur kanporaketa fasea eta hurrengo txanda 15:00etan izango da.

Nazioarteko txapelketa horretan munduko 11 herrialdetatik etorritako 22 akordeoi-jolek esku hartuko dute. Azken fasea astelehenean jokatuko dute eta finala eta sari banaketa martitzenean izango dira, 12:00etan, Amaia antzokian.

**3.600 EUROKO SARIA**

Irabazleak 3.600 euro, diploma eta garaikurra eramango ditu. Epaileak Finlandia, Italia, Serbia, Errusia eta Euskadiko akordeoi adituak izango dira.

**DEBAGOIENDARRAK**

Bihar, 15:30ean hasiko da Gipuzkoako 30. lehiaketa. Hiru mailatan banatuta ibiliko dira neska-mutikoak eta finala domekan izango da, 18:15ean. Esan behar da aretxabaletar bat lehiatuko dela Amaia antzokian.

Bestalde, Gipuzkoako 22. jaialdian ibarreko bederatzi neska-mutikok parte hartuko dute; Arrasateko sei eta Aretxabaletako hiruk. Aurten ez dira egongo Oñati eta Bergarako akordeoi-joleak.

Gainera, iazko irabazle Nikola Tanaskovic gazteak hiru kontzertu emango ditu: Arkupen, Kulturaten eta Kajoin.

### Lehiaketak eta jaialdia

**4, EGUBAKOITZA**
**Amaia antzokia**
**(Nazioarteko XVII. lehiaketa)**
**15:00** Kanporaketa fasea.

**5, ZAPATUA**
**Amaia antzokia**
**(Gipuzkoako 30. lehiaketa)**
**15:30** Senior maila.
**Arizmendi ikastola**
**(Gipuzkoako 22. jaialdia)**
**09:00** B hastapena.
**10:40** A hastapena.
**15:30** C hastapena.
**16:45** A maila.
**Kultura etxea**
**(Gipuzkoako 22. jaialdia)**
**09:00** D maila.
**10:20** C maila.
**15:30** B maila.
**Amaia antzokia**
**(Gipuzkoako 22. jaialdia)**
**09:15** Ganbera musika 2.
**09:30** Ganbera musika 1.
**10:30** Ganbera musika 3.
**11:10** Udalaitz junior.
**11:40** Taldeak 1.
**12:10** Taldeak 2.
**20:00** Sari banaketa.

**6, DOMEKA**
**Amaia antzokia**
**(Gipuzkoako 30. lehiaketa)**
**09:00** Infantil maila.
**15:00** Junior maila.
**18:15** Senior maila.

**7, ASTELEHENA**
**Amaia antzokia**
**(nazioarteko XVII. lehiaketa)**
**08:30** Azken fasea.
**15:30** Azken fasea.

**8, MARTITZENA**
**Amaia antzokia**
**12:00** Arrasateko akordeoi lehiaketen azken ekitaldia eta sari banaketa

**MUSIKA** > AURKEZPENA

# Garage punk-rock landua batu du Los Cretinos taldeak atera berri duen diskoan

## Dagoeneko salgai dago diskoa Arrasateko eta Gasteizko tabernetan 10 euroren truke



Alonso, Barbadillo, Arginzoniz eta Lizarantzu. LOS CRETINOS

**A.E.** > ARRASATE

Los Cretinos taldeak bigarren lana kalean du dagoeneko: *Crazy party* diskoa, hain zuzen. 2008ko abuztuan hasi ziren grabatzen lan berria Oñatiko Musika Eskolan eta *Kirrin*-en estudioan: Wildboar Records. Guztira, zortzi abesti grabatu zituzten. Aurtengo Aste Santuan, Señor No eta Lobo Electrico taldeetako *Guantxe*-ren estudioan beste lau abesti gehitu dituzte. Hala, 12 abestiko diskoa salgai dute dagoeneko 10 euroren truke. Arrasateko Iluntz, Ekaitz, Dut eta Etxoste tabernetan dago salgai, eta baita Gasteizen ere.

**SOINU LANDUAGOA**

Disko berri horretan, soinu landuagoa egin dutela adierazi digu *Jim TNT* abeslariak. Hala ere, argitu du Los Cretinos taldearen betiko garage punk-rocka aurkituko duela diskoa erosten duenak.

Taldeak aldaketa txiki bat izan du: diskoan parte hartu duen Alexis Alonsok taldea utzi du eta haren ordez Jon Zabaleta sartu da. Gainerako kideak dira Jaime Lizarantzu, Amaia Arginzoniz eta Aitor Barbadillo.

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**Nerea Trompeta eta Kepa Castro** > Ogi Berri

# "Gehien salduko dena turroiak izango direla uste dugu"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Gabonak lanaren sinonimo dira gozotegiendako, urteko goi-denboraldia dira horiendako. Muruamendiarazen oinordetza hartu zuten Ogi Berri gozotegikoekin egon gara, Arrasateko Erdiko kalean duten dendan. Lehen urtearen aurrean nola dauden jakin gura izan dugu.**

**Lehen Gabonak dira zuendako Arrasateko Erdiko kalean. Hasi zarete eskari uholdea prestatzen?**

Hala da. Lehen Gabonak izango dira, eta horregatik ez dakigu oso ondo zenbat eskaera izango ditugun. Zaila da kalkulatzea. Hala ere, bihar (atzo) hasiko gara turroiak egiten. Asmoa lehenago hastea zen, baina zertxobait atzeratu gara, azken orduko ezustekoren bat izan dugu-eta.

**Asko igartzen da salmenten igoera Gabonetan?**

Ez da erraza esatea. Lehen urtea da guretzat, hasiberriak gara honetan. Hala ere, Muruamendiarazkoek esan digutenez, goi-denboraldia dira Gabonak.

**Eta zeintzuk dira urteko beste goi-denboraldiak?**

Gabonez gain, ospakizun egunetan igartzen da gehiago saltzen dela.

Alde batetik, domeka eta jaiegunak daude, eta bestalde, Domu Santu eta halako ospakizun egunak. Azken horietan igartzen da bereziki salmenten igoera, lan handiagoa egin behar izaten dugu-eta.


Nerea Trompeta eta Kepa Castro, Erdiko kaleko dendan. J.B.

**Zer saltzen da gehien garai honetan?**

Gehien salduko duguna turroiak izango direla uste dugu. Baina ez gaude ziur, ikusi egin beharko da lehen egunetan zer eskatzen duen jendeak.

**Herrian *instituzio* izatera heldu zen Muruamendiaraz gozotegiaren oinordetza hartu duzue. Abantaila ala desabantaila izan da hori zuendako?**

Konparazioak ez dira inoren gustuko, eta alde horretatik desabantaila izan dela uste dugu, presioa dela-eta. Hala ere, lana nola egin jakiteko Muruamendiarazkoak bi edo hiru hilabetez izan ziren gurekin, lanbide honen *sekretuak* azaltzen. Asko eskertzen diegu lan hori hartu izana. Orain bezero moduan etortzen dira eta oraindik ere aholkuak ematen dizkigute noizean behin.

**Krisia igartzen da gozogintzan?**

Gozogintzan bereziki ez, baina denean moduan igartzen da.

## argazki zaharra



# Santamasetan artaldea herrira jaitsi zenekoa

1980ko hamarkadaren azken urteetan ateratako Santamasetako argazki horretan Jose Maria Urrutia Ibabe artzainaren –irudiaren eskuinaldean– artaldea ikusten da, Maala kaletik Portaloira bidean. Orduan, Arantzazu eta Degurixa aldetik ekartzen zituzten artaldeak, gero Bizkai aldera –Gernikara, esaterako– eroateko. Antza denez, urte hartan berandu ibili ziren eta Santamasetan pasatu zen artaldea herrian barrena...

Oraindik ere Santamasak jai oso bereziak dira Arrasaten, baina dagoeneko ez da halakorik egiten.

**Argazkia:** Migel Angel Perez de Arenaza.
**Testua:** GOIENKARIA.
**Urtea:** 1988 eta 1990. urte artean.

## txaloak eta txistuak



O.E.

# Markesinako kristalak, apurtzear

Otalora kaleko autobus geltokian dagoen markesinako kristala apurtzear dagoela ohartarazteko deitu digu Arrasateko emakume batek. "Helduek ez ezik, umeek ere hortxe hartzen dute autobusa eskolara joateko, eta arriskutsua da kristala ia apurtzear egotea. Ea ahalik eta lasterren konpontzen duten", adierazi du ama horrek.

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Monte
taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**OSPAKIZUNAK** > EKITALDIAK

# Hilaren 17an piztuko dituzte Gabonetako argi-apaingarriak

12.000 euro gastatuko ditu Udalak argietan; erdiko kaleetan jarriko dituzte

Erakusleiho lehiaketa gaur abiatuko da eta jaiotza eramangarriena ere hasita dago

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Gabonen atarian gaude eta dagoeneko Udala kaleetako argi-apaingarriak jartzear da. Datozen egunetan egingo dute lan hori, abenduaren 17an piztuko dituzte-eta. Itzali, berriz, urtarrilaren 7an itzaliko dituzte. Argiok jarriko dituzte honako kaleetan: Barrenkalea, San Pedro, Bidekurutzeta, Artekalea, Fraiskozuri, Irala, San Antonio eta Bolu. Udaletxeko, azokako eta Mizpirualdeko fatxadetan ere jarriko dituzte. Hain justu, asteleheneko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak 12.000 euroko gastua Gabonetako argiterian.


Alde zaharra da argi gehien hartuko dituen herriko gunea. GOIENKARIA

**HIRU SARI EGONGO DIRA**

Erakusleiho lehiaketako oinarriak kaleratu berri ditu Udalak. Lehiaketan aintzat hartuko dira merkataritza-establezimendu guztiak, aurrez izena eman beharrik gabe. Gaurtik (egubakoitza) urtarrilaren 7ra arte egon beharko dute prestatuta erakusleihoek eta epaimahaiak baloratuko ditu publizitate-mezuaren imajinazioa, originaltasuna eta eraginkortasuna, erakusleihoaren kalitatearekin batera. Bestalde, erakusleihoan agertu beharko dute establezimenduan saltzen diren ohiko artikuluek. Hiru sari egongo dira: 300 euro eta garaikurra; 250 euro eta garaikurra; eta 200 euro eta garaikurra. Sariok banatuko dituzte hilaren 17an, kultura etxean.

Kultura Zerbitzutik ohartarazi dutenez, lehiaketak irauten duen bitartean erakusleihoak argiztatuta edukitzea komeni da epaimahaiaren lana errazteko: lanegunetan, dendak ixteko ordura arte eta jaiegun eta bezperatan, 21:00ak arte.

**JAIOTZA LEHIAKETA**

Jaiotza eramangarrien VIII. lehiaketa eta Gabonetako postalen V. lehiaketa –biak ala biak Serafin Esnaolaren omenezkoak– deitu ditu San Antonioko Gure Ametsa elkarteak.

Jaiotza eramangarrien lehiaketan nahi duten guztiek har dezakete parte. Jaiotzek Gabonetako misterioa duintasunez irudikatu beharko dute eta honako baldintzak bete beharko dituzte: oinarri sendoan egindakoak izatea eta oinarriak 30x80 cm-ko neurria izatea. Jaiotzak aurkeztuko dira Gure Ametsa elkartean hilaren 18an, 19:00-21:00 ordutegian, eta han egongo dira ikusgai. Sari ematea izango da hilaren 19an, 13:00etan, adinaren araberako hiru mailatan: 12 urtera arte; 13tik 17 urtera arte; eta 18tik gorakoak. Maila bakoitzeko irabazleak oroigarria jasoko du eta parte-hartzaile guztiek, diploma. Sariak hilaren 19an banatuko dira, 13:00etan, San Antonioko plazatxoan.

**POSTAL LEHIAKETA**

Postal lehiaketa da 3 eta 12 urte bitarteko haurrendako eta adinaren araberako hiru maila egongo dira: 3 eta 6 urte artekoak, 7 eta 9 artekoak eta 10etik 12ra artekoak.

Marrazkia Gabonen gainekoa izango da eta neurria orri laurdenekoa; ahal bada, kartoi mehean egingo da. Postalok Gure Ametsa elkartera eraman beharko dira abenduaren 18an, 19:00-21:00 ordutegian.

Maila bakoitzeko irabazleak oroigarria jasoko du eta parte-hartzaile guztiek diploma jasoko dute. Sariak hilaren 19an banatuko dira, 13:00etan, San Antonioko plazatxoan.

Bestalde, Gure Ametsa elkartetik jakinarazi dute abenduaren 20rako iragarrita zeuden arte eta eskulanen erakusketa eta olio dastatzea atzeratu egin direla udaberrira.

**AISIALDIA**

## Dantza ikastaroetan izena eman daiteke

Jardunekin ikas daitezke erromeria dantzak eta arin-arina eta fandangoa

**M.B.** > BERGARA

Jardun elkarteak dantza ikastaroak antolatu ditu urte berrirako: batetik, erromeria dantzak; eta bestetik, fandangoa eta arin-arina ikasteko ikastaroak.

Erromeria dantzei dagokienez, otsailean hasi eta maiatzera arte izango dira, martitzenetan, 19:30-21:00 ordutegian, Ipintzako gimnasioan.

Fandagoari eta arin-arinari dagokienez, hastapen eskolak izango dira urtarrilean –7an hasita– eta gainerakoak, otsailetik maiatzera. Eguenetan izango dira eskolak, 19:30-21:00 ordutegian, Ipintzako gimnasioan, eta irakasleak izango dira Juantxo Urbieta eta haren taldeko kideak (Abarka).

Batean zein bestean izena emateko epea zabalik dago, Jardun elkartean (943 76 36 61). Ikastaro baten prezioa da 12 euro hilean eta biak eginez gero, 20 euro hilean. Jardun neko bazkideek bi euro gutxiago ordainduko dituzte hileko.

LOS VIERNES AL RON
taldearen kontzertua
Abenduaren 6an, domekan.
19:30etik aurrera.
KAI TABERNA
Kruz Gallastegi 3
Bergara

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com


OGIZUN
koop. elk.
okindegia


Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

**POLITIKA** > OSOKO BILKURA

# Abendu erdialdean aurkeztuko ditu Udalak E-planaren bigarren fasean egingo dituen proiektuak

Bilera irekia egingo dute herritarrekin, Zapaterok emandako 1.594.151 euroekin zer egingo duten azaltzeko

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Espainiako Gobernuaren Toki Inbertsioetarako Estatuko Fondoko bigarren fasetik 1.594.151 euro jasoko ditu Udalak. Diru horrekin egingo dituen proiektuen nondik norakoak azaltzeko bilera irekia egingo dute herritarrekin abendu erdialdean-edo. Halaxe esan zuen Agurne Barruso alkateak astelehenean osoko bilkuran.

Udal Gobernu Taldearen asmoa da Gabonen aurretik bilera irekia egitea. "Udalean gauden alderdi guztiekin adostu gura ditugu proiektuak", esan zuen alkateak. Hainbat proiektu dituzte esku artean, baina jasoko duten diru kopurura egokitu beharko dituzte aurrekontuak.

E-planaren lehen faseko proiektua aurkezteko ere bilera irekia egin zuten herritarrekin otsailaren 10ean. Orduan, 2.623.497 euro zituen Udalak, eta hiru proiektu onartu zituen: irisgarritasuna bermatzeko Bolun lau igogailu jartzea; Bideberri eta Zubieta arteko urbanizazioa; eta Domingo Irala kaleko urbanizazioaren bigarren fasea.

**GAZTEEN ATXILOKETAK**

Bestalde, astelehenean egindako osoko bilkuran beste hiru mozio onartu zituzten. Alde batetik, "gazte mugimenduaren kontrako eraso errepresiboa" gaitzesteko mozioa onartu zuten Udal Gobernu Taldeko, Aralarko eta EAko zinegotzien aldeko botoekin. Mozioan, "Espainiaren jardunbide ez-demokratikoa, autoritarioa eta errepresiboa" salatzen dute. Bestalde, atxilotutako gazteei eta haien senide eta lagunei elkartasuna adierazten diete. Gainera, euren jardun "politikoagatik eta sozialagatik espetxeratuak izan diren gazte independentistak berehala aska ditzatela" exijitzen dute.

**EHNE-REN MOZIOA**

Beste alde batetik, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak (EHNE) bidalitako mozioa eztabaidatu eta onartu zuten, Udal Gobernu Taldeko, EAJko, Aralarko eta EAko zinegotzien aldeko botoekin. Alderdi Sozialistako zinegotziak abstenitu egin ziren. Udalak bat egin zuen azaroan nekazaritza sektoreak egindako geldialdiarekin, eta nekazaritza eta abeltzaintza "sektore estrategikoak" direla eta nekazaritza munduaren garapenerako eta gure gizartearen beharrak asetzeko "beharrezkoak" sirela onartu zuten.

**PRESERBATIBOARI BURUZ**

Azkenik, Benedikto XVI.a aita santuak preserbatiboen gainean esandakoak gaitzestea onartu zuten, aho batez, Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) aurkeztutako mozioa onartuz. GIBa eta sexu bidezko infekzioen kontrako teknologia eraginkorrena latexko preserbatiboak direla aldarrikatu zuen, eta GIBaren kontrako borroka sustatuko dutela.



Sarrerak errepide aldera emango du; ez errekara, orain arte bezala. M.B.

**UDALA** > ZERBITZUAK

# Hasi dira Usondon komun berriak egiteko lanak

Gaur egungoak bota eta bakarra egingo dute, gizon zein emakumeendako

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Usondo parkeko komunak konpontzeko lanak hasi dituzte dagoeneko. Ezezagun batzuek udan erabat txikitu zituztenetik itxita egon dira; izan ere, zaharrok barrutik bota eta berriak egitea erabaki zuten udal agintariek.

Komun berria bakarra izango da; hau da, gizon zein emakumeendako, eta mugikortasun arazoak dituztenendako egokitua ere egongo da. Sarrerari dagokionez, ez diote erreka aldetik egingo, orain arte bezala; errepide aldera emango du.

**AUTOBUS GELTOKIKO KOMUNA**

Autobus geltokiko komun publikoari dagokionez, horri ere hainbat aldaketa egingo dizkiote. Hain justu, automatismo guztia kenduko diote, horren ondorioz askotan blokeatu egiten delako, Udaleko iturrien esanetan. Hori horrela, udaltzainek irekiko dute 10:00etan eta itxi, 21:00etan. Bestalde, eguneró garbituko dute.



**PIRAGUISMOA** > TXAPELKETAK

# Domina ugari Beti Bustiko kirolariendako

## Mentxakak, Lizarraldek eta Ugaldek emaitza onak, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Beti Busti taldeko piraguistek emaitza onak lortu zituzten aurreko aste bukaeran jokatutako Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan. Aipagarrienak dira Josu Mentxakak, Beñat Lizarraldek eta Patxi Ugaldek lortutako emaitzak.

Zarautzen jokatutako Gipuzkoako surf-kayak txapelketan Beti Bustiko sei piraguistak hartu zuten parte. Gazte mailan Josu Mentxaka lehen tokian sailkatu zen; eta kadete mailan Beñat Lizarralde bigarren izan zen, Patxi Ugalde hirugarren eta Jokin Labaien zazpigarren.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Bestalde, domekan jokatu zuten Irunen, Bidasoa ibaian, Euskadiko txapelketa. Guztira, 62 piraguista lehiatu ziren, tartean Beti Busti elkarteko bost kide. Beñat Lizarralde eta Patxi Ugalde bigarren tokian sailkatu ziren. Bestalde, kadete mailan Iñaki Usabiaga bosgarren lekuan sailkatu zen, eta Aritz Gimbert zazpigarren tokian.

Beti Bustiko kirolariak eta arduradunak pozik itzuli ziren Zarautzen eta Irunen egindako lanarekin.

**AZKEN PROBA HERNANIN**

Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketekin denboraldia bukatutzat eman dute Beti Bustiko federatutako piraguistek. Federatuta ez daudenek azken proba jokatuko dute hilaren 12an. Hain zuzen ere, Hernaniko txapelketan parte hartuko dute eta Urumea ibaiko zirkuituan ibiliko dira.



Beñat Lizarralde, Aritz Gimbert eta Patxi Ugalde, Euskadiko txapelketan. BETI BUSTI



Soraluze BKEko infantil mailako nesken taldeko jokalariak eta entrenatzailea. MARIAN MELLADO

**SASKIBALOIA** > TXAPELKETA

# Hirugarren garaipena jarraian infantil mailako neskendako

**M.B.** > BERGARA

Saskibaloiko infantil mailako neskek bolada onarekin jarraitzen dute, eta, azken jardunaldian Andraitz taldea menderatu ondoren, hirugarren garaipena jarraian lortu zuten. Bergararrek 34-40 irabazi zuten Legazpin jokatutako norgehiagoka.

Lehen laurdeneko jokoa nahiko zoroa izan zen. Bi taldeak motel ibili ziren defentsan, eta kontraerasoak nagusi izan ziren. Dena den, bergararrek bi puntuko errenta hartu zuten (12-14). Bigarren laurdenean legazpiarrek jokatu zuten hobeto, eta 13 puntu eginda abantailarekin heldu ziren atsedenera (25-22). Hirugarren tartearen hasieran zortzi puntuko aldea zabaldu zuen Andraitzek, baina bergararrek 0-10eko partziala eginez aurretik hasi zuten azken tartea. Urduritasunaren erruz, laugarren laurdena oso eskasa izan zen. Hasieran lau puntu egin zituzten legazpiarrek eta 34-30 aurreratu ziren, baina azken zortzi minutuetan ez zuten saskiratzerik lortu eta galdu egin zuten.

Infantil mailako neskek ere, saskibaloiko gainerako taldeen antzera ez dute norgehiagokarik jokatuko aste bukaeran.

**ZIKLO-KROSA**

# Jon Rivero bigarren, Gipuzkoako txapelketan

**M.B.** > BERGARA

Sumofic taldeko Jon Rivero bergararra bigarren tokian sailkatu zen Aizarnazabalen jokatutako Gipuzkoako ziklo-kros txapelketan. Bestalde, Mikel Aristik laugarren egin zuen. Bukaeran, biak ala biak pozik zeuden egindako lanarekin.

**ATZETIK AURRERA**

Gazte mailako probaren hasieran Rivero eta Aristi aurreko taldetik gertu ibili ziren. Mikel Aristi lasterketa-buru izan zen une batean. Dena den, probak aurrera egin ahala atzeratu egin zen. Aldiz, Jon Rivero aurreko postuetan egon zen bukaera arte, eta bigarren sartu zen helmugan. Aristi laugarren tokian sartu zen.

Aste bukaeran Igorreko ziklo-kros proban parte hartu dute Sumofic taldekoek.

> SORALUZE BKE

### Liderraren kontra berdinduta, atsedena eskubaloikoendako

Soraluze BKEko senior mailako eskubaloi taldeak, gainerako taldeen antzera, atsedena du aste bukaeran.

Labegaraietan jokatutako azken partiduan Egia liderraren kontra 31-31 egin zuten mahoneroek. Partidu bizia izan zen, bi taldeek irabazteko aukerak izan zituzten-eta. Egiak bi goleko errenta zuen bukatzeko hiru minutu falta zirela, baina etxekoek berdindu egin zuten.

> PILOTA

### 86 parte-hartzaile elite mailako lau t'erdiko txapelketan

Bergarako pilota sailak antolatuko eliteko lau t'erdiko txapelketan 86 lagunek eman dute izena. Antolatzaileen asmoa da txapelketa urtarrilaren 1ean hastea eta finalerdiak martxoaren 23rako erabakita egotea. Final-zortzirenetatik aurrera partiduak pilotalekuan jokatuko dituzte, martitzenetan, 19:30ean.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**BIDEOA**

# Film laburren lehiaketako sariak gaur

## Aurkeztutako lanen emanaldia eta sari banaketa daude gaur Zabalotegin

**E.M.** > BERGARA
Bergarako Udalak deitutako film laburren lehiaketara aurkeztutako lanen proiekzioa eta sari banaketa egingo da gaur, egubakoitza, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan.

Guztira, sei lan aurkeztu dituzte lehiaketara: *Apaiz magikoa* (Andoni Moñux); *Hurbil egonik ere, urrun* (Lexeia Larrañaga eta Alexander Gutierrez); *Arrotzak* (Irene Ortiz eta Miren Zarautz); *Sabina* (Otavio Sendoya); *Hitzak* (Mikel Calvo); eta *Marinel itsua eta itsasneskak* (Josu Arteaga).

**SARI BANAKETA**
Aurtengoa film laburren lehiaketako laugarren ekitaldia da, eta, esan bezala, gaur bertan egingo dute sari banaketa. Udalak izendatutako epaimahaiak aditzera emango ditu saritutako lanak zeintzuk izan diren. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du; bigarren saria 300 eurokoa da: eta, azkenik, aipatutako bietan bergararrik ez balego, 150 euro jasoko lituzke herriko onenak.


Marije Ugalde, Musika Eskolako zuzendaria; Manu Diaz, egilea; eta Alfredo Gonzalez Chirlaque, lehen zuzendaria izandakoa. E.M.

**MUSIKA ESKOLA** > 25. URTEURRENA

# 'Bihotza alaia dugulako' abenduaren 19an kalean

## Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko liburua idatzi du Manu Diazek

## Aurkezpena hilaren 19an egingo dute udaletxean, 12:30ean

**EDU MENDIBIL** > BERGARA
*Bihotza alaia dugulako* izango da Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko kaleratuko duten liburuaren izenburua. Musika Eskolaren ereserkiaren hasieratik hartutako izenburua da. Liburuaren aurkezpena abenduaren 19an izango da, eguerdian udaletxean egingo duten ekitaldian.

Liburua Manu Diazek egin du eta egunotan lanari azken ukituak ematen ibili da. Lan kontuekin eta futbol kontuekin nahiko lanpetuta ibili da Diaz azken hilabeteotan eta liburua idaztea hainbat jenderekin berriro topo egitea bezala izan da: "Hunkigarria izan da liburua idaztea, 1980ko hamarkadaren amaieratik hona ezagutzen dudan jendearekin berriro egoteko aukera eskaini didalako. Alde horretatik, liburu beroa egiten ahalegindu naiz, helburu garbiarekin, gainera: Musika Eskolarekin kolaboratu izan duten guztiei esker ona adieraztea. Ehunka lagunek jardun dute eskolaren alde lanean eta bereziki haiei eskainitako lana da". Valen Moñuxek ere hartu du parte argazkiekin eta euskarazko itzulpenaz Rosa Narbaiza arduratu da. Bada, 200 bat orrialde eta 300 argazkitik gora izango ditu liburuak.

**ELKARLANA, EZINBESTEKOA**
Musika Eskolak 300 ikaslerekin eman zion hasiera ibilbideari, 1984an. Gaur egun 530 ikasle inguru eta 26 irakasle ditu. Aurrekontua ere askotxo handitu da: 45.000 eurokoa izatetik 500.000 euro ingurura pasa da.

Eskolaren sorreran Bergarako Kultur Ekintzak, Aritzetak, Orfeoiak, Bandak eta Mariaren Lagundiak izandako garrantzia azpimarratzen du Manu Diazek ; "Eskari bati erantzunez jaio zen Musika Eskola, ordura arte Banda zelako musikarien akademia. Bestetik, taldeen interesa hor dago, guztiek utzi zituztelako nolabait euren ikasleak akademiarako, baita musika irakasle partikularrek ere".

Etorkizunerako erronken artean eskolako bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzea dago. Musikarien harrobi bikaina dela primeran frogatu dute orain arte.

DATUA

**700**
**ALE**

Gabonen atarian kaleratuko den liburuak 700 aleko tirada izango du. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita dago, eta argazki askorekin egongo da apainduta. 10 eurotan jarriko dute salgai.

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

EDEL
TAPIZ DENDA
Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika
gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

## hau be badaukogu



AGUSTIN OIANGUREN

### Lourdes-Tarbes maratoi erdia egin dute patinetan Bergarako Egañak eta Oiangurenek

**Lourdes-Tarbes maratoi erdia egin zuten patinetan azaroaren 22an Jon Ander Egaña eta Agustin Oianguren bergararrek. "Bezperan joan ginen eta 36 kilometroko ibilaldia egin genuen. Gauean euria egin zuen eta lasterketako errepidea bustita zegoen, baina lurrera erori gabe lortu genuen bukatzea", dio Egañak. Maiatzean hasiko dute denboraldi berria. Bitartean, Labegaraietan entrenatuko dira.**

## oharrak

KINTADA
**> 1983an jaiotakoek bazkaria egingo dute Tartufo jatetxean**

Abenduaren 19an egingo dute. Izena emateko azken eguna da abenduaren 14a eta horretarako sartu behar dira 40 euro Euskadiko Kutxako 3035 0001 52 0010117196 kontuan. Bazkari egunean 13:00etarako egin dute hitzordua, San Martin plazan. Autobusa egongo da joan-etorrirako eta baita musika ere, bazkalostean.

## bote prontuen

**Maribi Oregi** > Konde Panaderokua

# "Aurten ere erroskoak okindegian egingo ditugu, ogia bezala"

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Duela 19 urte zabaldu zuten Konde Panaderokua, "1990eko abenduaren 21ean, lehenengo *Berriga-ra* argitaratu eta astebetera", gogoratzen du Maribi Oregik. Harrezkero, makina bat herritar goxatu eta ase du Kondeko labean egindako ogiak.**



**Zein ordutan hasten zarete ogia saltzen?**

06:30ean zabaltzen dugu okindegia. Ogia egiten duten bi lagunak, aldiz, lehenago etortzen dira, noski.

**Zenbat ogi mota ezberdin egiten dituzue?**

Ez ditut zenbatu, egia esan, baina asko. Integralak, adibidez, lau motatakoak egiten ditugu eta, horiez gain, txapata, bageta, gatz bakoa, artisaua, baserriko itxura duena eta sobatua, besteak beste.

**Denak okindegian bertan egiten dituzue?**

Bai; prozesu osoa egiten dugu hemen, gainera. Hau da, ogiaren orea ere okindegiko bi langilek egiten dute, eta haiek sartzen dituzte gero barrak labean.

**Laster, Gabonak. Aurten ere egingo dituzue erroskoak?**

Bai; aurten, gainera, natadunak eta kremadunak ere egingo ditugu, betikoez gain. Urte berriarekin batera hasiko gara saltzen, Errege Eguna baino astebete lehenago. Erroskoak ere bertan egingo ditugu.

**Ogi gutxiago jaten du jendeak krisiagatik?**

Ogi barik ez da inor gelditzen, baina nabaritzen da, bai. Soberan gelditzen den zatia izozkailuan sartzen du orain jendeak.



**EKONOMIA** > ENPRESA

# Aparkaleku aldera handituko da Copreci

Hasierako onarpena eman zion udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran eta herritarren parte-hartze prozesua jarriko du abian iritziak jasotzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Copreci lantegia txiki geratu da eta zelan handitu aztertzen jardun dute azken urtean. Lekualdatzeko aukera aipatu zuten hasiera baten, baina, azkenean, oraingo eraikinaren alboan beste bat eraikitzea erabaki dute: aparkalekuan, hain zuzen. Hasierako onarpena eman zion Udalak proiektu horri astelehenean.

**BI SOLAIRUKO ERAIKINA**

Zubikoa ingurura lekualdatzea izan zen aztertutako lehen aukera; herriko iparraldeko sarreran dagoen zelaira, Izurieta auzo azpian. Aukera hori, baina, oso garestia zela jakinarazi zuen Inaxio Garro alkateak: "Lurrak erosi behar ziren, ingurua urbanizatu, lantegia eraiki eta gero lekualdatzea egin; hortaz, guztira, 25 bat milioi euro". SPRIko zuzendariarengana jo zuten lehenengo proiektu hori aurkeztu eta laguntza eskatzera eta handik Jaurlaritzako Industria Sailera: "Ekonomikoki ez zela bideragarria jakinarazi ziguten". Eta orduan beste konponbide bat aztertzen hasi ziren.

Lantegiko aparkalekuan beste eraikin bat egitea erabaki du Coprecik. Bi solairu dituen lur azpiko aparkalekua egingo dute bertan eta, gora, beste bi solairu egingo dizkiote eraikinari. Orain dagoen lantegiaren osagarri izango da eta Udalarekin hitzartu du herritarrengan ahal den eragin txikiena izango duela: "Inpaktu bisuala, zaratak… eragiten dituzten jarduerak atzeko partean jarriko dituztela hitzartu dugu. Ahozko konpromisoa da, baina guztiok dugu interesa bete dadin", jakinarazi du Garrok.

**INDUSTRIA HERRIRA EKARTZEN**

EAko zinegotziek horixe eskatu zioten: ingurumenean izango duen eraginaren azterketa egiteko. Gainera, prozesuarekin ez ziren bat etorri: "Epe motzeko irtenbidea da eta erabaki horrekin herritik industria kendu eta enpresa parke bihurtzeko egitasmoari ezetza eman zaio". Hala ere, esan zuten ez zutela Copreciren etorkizuna oztopatu gura.

Ezker Batua-Berdeak alderdiko zinegotzia, ostera, erabakiaren aurka azaldu zen: "Herri erdira industria ekartzea da hori eta beste aukera batzuk aztertu behar ziren aurretik". Bai Udal Gobernuak, bai alderdi sozialistak erantzun zioten "bideragarria den beste aukerarik" ez dagoela.

**PARTE-HARTZE PROZESUA**

Udalak hasierako onarpena eman arren, parte-hartze prozesua zabalduko dute orain, legeak hala eskatzen duelako. Herritarren iritzia jasotzeko batzordea osatuko dute eta alkateak proposatu zien plan orokorra egiten ibili den batzordea izatea hori. Ezker Batua-Berdeak ez zen bat etorri, "gehiago zabaltzea komeni" dela esanaz. Datorren asteko Hirigintza batzordean erabakitzeko geratu ziren zeinek parte hartu. Hala ere, batzorde horren iritzia ez da izango erabakitzailea.



Eraikin berria egingo duten Copreciko aparkalekua eguazten arratsaldean automobilez beteta. M.A.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

## Preserbatiboen erabilera sustatzearekin eta nekazarien egoerarekin bat egin du Udalak

**M.A.** > ARETXABALETA

Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak (EHGAM) mozioa aurkeztu zuen astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran, aita santuak preserbatiboen gainean esandakoak argitu eta Udalaren babesa eskatzeko. Martitzenean Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna zela gogoraraziz aurkeztu zuen mozioa eta gezurtatu egin zuen preserbatiboek hiesaren arazoa larritu egiten dutenik, aita santuak esandako moduan. Alderantziz, preserbatiboaren erabilera sustatu egin behar dela jakinarazi zuten mozio bidez, "hiesaren aurka eraginkorra" delako. Udalak aho batez onartu zuen preserbatiboaren erabilera sustatzeko konpromisoa, baina ez zuen zehaztu zelan.

**NEKAZARIEN EGOERA LARRIA**

Beste mozio bat ere onartu zuten astelehenean, EHNEk, Euskal Herriko Nekazaritza Elkarteak aurkeztutakoa abeltzainek eta nekazariek bizi duten egoera larriarekin bat egin zezan Udalak. Alderdi sozialistak abstenitzea erabaki zuen, esanda EHNEk ez zuela arrazoitzen behar bezala eta ez zuela zehazten ondo erakunde bakoitzari zer eskatzen dion. "Hala ere, sektoreak gure babes osoa du", gaineratu zuen Ainhoa Sagarribai zinegotziak. Udalbatzako gainerako kideen babesa jaso zuen.

Bestalde, udaltzainen elkarkidetzako ekarpenak aldatzea onartu zuten. Udaltzainak mailaz aldatu dituzte eta ondorioz egin beharreko diru ekarpenak ere igo egin dira, baita Udalak egin behar duena ere.

Eta Murubide plazan duen garaje baten izendapen aldaketa ere onartu zuten. Garaje horrek orain biltegi izendapena dauka eta aldatu egingo diote saltzeko.

> ZERBITZUAK

## San Martin-San Jose kofradiak batzarra du martitzenerako

Heriotza orduan familiari laguntzea helburu duen San Martin-San Jose kofradiak urteko batzarra egingo du martitzenean Arkupen (10:30).

Diru kontuen berri emango dute eta proposatu igoerarik ez egitea kuotei. 4.000 bazkide baino gehiago ditu kofradiak eta datuak eguneratuta izan behar direla gogorarazi ko diete. Gainera, zuzendaritzako kideak hautatuko dituzte.



Joan den astean jarri zioten markesina autobus geltoki berriari. M.A.

ZERBITZUAK > GARRAIO PUBLIKOA

# Autobus geltokia aldatu egingo dute ostera urtebeteren bueltan

Autobus geltoki berria urruti geratzen dela diote herriko iparraldeko sarreran bizi direnek

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Azaroaren 2an aldatu zuten lekuz autobus geltokia Errekabarren kaletik Geltoki plazara. Hala, Aretxabaletako bi geltoki garrantzitsuenak parez pare geratu dira eta herritar askori zentzuzkoa iruditu zaie aldaketa; ez, ordea, guztiei. Herriko iparraldeko sarreratik gertu dauden kaleetako bizilagunak –Bedarreta, Lausitta, Otalora…– kexu dira, oso urruti dagoelako orain geltoki hori: "Ia kilometro bat ibili behar dugu", diote.

Inaxio Garro alkateak izan du kexu horien berri eta jakinarazi gura izan du herri erditik arriskua kentzeko hartu zutela lekualdatzearen erabakia: "Astero 305 autobus pasatzen ziren herri erdi-erditik, horrek dakarren arriskuarekin".

Gainera, aditzera eman du Deba ibaiaren beste aldeko lanak bukatutakoan, hau da, Txarapea ibilbidea eginda dagoenean berriro aldaketa izan dezakeela geltokiak, eta oraingoan luzerako: "Urtebete pasatxoan 600 etxebizitza egongo dira inguru horretan eta autobus geltokia beharko dute; hortaz, Lausitta kale inguruan edo Txarapean jartzea aztertu beharko dugu".

**AUTOBIDETIK ORAINDIK EZ**

Geltoki aldaketaren beste arrazoietako bat zen Pesa konpainiak jarritako baldintza bete gura izatea: geltokia herritik kanpo egotea Gasteizera doan autobusa autobidetik joateko. Baina lekualdaketa eginda egon arren, Aretxabaletatik pasatzen diren autobusak oraindik ez dira joaten autobidetik. Eta hori salatu dute herritar batzuek.

Alkateak adierazi du konpromiso hori hartu zutela bi aldeek, baina joan den astean Pesako, Aldundiko eta Eskoriatzako eta Aretxabaletako udaletako ordezkariek egindako batzarrean bertan behera geratu zela kontua. "Ez genuen adostasunik lortu orduan. Baina hurrengo batzarrean aurrerapausoak ematea gurako nuke. Izan ere, aretxabaletarrok bete egin dugu eskatutakoa".

UDALA

# Galdeketa telefonoz hilaren 9an hasita

Herriaren gaineko galderak izango dira eta 580 herritarri deituko diete

M.A. >ARETXABALETA

Datorren eguaztenean, abenduak 9, telefono bidezko galdeketa egiten hasiko dira Gizaker enpresako kideak. 580 herritarri deituko diete etxera Aretxabaletaren gaineko hainbat galdera egiteko –euskaraz eta gaztelaniaz–. Adina eta sexua kontuan hartuta erabaki dute nori deitu eta 35 bat galdera egingo dizkiete horiei. 15 bat minutu iraungo duen galdeketan 0 eta 10 puntu artean baloratu beharko dituzte herriko hainbat gune: lorategiak, bideak eta eduskiontziak, esaterako.

**'KUDEATUZ' EGITASMOA**

*Kudeatuz* egitasmo barruan dago galdeketa hori. Foru Aldundiak eta Udalak sinatutako lankidetza hitzarmenari esker jarri dute abian egitasmoa oraintsu. Herritarren parte-hartzea bultzatzea eta herri politikaren gaineko iritzia jasotzea du helburu, erakundeek egiten duten lana hobetzeko asmoarekin. Horretarako bi atal dituen gogobetetasun azterketa egingo dute, bi galdeketa eginda herritarrei: lehenengoa orain hilabete inguru banatu zuten etxez etxe norberak betetzeko eta orain, telefono bidezkoa egiten hasiko dira.

Galdeketak egiten dabiltzan Gizaker enpresako kideen esanetan, "telefono bidezkoa esanguratsuagoa" da. Behin galdeketa eginda txostena osatuko dute erantzunekin eta udal arduradunei aurkeztuko diete. Bi txostenak –etxez etxeko galdeketarena eta telefono bidezkoarena– Udal Gobernuak eskuetan dituenean emaitzen berri emango die herritarrei.

# Zabalik dago berriro Eroski, goitik behera berritu ostean

Martitzenean inaugurazio ekitaldia egin eta eguaztenean zabaldu zuten Eroski. Urriaren 13an erre zen saltokia, hondatutako hozteko makina batek eraginda, eta hilabete eta erdian goitik behera berritu dute. Herritar asko elkartu zen martitzeneko inaugurazioan jakin-minak eroanda eta "oso dotore" zegoela aipatu zuten guztiek. Hainbat aldaketa egin dituzte; urdaitegia eta arrandegia, esaterako. Hortaz, denbora beharko du jendeak denda berritura ohitzeko.



M.A.

Mobiliario ARENAZA
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**INGURUMENA** > ESKOLA AGENDA 21

# Publizitatea neurrian eta ingurumena zainduz egingo duela iragarri du Udalak

Hartutako konpromisoen artean daude adierazpen libreko beste gune bat egokitzea eta 'Publizitaterik ez' pegatinak eskuragarri jartzea

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Batzarra egin zuten martitzenean Kurtzebarri eskolako ikasleen ordezkariek eta udal agintariek. Publizitate kontuak landu zituzten ikasleek iazko ikasturtean Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan eta Udalari konpromisoak hartzeko eskatu zioten. Inaxio Garro alkateak eta Joxe Anjel Antxia Ingurumen zinegotziak hartutako erabakien berri eman zieten martitzenean.

**ADIERAZPEN LIBREKO GUNEAK**
Adierazpen libreko gune gutxi daudela eta horiek ez direla errespetatzen uste dute neska-mutikoek. Alkateak jakinarazi zien Errotabarri baserri parean jarrita dagoena lekuz aldatuko dutela eta beste berri bat ekarri: "Baina oraindik ez dugu erabaki non jarri". Ikasleek proposamena bota zieten: udaletxe alboan eta Ibarra futbol zelai inguruan. Antxiak, berriz, argitu zuen udal langileek astean behin garbitzeko agindua dutela.

Bestalde, atarteetan jartzeko *Publizitaterik ez* pegatinak eskuragarri egotea gura zuten ikasleek, eta alkateak onartu zuen agortuta daudela udaletxean. Esan zuen Mankomunitatean eskatuta dituztela halako gehiago eta laster izango direla berriro herritarren eskura.

Eta herriko hormetan publizitate gehiegi ez pilatzeko, enpresek eta alderdi politikoek gutxiago egitea eskatu zuten ikasleek. Alkateak erantzun zien hauteskunde sasoian alderdiei eskatuko dietela propaganda gune batzuetan bakarrik jartzeko.

Bi aldeek onartu zuten publizitatea beharrezkoa dela neurrian eginez gero, eta horretarako beste bide batzuk ere badaudela: komunikabideak, webgunea, bluetooth sistema… "Eta SMS bitartez herriko informazioa bidaltzeko aukera aztertzen gabiltza", gaineratu zuen Garrok. Ikasleek, gainera, udaletxean paper birziklatua erabiltzeko eskatu zioten.

**HURRENGOA, EKITATE GABEZIA**
Ikasleek landuko duten hurrengo gaia ekitate gabezia izango da: pobrezia, diskriminazioa…


Kurtzebarri eskolako ikasleak adi alkatearen esanak entzuten. M.A.

**MENDIA**

# Batzarra egingo du Murrukixok hilaren 18an

Mendian federatu gura dutenek hilaren 8tik 11ra dute aukera

**M.A.** > ARETXABALETA
Mendiko txartelak berritzeko garaia iritsi zaie Murrukixo Mendizale Elkarteko bazkideei eta gutuna jaso dute etxean 2010eko federatze aukeren eta kuoten gaineko argibideekin. Gainera, baten batek datuak aldatu gura izanez gero, orain du aukera. Horretarako mezu bat bidal dezake helbide elektronikora –*murrukixo@euskalerria.org*– edo egoitzatik pasatu. Bazkide ez direnek ere aukera daukate egiteko eta edozein argibide emateko zabalik egongo da Murrukixok Durana kalean duen egoitza hilaren 8an, 9an, 10ean eta 11n (19:00-20:00).

**ZUZENDARITZA ALDAKETA**
Batzar orokorra egingo du mendizale elkarteak hilaren 18an, egubakoitza (19:00), eta bazkide guztiak gonbidatu ditu. Diru kontuen berri eman eta 2010eko ekintzen aurkezpena egingo dute. Gainera, zuzendaritza aldatu gurako lukete oraingo arduradunek, eta boluntarioak gura dituzte horretarako.


Aitor Alcaide, xake partida jokatzen. GOIENKARIA

**XAKEA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

# Lehenengo bosten artean gera daiteke bihar Alcaide

**M.A.** > ARETXABALETA
Bihar, abenduak 5, bukatuko dute Zarautzen Gipuzkoako Xake Txapelketa, eta Aitor Alcaide aretxabaletarrak lehenengo bosten artean egoteko aukera dauka.

Sailkapeneko seigarren postuan dago orain, joan den astean Francisco Javier Rodriguezi irabazi eta gero, eta bihar Iñigo Galartza donostiarra izango du aurkari. Alcaide da partidako faboritoa, baina hark ez du halakorik iragarri gura: "Oso berdinduta ibiliko gara". Irabaziz gero, hirugarren eta bosgarren postuen artean geratuko da. Emaitza bikaina izango litzateke; ez hori bakarrik, Euskadiko Txapelketarako sailkatzeko aukera dauka, lehen laurak joango direlako. Txapelketa hori Pazko Astean jokatzen dute urtero.

Gipuzkoako txapelketa bi debagoiendarrek bakarrik jokatu dute: Alcaidek eta Arrasateko Asier Etxagibelek. Bikain jardun du hark ere, nahiz eta aurreko astean galdu, eta 15 postu aurreratu ditu xake jokalarien rankingean. Oraingoan, ostera, ez du jokatuko, kanpoan delako.

**KULTURA** > KONTZERTUA

# Nikola Tanaskovic Serbiako akordeoilaria bihar Arkupen

19 urteko gazteak Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketa irabazi zuen iaz

**M.A.** > ARETXABALETA
Nikola Tanaskovic akordeoilari serbiar gazteak kontzertua eskainiko du bihar, hilak 5, Arkupe kultura etxean (20:00).

Gaztea izan arren nazioarteko lehiaketa askotan hartu du parte eta sariak irabazi ere bai. Hala, Arrasate Hiria nazioarteko lehiaketako lehen saria eskuratu zuen iaz, baita Portugalgo Trophee Mondialekoa eta Serbiako Kragujevac hirikoa ere. Bihar eskainiko dituen kantuen artean daude Olsen konposatzailearen *Without a title* eta Angelisen *Romance*.

**AKORDEOI ORKESTRA**
Aretxabaletako Akordeoi Orkestrak ere eskainiko du Gabon sasoiko kontzertua, urtero legez; abenduaren 19an izango da, zapatua, parrokian (20:30). Herriko akordeoilari onenek elkarrekin joko dute, Juanjo Orobengoak zuzenduta.


Serbiako Nikola Tanaskovic akordeoilari gaztea (ezkerrean). HAUSPOZ

**oharrak**

ANTZERKIA
**> 'Euskarazetamol' gaur**
Ez Dok Hiru antzerki taldeak *Euskarazetamol* antzezlana eskainiko du gaur Arkupen (19:00).

ZINEMA
**> 'Malditos bastardos' eta 'Up' filmak aste bukaeran**
Helduek *Malditos bastardos* izango dute gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00); eta umeek *Up* domekan eta martitzenean (17:00).

GAZTEAK
**> Txalaparta ikastaroa eguenetan gaztelekuan**
Abenduko eguenetan txalaparta jotzen erakutsiko dute gaztelekuan (18:00).

DEIALDIA
**> Bertso afarirako txartelak salgai Loramendin**
Bertso afaria egingo du Loramendi EEk hilaren 18an, Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso lagun. Txartelak salgai dituzte 20 eurotan.



Autoek espaloi gainean aparkatzen dute, eta oinezkoek eta beste autoek arazoak izaten dituzte Atzeko kalean. MIREIA BIKUÑA

**HIRIGINTZA** > AZTERKETA

# Atzeko kaleko zirkulazioa hobeto antolatzeko azterlana egingo dute

LKS enpresak egindako txostenarekin eta kalea eraberritu arte, behin-behineko aldaketak egingo dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Atzeko kaleko bizilagunek sarritan egin duten eskaera aintzat hartuta, hango zirkulazioa berrantolatzeko erabakia hartu du Udalak. Oraingoz, baina, Atzeko kaleko zirkulazioaren eta aparkaleku arazoaren gaineko azterlana eskatuko dio LKS Ingeniaria enpresari. Emaitzak ezagutu ondoren eta kalea erabat urbanizatu arte, beharrezkoak diren behin-behineko aldaketak egingo dituzte.

**BIZILAGUNEN KEXAK**

Atzeko kaleko bizilagunek eskaera asko zuzendu dituzte udal arduradunengana, guztiak ere kaleko zirkulazioan egunero sortzen diren arazoak konpontzearen gainekoak.

Bizilagunek diote kalearen egoera eskasa dela, eta autoekin arazo asko dituztela: alde batetik, etxe aurrealdean autoak aparkatuta egoten direla diote. Ondorioz, etxetik irteteko arazoak izaten dituzte egunero. Beste alde batetik, espaloi ondoan gaizki aparkatuta dauden autoengatik beste batzuk espaloi gainera igotzen dira, eta horrek arriskua sortzen die etxetik irteten eta kalean ibiltzen direnei.

Udal arduradunek behin eta berriz erantzun diete esanez Atzeko kaleko eraberritzea egiten zutenean konponduko zutela arazoa. Dena den, krisia dela eta, eraberritzea egitea ezinezkoa da udal arduradunendako, diru baliabiderik ez dutelako. Bestalde, Atzeko kaleko zirkulazioaren antolaketa egiteko kalean bertan eta herriko beste hainbat kaletan aldaketa handiak egin beharko lituzkete. Horregatik guztiagatik, oraingoz, behin-behineko aldaketak egingo dituzte LKS enpresak azterlana bukatzen duenean.

**ALDAKETAK KIROLDEGI AURREAN**

Bestalde, kiroldegi aurrean dauden zirkulazio arazoak saihestu eta segurtasuna bermatzeko bi aldaketa egingo dituzte. Alde batetik, kiroldegi aurreko oinezkoen pasabidean argiztaturiko seinaleak jarriko dituzte, argi gutxi dagoeta. Beste alde batetik, Txantxiku Ikastola pareko elbarriendako bi aparkalekuak kiroldegi parera pasako dituzte. Ondorioz, toki horietan oztopo-zutoinak jarriko dituzte beharrezkoa denean erreserbatzeko.

**LANAK** > SAN MIGEL GOIAINGERUAREN ELIZA

## Parrokiako kapera txikiko aztarnak ez dira baliotsuak

'Monasterio' izenarekin ezagutzen zen eraikinaren arrastoak aurkitu ditu Aldundiko arkeologoak

**L.ZEBERIO/M.B.** > OÑATI

Parrokiako kapera txikian aurkitu dituzten XVI. mendeko eraikinaren aztarnek ez dute balio handirik. Horixe adierazi du Foru Aldundiko arkeologoak.

Sakristia ondoko kapera txikia eraberritzeko lurra altxatu zutenean agertu ziren horma zatiak eta galtzada zaharra; hain zuen ere, *Monasterio* izenarekin ezagutzen den eraikinaren arrastoak dira. "Hainbat zerbitzu ematen zituen eraikina zela jakin dugu. Auzoetan lanean ibiltzen ziren apaizak kondeak mantentzen zituen, eta haien jantokia zen. Garai bateko diligentzia ere bertan gelditzen omen zen", esan digu Oñatiko parroko Joxan Larrañagak.

Dagoeneko estali dituzte arrastoak, eraberritze lanak bukatzeko. "Adituek esan dute arkeologikoki balio txikiko aurkikuntza dela, eta lanekin jarraitzeko baimena eman digute", dio parrokoak.

Egun, zorua txukuntzen dihardute. Lanak erritmo onean ei doaz, eta abenduaren 15erako bukatzeko asmoa dute.


XVI. mendeko galtzadaren arrastoa aurkitu dute parrokiako kaperan. GOIENKARIA

**ARGITERI BERRIA**

Parrokiako koru azpian dagoen kapera berritzeko lanak irail bukaeran hasi zituzten. Zorua altxatu eta arrastoak aurkitu aurretik argindar instalazioa berritu, foku berriak jarri eta paretak margotu zituzten.

> KIROLA

### Aloña Mendiko karatekek, emaitza onak Elgetan

Aloña Mendiko karatekek emaitza onak lortu zituzten Elgetan jokatutako txapelketan. Bergarako Shotokan taldeak antolatuko proban 93 karateka egon ziren. Aloñako ordezkariak izan ziren, aurrebenjamin mailan, Laura Rezabal (hirugarrena); benjaminetan, Karmele Egaña (bigarrena), Ariane Lopez (hirugarrena), Imanol Astudillo (lehena), Adrian Perez (bigarrena), eta Julen Fernandez eta Iñaki Artzuaga (hirugarrenak); alebinetan, Naia Rodriguez (hirugarrena), Asier Natividad (lehena), Xabier Murgiondo (bigarrena) eta Jokin Moreno (hirugarrena); eta infantiletan, Aritz Azurmendi (hirugarrena).

> DEIALDIA

### Azken eguna da gaur erakusleiho lehiaketan izena emateko

Oñatiko Udalak eta Txanda Dendarien Elkarteak antolatutako Gabonetako Erakusleiho Lehiaketako izenematea gaur itxiko dute. Interesatuek udaletxeko harrera bulegoan, turismo bulegoan edo Bidebarrieta kaleko 12. zenbakian dagoen Garapen Ekonomiko, Enplegua eta Merkataritza batzordeko bulegoan eman dezakete izena. Guztira, 4.500 euro banatuko dituzte.

Epaimahaiko kideak izango dira udal ordezkariak, Txandako kideak, eta dekorazio arloko profesionalak; eta, besteak beste, diseinua, irudimena, orijinaltasuna, argiztapena, gaia eta berrikuntza hartuko dituzte kontuan.

> KULTURA

### Antzezlana estreinatuko du Ikusi Makusi taldeak

Pake Leku Erretiratuen Elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldeak emanaldia egingo du abenduaren 11n Santa Ana antzokian 20:30ean. *El jardín de la alegría* antzezlanaren emanaldi berria egingo dute herritar guztiendako. Langabezian dauden bi gizonen istorioa kontatzen dute. Parke baten elkartuko dira eta lana topatzeko aukerak aztertuko dituzte. Azkenean, marihuana landatzea jartzeko erabakia hartuko dute.

Josefina Martin, Angel Agirre, Carmen Maiztegi, Rosi Lukas, Tere Zubia, Mari Carmen Goitia, Cruz Odriozola, Ana Mari Chacon, Axun Artzuaga eta Ana Mari Liziaga igoko dira oholtza gainera.

**TELEBISTA** > ARO DIGITALA

# Deskodetzaileak erosteko laguntzak eska daitezke hilaren 16ra arte

2010eko urtarrilaren 10ean izango da telebista analogikoaren itzalaldia; ordurako egokitzapenak egin barik dituenak ezin izango du telebista ikusi

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatza telebista digitalera pasatuko da laster. Hasiera batean telebista analogikoaren itzalaldia abenduaren 31n egitea aurreikusita bazegoen ere, atzeratzea erabaki dute; aldaketa berririk ez badago, 2010eko urtarrilaren 10ean telebista analogikoaren itzalaldia gertatuko da eta telebista digitalak bere bidea hasiko du.

Gainontzeko tokietako herritarrek bezala, seinale analogikoa bakarrik jasotzen duten etxeetako erabiltzaile eskoriatzarrek egokitzapenak egin beharko dituzte; telebista ikusi nahi badute, behintzat. Hain justu ere, telebista berriak erosi edo telebista zaharretan LTD hargailuak (deskodetzaileak) ipini beharko dituzte. Telebistari konektatzen zaion aparailu txikia da hori eta telebista bakoitzeko bat behar da. Bada, horren harira, Udalak egunotan jakinarazi du deskodetzailea erosi ahal izateko laguntzak eskatu ahal izango direla.

**HIRU BALDINTZA**

Laguntzak jasotzeko erabiltzaileek hiru baldintza hauetako bat bete beharko dute: 80 urtetik gora izan edo 80 urtetik gorako beste pertsona batekin bizi izatea; 65 urtetik gora izatea eta bigarren edo hirugarren mailako mendekotasuna onartuta izatea; edo %33ko edo gehiagoko ezgaitasun-maila izatea eta ezgaitasunetako bat entzumenezkoa edo ikusmenezkoa izatea.

**ABENDUAREN 16A BAINO LEHEN**

Udalak jakinarazi du dagoeneko eska daitezkeela esandako laguntzak. Horren harira, azaldu dute eskaera Eskoriatzako Udalean tramitatu ahal izango dela, Gizarte Zerbitzuetan, abenduaren 16a baino lehen.

Horren gaineko informazio gehiago nahi dutenak Telesko udal telebistarekin jar daitezke hartu-emanetan, 943 71 49 17 telefono zenbakian. Internetez jasotzea nahiago dutenak, berriz, *www.televisiondigital.es* webgunera sar daitezke.

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Inkernuko 6. urteurrenaren harira, Eina kataluniarrek joko dute domeka gauean

Horretaz gain, Aitzorrotz kultura elkarteak poker txapelketa gertatu du astelehen gauerako

**M.B.** > ESKORIATZA


Eina taldea Inkernuko agertokira igoko da etzi, 22:30ean. ROSER ORTIZ

Abenduaren 6an, domeka, Inkernu tabernak 6 urte beteko ditu, eta, hori dela-eta, Aitzorrotz kultura elkarteak bi ekitaldi antolatu ditu datozen egunei begira: domekan bertan Kataluniako Eina musika taldea igoko da tabernako agertokira. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera debalde izango da.

Eina da aro berri bati ekiteko Inadaptats musika taldea osatzen zutenek hartu duten izena. Dagoeneko urtebete baino gehiago da Penedesko taldeak lehenengo lana kaleratu zuenetik; 2008ko maiatzaren 15ean argitaratu zuen *El arte de la guerra*.

Lanaren izenburua Zun Tzu militar txinatarraren *El arte de la guerra* liburutik hartu zuten kataluniarrek. Kristo aurreko VI. mendean egindako eta gaur egun oraindik eraginkorra den estrategia militarraren gaineko tratatua da, hainbat gatazkari irtenbidea bilatzeko oinarri moduan erabili izan dute-eta.

**13 KANTU**

Liburua musika alorrera egokitzeko Einakoek 60 abesti inguru grabatu zituzten eta horietatik, 13 aukeratu zituzten; liburuaren kapitulu bakoitzeko kantu bana. Metala, hip-hopa eta punka uztartu zituzten esandako lanean. CDaz gain, Zun Tzuren jatorrizko testuaren berrargitalpena ere badakar, besteak beste.

*El arte de la guerra* aurkeztearekin batera, 20 kontzertutik gora eskaini zituen taldeak Katalunian, Euskal Herrian eta baita Castellon ere. Atsedenalditxoaren ostean, joan den hilean *Esmolem l'Eina* izeneko bira berria hasi zuten kataluniarrek. Datorren urteko martxora arte, 30 musika emanalditik gora egiteko asmoa dauka; tartean, domeka gauean Eskoriatzan egingo duena.

Eina taldekoak pozik daude Inkernu bezalako taberna batean kontzertua emateagatik; izan ere, mota horretako tokietan ikusleekin harreman zuzenagoa dute: "Gezur kapitalistei aurre egin ahal izateko berotasuna bilatzen dugu gure musika emanaldietan".

**IZENEMATEA, 25 EURO**

Bestalde, astelehenean, hilak 7, poker txapelketa egingo dute Inkernun. Izenematea egun berеko 21:00ak baino lehen egin beharko da, pertsonako 25 euro ordainduta. Txapelketa 21:00etan hasiko da.

**KZGUNEA**

# Hilaren 16an eta 30ean egongo da tutorea

**M.B.** > ESKORIATZA

Abenduan Eskoriatzako KZguneak izango duen ordutegiaren berri izan dugu asteon. Aitor Madrid dinamizatzaileak hilaren 16an eta 30ean bisitatuko du KZgunea honako ordutegian: 10:30etik 13:00etara.

Ohikoa den moduan, esandako bi egun horietan hainbat ikastaro egin ahal izateko aukera izango dute eskoriatzarrek: sare sozialak, *Skype*, *Google* tresnak, *Blogger*, *Youtube*, *Wikipedia*, *Google Maps* eta *Earth*, zuhaitz genealogikoa, *Megaupload*, *Softonic*, *Gmail*, *Flickr*, wifi, *Picnik*, ikus-entzunezkoak, *Google Docs*, *Ebay*, software librea eta *Google Sites*. Horretaz gain, Interneten iragarkiak jartzen ikasi ahalko dute egun horietan.

Eskainitako ikastaro guztiak bi ordukoak izango direla jakinarazi du tutoreak.

## oharrak

UMEAK

**> PlayStationa gaur arratsaldean ludotekan**

PlayStation kontsolarekin jokatu ahalko dute gaur, 18:00etan, Tortolis ludotekara joaten diren neska-mutikoek.

GAZTEAK

**> Txokolate-jana dago bihar Apotzagan**

Gaztelekukoek txokolate-jana dute bihar, 17:00etan, Apotzagan. Domekan, Wii txapelketa egingo dute, 18:00etan.

KIROLA

**> Aste bukaerako hitzordua**

Egun eta ordu berean, Euskal Ligako areto-futbol partidua jokatuko dute kiroldegian. Eskoriatzarrak Ortziri taldearen kontra lehiatuko dira.

EMAKUMEAK

**> Gabonetako sukaldaritza tailerra hasiko da eguaztenean**

Gabonak gertu daude eta dagoeneko horren gaineko ekimenak antolatzen hasi dira. Amuskak, esaterako, Gabonetako sukaldaritza tailerra egingo du eguaztenetik egubakoitzera, 18:00etatik 19:00etara, kultura etxean.

UMEAK

**> Gabonei ongietorri festa egingo diete eguenean Tortolisen**

Tortolis ludotekan Gabonei ongietorri festa egingo diete, 16:30ean.



Jende asko joan da Tortolisen jarritako erakusketa ikustera. MIRIAN BITERI

**EUSKARAZ** > UMEAK

# Jostailuak itsu-itsuan ez erosteko erakusketa egin dute

Guraso zein umeen artean oso harrera ona izan du astelehenetik eguaztenera bitartean Udalaren Gazteria Sailak ematen duen zerbitzua

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, astelehenetik eguaztenera bitartean euskarazko jostailuen erakusketa egin zuten Tortolis ludotekan. Aurreko urteotan antolatutako erakusketekin alderatuta, aurtengoak badu berritasuna: Udalak gertatu duela lehen aldiz. Horren bidez jostailuak "umekeriak" ez direla eta, hortaz, erosi aurretik ondo pentsatu beharra dagoela erakutsi nahi izan die Gazteria Sailak gurasoei. Horretarako, gaur egun merkatuan dauden jostailuen eskaintza zabala izan dute gurasoek gertu, bertatik bertara ezagutzeko.

**OSO HARRERA ONA**

Erakusketak oso harrera ona izan du eta ludoteka umez zein gurasoz beteta egon da; bereziki, 18:00etatik aurrera. Tortolis ludotekako hezitzaile Iratxe Arrese eta Leire Etxenausia arduratu dira gurasoei han jarritako jostailuen gaineko azalpenak eta hainbat gomendio emateaz.

Hezitzaileek gurasoen zalantza ohikoenak azaldu dizkigute: "Seme-alaben adinaren araberako jostailuak aukeratzeko dituzten zalantzak argitu dizkiegu. Ludotekan adinaren arabera izan ditugu jostailuak banatuta: 2 eta 6 urte artekoenak, 7 eta 9 urte eta hortik aurrerakoenak". Horrez gainera, ikusgai egon diren jostailuez ere galdetu diete; bereziki, 7 eta 9 urte bitarteko neska-mutikoei zuzendutako arkatz kooperatiboaz.

Gurasoek informazioa jasotzen zuten bitartean, neska-mutikoek ikusgai zeuden jostailuak probatzeko aprobetxatzen zuten. Betiko jostailu eta jolasez gain, txoko digitala ere gertu izan zuten.

**AZPIEGITURA** > BIDEGORRIA

# Mariezcurrena enpresak egingo du hilerriko zatia

Lanak amaitzean, bidegorritik herri guztia zeharkatu ahalko dute oinezkoek eta ziklistek

**M.B.** > ESKORIATZA

Gipuzkoako Garapen Iraunkorreko Departamentuak dagoeneko egin du Eskoriatza-hilerria bidegorriaren bide zatiaren esleipena. Abenduaren 1eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten Nafarroako Construcciones Mariezcurrena enpresa arduratuko dela tarte horretako proiektuaren lanak egiteaz, 797.572 euroren truke.

Zati horrek Eskoriatzako iparraldeko eta hegoaldeko bidegorriak gehiegiko aldaparik gabe lotuko ditu, eta, hortaz, obrak amaitzean, bidegorritik herri guztia zeharkatu ahal izango da. Hilerriaren azpitik doan antzinako trenbide-tunelaz baliatuko dira trazatua egiteko. Tarte motza da hilerrikoa: 300 metrokoa, hain justu ere.

**ARGIA ETA PANTAILAK**

Hegoaldeko zatiari dagokionez, lanak dagoeneko amaituta daude. Kilometro bateko luzera duen trazatu osoa argiztatu egin dute eta zarataren aurkako pantailak jarri dituzte errepidearen eta bidegorriaren artean.

> TASAK

## Ur hornikuntzaren ordainketa helbideratu gabe dutenek hilaren 14ra arte dute ordaintzeko epea

Aurtengo hirugarren hiruhilabeteari dagokion ur hornikuntza tasa ordaintzeko epea zabalik dago. Tasa-ordainketa helbideratuta daukaten eskoriatzarrei abenduaren 14an egingo zaie kobrantza eta ordainketa helbideratu gabe duten herritarrek abenduaren 14ra arteko epea izango dute borondatezko ordainketa egiteko.

# Andres Agirianok 103 urte bete ditu

Andres Agiriano eskoriatzarrak urteak egin zituen astelehenean. Hain justu ere, 103 urte bete zituen San Andres egunean. Urtero moduan, Udaleko eta Olazar erretiratuen elkarteko ordezkariak bizi den baserrira joan ziren eguerdian, omenalditxoa egiteko eta etxekoekin batera argazkia ateratzeko. Hemendik ere Agiriano zoriondu nahi dugu. Zorionak, Andres!



OIHANA ELORTZA



**MAHAINGURUA** > ELKARTASUNA

# Kongora eta Senegalera bideratzen ditu laguntzak Anelkarrek

Kongorako aitzurrak erosten dituzte, besteak beste, eta Senegalerako aurten arrozaren azala kentzeko makina

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Atzo, abenduaren 3an, Olaran etxean mahai-ingurua egin zuten herrialde pobretuetarako proiektuak bideratzeko Bideberrik diruz lagundu dituen elkarteetako ordezkariek. Bigarren urtea da Bideberrik horrelako dirulaguntzak emateko deialdia egin duena eta taldeen lana erakustea zen mahai-inguruaren helburua.

Anelkar izan zen herriko ordezkaria eta elkartearen proiektuen berri eman zuten Kontxi Laskurainek eta Bittor Arbuluk. Aurten 6.940 euro jaso ditu eta herritarren bat han dagoela baliatuz bideratu dute dirua hainbat tokitara.

Kongora aitzurrak bidaltzen dituzte eta ikasleen gurasoei modu sinbolikoan saldu bideak konpontzeko zein nekazari lanetarako; irakasleei ordaintzeko eta eskola materialerako ere bideratzen dute dirua; eta ura bideratzeko ere hainbat lan egin dira.

Senegalen da Kristina Bakaikoa antzuolarra eta arrozari azala kentzeko makina erosteko bideratu dute dirua hara. Mantak, ospitaleko materiala, arropak... ere bidali dituzte 24 kaxatan; hain zuzen ere, taldeko hiru kide bahitu dituzten Accio Solidaria taldearen karabanan, baina helmugara iritsiko direlakoan daude.

Brasilera, Juan Antonio Lizarralde han zela ere bideratu izan zuten dirua, ur arazoak konpontzeko, besteak beste; baita Ekuadorrera, Uruguaira, Saharara, Mozambikera eta El Salvadorrera ere. Orain, Tanzaniara ospitalerako izarak bidaltzekoak dira, Antzuolako Patxi Azkarateren lagun bat han dago-eta.

**SASKIA**

Bestalde, Anelkarkoek herriko dendariek eta tabernariek emandakoekin osatu dute Gabonetako saskia hilaren 24an zozketatzeko eta txartelak saltzen dihardute.



Senegalen barnetegi bateko beharretarako eman izan du dirua Anelkarrek. GOIENKARIA

**UDALBATZARRA**

## Bi mozio eta adierazpena onartu zituzten

**I.A.** > ANTZUOLA

Abenduko ohiko osoko bilkura egin zuten eguaztenean, hilaren 2an. Matz Erreka lantegia handitzeko xehetasun azterlana aho batez onartu zuten, baita Antzuolako Udal Etxegintzarekin hitzarmena egitea ere gimnasioko lokalaren lagapenerako.

Euskal Herriko Gay-Les Askapenerako Mugimenduak Benedikto XVI.a aita santuak preserbatiboen gainean esandakoen harira aurkeztutako mozioa hamar zinegotziren baiezko botoekin onartu zen. Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunerako prestatutako adierazpena, berriz, aho batez onartu zuten. "Espainiar Estatuaren azken eraso errepresiboen aurrean" Pedro Iturbek, Patxi Olabarriak, M. Carmen Jauregik, Andoni Azkargortak eta M. Paz Ugaldek aurkeztutako mozioa eztabaidatu ostean, Pilar Etxaniz abstenitu egin zen eta Paco Morcillok aurkako botoa eman zuen; hortaz, gainontzeko zinegotzien aldeko botoekin onartu zen.

> ERAKUSKETA

### Intervida elkarteak Bangladeshko irudiak ipiniko ditu ikusgai

*Bangladeshko haurren lan mundua* erakusketa ikusi ahal izango da Olaranen abenduaren 8an, 12an eta 13an, 12:30etik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era bitartean. Intervida gobernuz kanpoko erakundeak umeen lan esplotazioaren aurka egindako kanpaina baten barruan Jose Alfonso argazkilariak ateratako argazkiak dira. 30 iruditan Bangladeshko Dhaka hirian umeek zein egoera gogorretan lan egiten duten ezagutzeko aukera izango dute antzuolarrek.

> INFORMATIKA

### Martitzenetan eta eguenetan egongo da tutorea KZgunean

Abenduan, KZguneko tutorea martitzenetan eta eguenetan egongo da Torresoroako liburutegian dagoen ordenagailuen gunean. Abenduan jaiegunak izango direla kontuan hartuta, jakinarazi nahi du zein egun zehatzetan joango den hara: 10ean, 15ean, 17an, 22an eta 29an. KZguneko ordutegia, berriz, 09:00etatik 13:00etara bitartekoa da. Tutoreak herritarren eskariak jasoz gero, ikastaroak egiteko aukera ere izango da, baldin eta taldea osatuko balitz.

> ERLIJIOA

### Antiguako ermitan egingo dituzte domeketan elizkizunak

Parrokia barruko berritze lanak direla-eta, domekan hasi ziren mezak Antiguako ermitan egiten. Hemendik aurrera, lanek iraun bitartean, astelehenetik egubakoitzera 19:00etan izango dira mezak Accion Catolicako lokalean eta domeketan, 11:00etan, Antiguan. Hileta elizkizunak ere Antiguan egingo dituzte, 19:00etan. Ermitan, gainera, berogailua ipini dute. Zapatuan 12 lagunen artean hustu zuten eliza eta Diputazioko eta Udaleko baimenaren zain daude obrak hasteko.

> FUTBOLA

### Aretxabaletako taldearen aurka galdu egin zuten etxean

Etxeko emaitza onei eutsi nahian atera ziren Eztalako zelaira, baina horrela izan ez eta Aretxabaletaren aurkako partidua 0-1 galdu zuen Antzuola Kirol Elkarteko talde nagusiak aste bukaeran. Bada, 14 punturekin hamaikagarrena da orain sailkapenean, eta urruti dauzka lehenengo postuetan dauden Zumaiako eta Elgoibarko taldeak. Eta astebururu honetako atsedenaren ostean, abenduaren 12an edo 13an Oriora egingo dute bisita antzuolako jokalariek.

> ARGAZKILARITZA

### Lehiaketan herritarrek hautatutako lanen jabeek ere jaso dituzte sariak

Domekan banatu zituzten herriko XV. argazki lehiaketako sariak, eta, epaimahaikoen esanetan, oso maila ona egon da aurten. Hiru mailetako lehen bi saridunei ez ezik, ikusleek euren botoekin aukeratutako lanik onenen jabeei ere eman zizkieten sariak. Herritarren saria jaso zuten mailaz maila honako hauek: Juanjo Etxezarretak *Zarralde* lanarekin; *Loria bustitxa* argazkiarekin Jon Iturbek; eta *Antzuola lainopean* lanarekin Aimar Larreak.

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

MEMORIA HISTORIKOA > BEKA

# Udalak 36ko gerraren inguruko ikerketa lana bultzatu nahi du

Eusko Jaurlaritzaren babesarekin 12.000 euroko beka atera du, Espainiako gerrak Elgetan izan zuen eragina ikertuko duen proiektu bat diruz laguntzeko

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako Udalak gehiago jakin gura du 36ko gerraren inguruan, eta, lehenengo aldiz, ikerketa bultzatzeko beka atera du. Guztira, 12.000 euroko beka da, eta Eusko Jaurlaritzak ipiniko ditu 8.000 euro. "Helburua da 36ko gerraren eta Elgetaren arteko lotura, nolabait, jasotzea", adierazi du Oxel Erostarbe alkateak. "Bere egunean Udalak parte hartu zuen Eibarren 36ko gerraren inguruan Jesus Gutierrez historialariak egindako liburuan, baina oraingo asmoa da ikerketa Elgetara ekartzea".

**APIRILERAKO AMAITUTA**

Gaia zabalik laga du Udalak eta jasotako proposamenen artean aukeratuko du gehien interesatzen zaion proiektua. Apirilean 73 urte beteko dira Elgetako frontea jausi zela. Ordurako ikerketaren emaitza mahai gainean eduki nahiko luke Udalak. Egindako lana zein formatutan jaso (liburua, ikus-entzunezkoa...) proiektuaren ezaugarriek esango dute.

**PROIEKTU GEHIAGO**

Ez da 36ko gerraren inguruan Elgetako Udalak bultzatu duen lehenengo ekimena. Martxan dituzte gerraren inguruko ibilbide tematikoaren proiektua eta lubakiak berreskuratzeko ekimena. Harreragunea egiteko asmoa ere mahai gainean dute. "Nahiko genuke abenduan lanak esleitzen joan", aurreratu du alkateak. "Ibilbide tematikorako panel guztiak diseinatuta dauzkagu. Intxorta 1937 elkartearekin elkarlanean egindako lana da. Orain, diseinuak enpresara bidaltzea gelditzen da formatua emateko". Lubakiak berreskuratzeko lana eta harreragunea egiteko proiektua ere profesionalen esku lagako dituzte. Lan horiek ere esleitzeko puntuan omen daude.



L.Z.

## Festa egun bete-betea izan zuten Elgetan arraunlariek

Aho zabalik gelditu dira Hondarribiko arraunlariak, elgetarrek zapatuan egindako festarekin. Apustu bat zela-eta muntaia ederra prestatu zuten; epailea, asistentzia-motorrak, ekipoko autoa, mekanikaria, anbulantzia, albaitari-medikua, masajistak, batela, eskoba-autoa, traktorea ikurrinarekin... Eta azkenean helmugan, nagusi, Jose Mari Beristain. Ondo baino hobeto errekuperatu ziren guztiak ondorengo bazkarian.

4 t'erdiko pilota txapelketa

## Jokoan txapelketako finalerdietarako txartelak

Gero eta norgehiagoka gutxiago gelditzen dira jokatzeko. Bikoteek duten onena eman dute, eta oraindik ere gelditzen zaie apur bat, batez ere sailkapenen goiko aldean daudenei. Lehenengo selekzioa egindа dago, baina oraindik irabazi egin behar dira finalerdietarako txartelak. Asteburuan beste zortzi partidu jokatuko dira.

**BARIKUA, ABENDUAK 4,**
**20:00etan hasita**

1. Pello Larrea - Jesus Belamendia / Angel Ibarluzea - Alberto Telleria
2. Jabier Bolinaga - Iñaki Izagirre / Jose Mari Zubiaurre - Iñaki Ugarteburu
3. Luisan Alkorta - Gorka Bolinaga / Asier Morales - Fernando Zenitagoia
4. Koldo Goenaga - Alex Arantzabal / Julio Calleja - Mikel Arkarazo
5. Mikel Ormaetxea - Jon Irazabal / Haritz Gallastegi - Kepa Odriozola
6. David Peñalver - Txomin de Vega / Gaizka Bolinaga - Igor Irazabal

**DOMEKA, ABENDUAK 6**
**11:00etan hasita**

1. Samu Gorrotxategi - Luis Atorrasagasti / Unai Alkorta - Etor Garate
2. Asier Osoro - Sergio Bouzas / Gaizka Etxeberria - Satur Ramos

KIROLA > PILOTA

## Frontenis txapelketan izena emateko epea zabalik dago

Antolatzaile diharduen Asier Osororen asmoa da lehenengo partiduak urtarrilean jokatzea

L.Z. > ELGETA

Iaz jokatu zen herri mailako I. frontenis txapelketa. Eta, izandako arrakasta ikusirik, bigarren edizioa egiteko prestaketa lanetan dihardu Asier Osoro elgetarrak. "Parte hartzeko interesa duten bikoteek izena eman dezakete datorren astetik aurrera Espaloia Kafe Antzokian", adierazi du. Bikoteko bost euro ordaindu beharko direla azaldu du, baita txapelketa 16 urtetik gorako elgetar guztiei dagoela zabalik. Osorok azaldu du iaz bezala herri mailako txapelketa egitea dela asmoa. Partiduak zapatu arratsaldeetan eta domeka goizetan jokatuko dira.

**IAZ 17 BIKOTE**

Iaz 17 bikote mugitu zituen frontenis txapelketak; gizonezkoen txapelketan hamar bikote aritu ziren eta emakumezkoenean, zazpi. "Ikusiko dugu aurten zenbat jende animatzen den", esan du Osorok. "Horren arabera antolatuko ditugu partiduak eta txapelketa bera. Lehenengo norgehiagokak Gabonetako oporren ostean hastea nahiko nuke".

EUSKARA

## Elgetarako euskara plana gertu du Uemak

Eusko Jaurlaritzaren oniritzia dauka, udal talde politikoena behar du orain

L.Z. > ELGETA

48 orri ditu, eta Udalaren barne erabileran euskarari lehentasuna emateko hainbat proposamen jasotzen ditu. Lerrook idazterakoan hasi barik zegoen atzoko plenoa, non aztertu behar zuten txostena udal talde politikoek. Bi urterako plana da, eta, beste askotariko neurriak proposatzen ditu: kanpoko itzulpen zerbitzu bat kontratatzea, itzulpenen kontrol zehatzagoa egitea, udal arduradun eta langileek Uemak antolatutako ikastaroetan parte hartzeko aukera izatea, eta pertsona horiek hilean behin hizkuntza akatsak zuzentzeko trebakuntza fitxak jasotzea.

Txostenaren arabera, Udalaren gaur egungo egoera ez da txarra. Jasotzen du Udaleko atal guztiek betetzen dituztela euskarazko atal izendatzeko baldintzak. Orain, helburua litzateke euskara udal osoan zerbitzu hizkuntza izatetik, lan hizkuntza izatera ere iristea. Hau da, agiriek euskara izango dute sortze hizkuntza, eta jendaurreko harremanetan eta gainerako zereginetan lehenengo hizkuntza izango da.

**EUSKARAREN POSTONTZIAK**

Uemak, bestalde, postontziak ipini ditu udaletxean eta liburutegian herritarrek euskaraz jarduterakoan izandako gorabeherak aipatzeko. 2001ean egin zen Eustat erakundeak Elgetaren egoera soziolinguistikoaren gaineko azken neurketa. Orduan, duela zortzi urte, euskaldunak 812 ziren, ia euskaldunak 96 eta erdaldunak 47.

oharrak

GABON KANTUAK

**> Gaur, barikua, entsegua egongo da musika gelan, 19:30ean**

Kantu zaharrak eta berriak prestatzen dihardute aurten ere Lorea Larrañaga musika irakaslearen eskutik. Zapatuetan ez ezik bariku iluntzeetan ere elkartuko dira. Gaur, 19:30ean, hasiko dute entsegua kultura etxeko musika gelan. 30 bat minutukoa izango da. Bihar, zapatua, 11:30ean hasiko dute.


2007ko irailean egindako galdeketako argazkia. ARTXIBOA

**UDALBATZA** > OSOKO BILKURA

# Alkatearen epaiketaren kontrako mozioa onartu zuten azken bilkuran

Udal Gobernuak aurkeztutako mozioak EAJ eta EA alderdien abstentzioa jaso zuen

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Dagoeneko jarri diote data Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egitearren Asier Agirre alkatearen kontrako epaiketari. Urtarrilaren 13an izango da, Gasteizko Justizia jauregian. Alkateak orain dela bi aste egin zuen publiko eguna Goiena Telebistako *Goiena magazinea* saioan. Fiskaltzak bederatzi urtean Asier Agirre gaitasunik gabe uztea eskatu du.

Azaroaren 25ean egindako osoko bilkuran Udal Gobernuko ordezkariek Agirreren aurkako epaiketaren kontrako mozioa aurkeztu zuten. Idatzian akusazioa eta zigor eskaera erretiratzea eskatzen zaio fiskaltzari, prozedura judiziala erabat "bidegabea" delako, euren hitzetan. Gaineratzen dute AHT bezalako azpiegitura handien kasuan beharrezkoa ikusten dutela herritarren iritzia kontua hartzea eta "erabakigunea herritarrei zabaltzea". Mozioa Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako udaletara helaraziko dute eta Arabako Auzitegi Probintzialari ere onartutakoaren berri emango diote.

Mozioak eztabaida sortu zuen osoko bilkuran, baina Udal Gobernuak ez zuen oposizioaren babesik jaso; bilkuran izan ziren EAJko bi zinegotziak (Juan Miguel Loiti eta Angel Diaz de Zerio) eta EAko zinegotziak (Andres Osinaga) abstenitu egin ziren.

Hori, baina, ez zen izan osoko bilkuran aurkeztu zen mozio bakarra. Arazoaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna izanda, herritar batek aurkeztutako "biolentzia matxistaren" aurkako testua eraman zuten bilkurara. Udal Gobernuko kideek aldeko botoa eman zuten, eta baita EAko zinegotziak ere; EAJkoak, horretan ere, abstenitu egin ziren.

**ARAMAIXO BASERRI BARRI** > ALDUNDIAREKIN PERMUTA

## Baserritarrek Andramari inguruko lursaila gura dute

Elkartearen lokala eta hainbat landaketa ipini nahi dituzte lursail horretan

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaixo Baserri Barri elkarteko kideek lursail bat eskatu diote Udalari euren proiektua aurrera eraman ahal izateko. Kontua da, baina, erabili nahi duten lursaila gaur egun Arabako Foru Aldundiarena dela. Hori horrela, azkeneko osoko bilkuran eskari bat aurkeztu zuten: Udalari eskatu zioten Aldundiarekin akordioa egitea eta Diputazioarekin lursail trukaketa egitea. Hau da, Udalak Aldundiari bere lursail bat ematea eta trukean baserritarrek nahi dutena Udalaren esku geratzea. Eskariak alderdi guztien babesa jaso zuen; aho batez onartu zen.

Aramaixo Baserri Barri elkarteak erabili nahi duen lursaila Andramari ermitaren ondoan dagoena da. Asmoa da bertan kokatzea, besteak beste, Aramaixo Baserri Barriren lokala eta hainbat landaketa. Udala dagoeneko jarri da Diputazioarekin harremanetan eta uste du ez dela arazorik egongo akordioa egiteko.

> ZINEMA

### Abenduan, 11n eta 18an bakarrik egongo dira barikuetako film emanaldiak

Gaur, barikua, ez da egongo film emanaldirik kultura etxean, baina datozen bi barikuetan bai. Hilaren 11n *El lector* filma emango dute. Stephen Daldryk zuzenduta, nazien garaiko Alemanian kokatzen da istorio hori. Kate Winslet eta Ralph Fiennes aktoreak dira film horretako protagonistak. Abenduaren 18an eskainiko den filmeko protagonista ere Kate Winslet da, Leonardo Di Capriorekin batera: *Revolutionary Road*. Oskar sarietarako hiru izendapen lortu zituen film horrek.

Film emanaldiak 22:15ean hasiko dira kultura etxean eta sarrera euro bat ordaindu beharko da.

> ANTZERKIA

### Euskararen Egunaren harira 'clown' emanaldia egongo da gaur gauean kultura etxean

Kili Kolo antzerki taldeak *Klowntuz Mendia!* antzezlana eskainiko du gaur, barikua, 22:15ean hasita kultura etxean. Helduendako antzezlana da eta Mari Gorritxu da protagonista. Hiriko pailazoa da Mari Gorritxu eta oporretan dago. Psikoanalistak estres guztia kentzeko mendira joateko gomendatu dio. Jose Artista da psikoanalista eta hiriko pailazoa beti haren esanetara dago; hori horrela, mendira doan trena hartuko du, baina, mendira iritsi bezain laster, lekuz kanpo sentituko da. Barreak eta algarak eragingo dituen antzezlana da.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik • sagardotegiko menua • karta

eguneko menua • ospakizunak • enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

**ABELTZAINTZA** > ELKARTEA

# Hamabi bazkide ditu Gatzagako Abeltzainen Elkarteak

Sasiak kentzeko makina erosi eta abereendako basoak garbitu gura dituzte, baina egindako dirulaguntza eskaerak ezezkoa jaso du

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Orain urtebete inguru sortu zuten Gatzagako Abeltzainen Elkartea. Osatuta daukate elkartea, baina estatutuetako puntu batzuk egokitu egin behar dituztela jakinarazi diete Jaurlaritzako arduradunek eta horretan dabiltza.

**SASIAK KENTZEKO MAKINA BARIK**

Hamabi bazkide ditu elkarteak eta orain arte Jesus Beitia izan da presidentea. Hark, baina, dagoeneko ez du abererik eta presidente berria aukeratuko dute hurrengo batzarrean. Urtean 20 euroko kuota ordaintzen dute eta elkartean kide berriak sartzeko bazkideen oniritzia behar da. Gero eta baserri gutxiagotan dituzte abereak Gatzagan, baina basoan dabilen kopurua ez da aldatu azken urtean.

Elkartea sortu zuten baserri gutxiago handiagoa izango zutela pentsatu zuten abeltzainek bai dirulaguntzak eskatzerakoan, bai erabakiak hartzerakoan. Hala, sasiak garbitzeko makina erosteko dirulaguntza eskatu dute aurten Mendi Nekazaritzan baina dirurik ez dutela jakinarazi diete: "Aldundiak garbitzen ditu mendiak baina ez urtero, eta geuk garbituz gero urtean pare bat aldiz askoz hobeto egongo lirateke", azaldu du Asier Elkorobarrutia zinegotzi eta elkarteko kideak.

Aldundiaren kexarik ez du elkarteak; izan ere, oraintsu Pagoederreko itxitura berritu die eta ura bideratzeko asmotan dabil Lapikozuluetako iturburua lehortutakoan ur barik geratutako lekuetan: "Abere gutxi dago Gatzagan eta Aldundiak nahikoa egiten du. Elkartea ere lanean dabilela erakutsi gura diogu orain", dio Elkorobarrutiak.



Zaldi eta behorrak Gatzaga gaineko zelai baten. M.A.

> TELEBISTA

### 'Alkateak zuzenean' saioan izango da alkatea eguenean

Gatzagako alkate Eusebio Villar Goiena Telebistako *Alkateak zuzenean* saioan izango da datorren eguenean, abenduak 10. Saioa 19:45ean hasiko da eta platoan egingo dizkioten galderez gain, ikusentzuleek ere galderak egin ahal izango dizkiote. Horretarako hainbat aukera dauzkate: telefonoz (943 25 05 03); *Skype* bidez; *Facebook/goitb* sare soziala erabilita; eta mezu bat bidalita –*magazinea@goiena.com*–.

Gainera, *livestream* zerbitzuari esker saioa Internet bidez zuzenean ikusteko aukera izango da.

**HEZKUNTZA** > EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## Herriko umeek Eskoriatzan ospatu dute Euskararen Eguna

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Euskararen Nazioarteko Eguna izan zen atzo eta Gatzagan aparteko ekitaldirik ez egin arren, gogoan izan zuten askok eta beste herri batzuetako ekitaldietan parte hartu. Hala, herriko eskolako umeek erabaki zuten Eskoriatzara joatea ospatzera. Izan ere, eguaztenetan joan ohi dira Luis Ezeiza ikastetxera, baina oraingoan eguenera atzeratu zuten Euskararen Eguneko ekitaldiekin bat egiteko.

Goizean marrazkiak ziren egitekoak Herriko Plazan eta euskararen aldeko aldarrikapenak, idatziak, poesiak eta norberak gura zuena zintzilikatzeko aukera eskaini zien Udalak.

Luis Ezeizako ikasleek, ostera, arratsalde partean egin zuten jaia. 15:30ean hasi eta 18:00ak inguru artean iraun zuen ospakizunak eskola eta pilotalekua artean. Euskal dantzen erakustaldia eta jolasak izan zituzten lehenengo –txiki eta handiei egokituak– eta barrua berotzeko gaztaina erreak eta txokolate beroa hartu zituzten gero. Ikasle, irakasle eta gurasoek bat egin zuten euskararekin atzo arratsaldeko ospakizunean.

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa
Harpidedunen txokoa
Abenduko zozketa

SARIAK IRABAZTEKO:
943 08 10 50
harpidetza@goiena.com

*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedunentzat soilik.
Harpidetzeko erabili bide berdinak.
Kuota: 10 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK
Umeentzako euskarazko jostailuak
Ikastolen Elkartea


ANTZERKIRAKO SARRERAK
Txalo konpainiaren Ate joka antzezlana.
Elgetako espaloia kafe antzokia


UMEENTZAKO LIBURUAK
Pamiela etxearen umeentzako liburuak.
PAMIELA


SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.


EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA
Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.
EKFB


SARI NAGUSIA
IRAILA-ABENDUA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



AHTEC NETBOOK LUG N011
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)
**Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!**

**MENDIKO LASTERKETAK** > ULTRATRAIL PROBA

# Ehun Milak Debagoienetik igaroko dira

## Europan egingo den mendi lasterketa gogorrenetakoa izango da

### Uztailaren 16an hasiko dute proba; zabalik dago izenemate epea

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Martitzenean ireki zuten uztailaren 16an, 17an eta 18an egingo duten Ehun Milak mendiko non-stop ultratrail probarako izenemate epea (*www.ehunmilak.com*). Eta lasterketako antolatzaile batzordeko Mikel Valdivieso beasaindarrak Goienari adierazi dio dagoeneko ehun lagunek eman dutela izena: "Oñati aldetik apuntatu da koadrilatxoa, baina oñatiarrak beste kasta batekoak dira", adierazi digu barrez.

Oñatitik bakarrik ez, Debagoien osotik korrikalari asko animatuko dira Euskal Herrian inoiz egin den mendiko lasterketa gogorrenean esku hartzera, ibarrean zaletasun handia dagoeta: "Benetan esaten dizuet, Euskal Herriko gogorrena izateare-kin batera, mundu mailan proba gutxi daude hau bezain gogorra".

**ALPEETATIK EKARRI DUTE IDEIA**

Mikel Valdiviesok birritan hartu du esku Alpeetan egiten duten Mont-Blanceko The North Face ultratrail proban: "Eta handik ekarri dugu ideia. Horrelako proba bat Euskal Herrian egitea bururatu zitzaigun, eta horretan hasi ginen".

Hala, uztailaren 16an Beasaindik irtengo diren korrikalariek –gehienez 1.000 lagun– 48 ordu izango dituzte 167 kilometroko ibilbidea egiteko, 11.500 metroko desnibel positiboa gaindituta. Europa osoan Chamonixen antolatzen den probak eta Euskal Herrian egingo denak gainditzen dute 160 kilometroko distantzia, eta Ehun Milak da 10.000 metroko desnibela gainditzen duen ultratrail bakarra.

Alpeetan egiten diren lasterketekin alderatuta, baina, antolatzaileek badute lasterkariendako gomendio bat: "Ez daitezela fidatu. Badakigu Txindoki ez dela Cervinoa, baina kontuz. Hango lasterketetan igoerak eta jaitsierak oso luzeak dira, eta mendi askoz ere garaiagoak igotzen dituzte. Baina neurketak oso ondo egin ditugu, eta datuek esaten digute hemengoa lasterketa gogorragoa izango dela", dio Valdiviesok. Eta ibilbidea oso ondo ezagutzen duen Xabier Lijok ere bat egiten du Valdiviesoren berbekin: "Ibilbide horrek tranpa asko ditu, zati asko korrika egitekoak direlako eta gero, korrikalariek lehenago egindako esfortzua garesti ordain dezaketelako. Txindoki ez da Cervino, ez, baina 100. kilometroan igo behar da Txindoki eta Aizkorri, berriz, 140. kilometroan. Probaren azken zatia izango da benetan gogorra; horrenbestez, kontuz hasieran azkar ibiltzearekin".

**HAINBAT PROBA DAUDE**

Ehun Milak lasterketa noiz egin erabakitzeko orduan, antolatzaileek distantzia luzeko beste hainbat proba ere kontuan izan dituzte: "Mont-Blanceko proba abuztu amaieran izango da, eta horrekin batera ere badaude Andorra ultratrail Vallnord lasterketa eta Le grand raid des Pyrenees proba. Badakit jendea gauza dela urtean hiru lasterketa egiteko, baina nik ez nuke horrelakorik gomendatuko, gorputzak astindu galanta hartzen duelako, ondo dakit hori", adierazi du Valdiviesok.

**SEKULAKO ERRONKA DA**

Ehun Milak antolatzeko orduan Valdiviesok onartu du lasterketaren ezaugarriengatik erronka handia dela eurendako: "Kontuan izan 167 kilometro direla, eta ezin dugu onartu jendea mendian galduta ibiltzea. Gaur egun esaten da geroago eta boluntario gutxiago daudela gertu horrelako saltsatan buru-belarri sartzeko, eta, hain zuzen ere, guk esan horren kontra egingo dugu. Udal askotara jo dugu laguntza eske, eta 1.500 boluntario inguru batuko ditugu proba antolatzeko. Bestalde, badakigu lehenengo urtea dela, eta probak poliki-poliki hartuko duela indarra. Baina nahiko genuke, esaterako, Txindokiko igoeran jende asko batzea, ziklistek Tourmalet igotzen dutenean besteko giroa egotea, alegia".

**XARMA BEREZIA DUTEN PROBAK**

Askok esango dute 167 kilometroko ibilbidea jarraian egitea eta horrelako desnibelak gaindituta eromena dela: "Eta arrazoi izango dute, seguruenik, baina horrelako proba luzeek badute xarma berezia. Hau ez da Aloñako Igoera edo Anbotoko Kilometro Bertikala. Ezta Zegama-Aizkorri proba ere. Ultratrail gisako probak bidaia modukoak dira; izan ere, hainbat egunetan jan, edan eta lo ahal den lekuan egiten da, etenik gabe . Eta lasterketa kontzeptua desagertu egiten da burutik. Korrikalariak ordu mordoa egiten ditu mendian bakarrik, eta gorputzaren mugak gainditzen dira. Hala, helmuga zeharkatzen denean sentitzen dena azaldu ezin daitekeen zerbait da".

Euskal Herrian ezagutzen dugun mendi lasterketekin alderatuta, Ehun Milak proban korrikalari bakoitzak bere kabuz moldatu beharko du. Gauean ibiltzeko derrigorrezkoa izango da frontala eramatea, eta ibilbidean zehar jateko eta edateko postuak izango badituzte ere, atleta bakoitzak gutxieneko batzuk eraman beharko ditu motxilan, mendiko materiala barne.

**ZELAN ENTRENATU**

Jakinekoa da horrelako proba batek entrenamendu zorrotza behar duela: "Eta hor gomendio gutxi eman ditzakegu, neure entrenatzaileak esaten zidan moduan, modu asko daudelako horrelako lasterketa bat prestatzeko". Hasteko, bistakoa da Ehun Milak egiteko mendizaleak ohitua egon behar duela kirola egitera. Oinarri ona izatea eta entrenamenduari eskaintzen zaion denbora arrakastaren



Lasterkariak Urbiara iristen, Zegama-Aizkorri proban; Ehun Milak proban atleta bakoitzak motx






GOIENKARIA



ila eraman beharko du, besteak beste, jatekoekin eta edatekoekin, eta gauez ibiltzeko frontalak ere eraman beharko dituzte. GOIENKARIA

gakoak izango dira, eta, noski, psikologikoki ere prestatuta egotea: "Ordu asko eskatzen dituzten entrenamendu saioak dira, eta horretarako kontratu berezia sinatu beharko dugu emazte, neskalagun edota etxekoekin [Barre]. Bolumena lantzea ezinbestekoa da. Nik, esaterako, aste barruan egunero 2-3 orduko saioak egiten nituen mendian eta proba baino bi hilabete lehenago saio luzeak egin, 15, 20 eta 25 ordukoak, eta lasterketarako hiru aste geratzen zirenean atseden hartzen hasi. Baina lasterkariei esan nahi diet webgunean bertan entrenamendu bereziak sartuko ditugula, jendeak prestaketa ahalik eta ondoen egiteko".

Xabier Lijo > Pol-Poleko kidea

## "Gauez igaroko dira hemendik, eta bidea ondo adierazi beharko da"

X.U. > BERGARA

**Ehun Milak proba Antzuolatik eta Bergaratik igaroko da, eta Pol-Pol mendi taldeko ordezkari Xabier Lijo Bergarako zatia koordinatzen ibiliko da.**



X.U.

**Probako zati bat koordinatzeko ardura izango du Pol-Polek.**

Bai. Lasterketako antolatzaileek udal ordezkariekin berba egin zuten, laguntza behar zutelako lasterketa hau antolatzeko. Eta ondoren, alkateak proposamena bota zigunean guk baietza eman genuen. Ordua zen horrelako lasterketa bat gurean egiteko.

**Zein da egin beharreko lana?**

Batetik, Beasainen 18:00 aldera hasiko dute lasterketa, eta 29. kilometro inguruan iritsiko dira gurera. Kalkulatzen dut 21:30 inguruan iritsiko dela lehenengo korrikalaria, eta azkena 01:00 inguruan. Bidea ondo markatzea ezinbestekoa izango da, eta bestalde, Gorlako Altzasu elkartean jatekoen eta edatekoen postua jarriko dugu.

**Nondik nora etorriko dira?**

Zumarragatik sartuko dira Antzuolako lurretara, eta Irimotik etorriko dira Gorla aldera. Gorlan jan eta edan ondoren Santutxu aldera egingo dute, handik Pol-Polera eta Irukurutzetatik behera egingo dute.

**Zelako tartea da?**

Nire ustez, Irimotik Hirukurutzetara korrika egin daiteke, tarte oso azkarra da. Baina pista mordoa daude eta gauez ibiliko direnez adi egon beharko dute, nahiz eta frontalak erabiliko dituzten.

**Proba polita izango da animatzera joateko.**

Bai, eskertuko dituzte animuak. Gainera gurera nahiko batera iritsiko dira denak, lehenengo kilometroak direlako.



**SASKIBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Selekzioen arteko txapelketa Eskoriatzan

Gazte mailako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako taldeak lehiatuko dira; azken horretan, MUko jokalari Xabi Igoak eta Unai Barrenak jokatuko dute



MUko jokalari Xabi Igoa eta Unai Barrena selekzioarekin izango dira. J.M BALTZATEGI

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

Goi mailako saskibaloia izango da protagonista aste bukaeran Eskoriatzan; izan ere, EAEko selekzioen arteko Euskadiko txapelketa jokatuko dute Intxaurtxueta kiroldegian. Hain zuzen ere, gazte mailako Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako selekzioek parte hartuko dute, mutilek eta neskek. Guztira, 72 jokalari bilduko dira Eskoriatzako kantxan (12 jokalari talde bakoitzeko).

Euskadiko txapelketan Debagoieneko bi ordezkari izango ditugu: Mondragon Unibertsitateko gazte mailako jokalari Xabi Igoa eta Unai Barrena. Biek ala biek hainbat entrenamendu egin dituzte Gipuzkoako selekzioarekin, eta Eskoriatzako txapelketa jokatzeko hautatu dituzte. Gipuzkoako selekzioaren helburua, infantil eta kadete mailetako taldeen antzera, Euskadiko txapelketa irabaztea da.

**DOMEKAN HASITA**

Euskadiko txapelketa domekan, astelehenean eta martitzenean jokatuko dute. Gazte mailako nesken partiduak 10:00etan jokatuko dituzte eta mutilen partiduak, 12:00etan. Domekan, Bizkaiko eta Gipuzkoako selekzioek neurtuko dituzte indarrak; astelehenean, Arabako eta Bizkaiko selekzioek; eta martitzenean, Gipuzkoakoak eta Arabakoak.

Euskadiko txapelketako sei partiduetako sarrerak doan dira zale guztiendako.

**FUTBOLA** > ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

## Mondrak liderraren kontra jokatuko du Mojategin

**M.B.** > ARRASATE

Erregional Ohorezko Mailako 13. jardunaldia jokatuko dute aste bukaeran, eta talde indartsuenak bisita egingo du Arrasatera. Ondarroako Aurreraren kontra jokatuko du Mondrak bihar, 16:30ean. Arrasatearrek puntuak behar dituzte sailkapenean gora egiteko, baina bizkaitarrek bi partidu bakarrik galdu dituzte txapelketa osoan. Mondrak 12 puntu ditu sailkapenean, eta Aurrerak 30.

Aloñak ere lehia zaila du, bihar, 16:00etan, sailkapenean bigarren tokian dagoen Pasajesen kontra jokatuko du-eta. Teorian, partidu parekatuena Hondarribia eta Bergarak jokatuko dute Ondartza futbol zelaian (bihar, 15:30).

**UDA-K, ATSEDENA**

Hirugarren mailakoek atsedena dute aste bukaeran. UDAk Portugaleteren kontra jokatuko du hurrengo jardunaldian.

> DEIALDIA

### Euskal Herriko boulder txapelketa: izenematea hilaren 16ra arte

Hilaren 19an Arrasaten egingo duten Euskal Herriko eta VIII. Santamas boulder txapelketako izenematea zabalik dago, hilaren 16ra arte. Izenematea egiteko, Euskadiko Kutxako 3035005516055002968l zenbakian hamar euro sartu behar dira. *Punk that rock* txapelketako dortsal banaketak 10:00etan eta 11:00etan egingo dituzte. 20 urtez azpikoen eta elite mailakoen finalak 18.00etan jokatuko dituzte Uarkapen.

> DEIALDIA

### Debagoieneko Kirol Sariak datorren astean aurkeztuko dituzte

Debagoieneko Kirol Sarien (DKS) aurkezpena datorren astean egingo dute. Sari banaketa ekitaldia hilaren 18an egingo dute, Oñatiko Santa Ana antzokian, 19:00etan, eta musika, kirola eta umorea izango dira nagusi. Hainbat sari banatuko dituzte; tartean, herritarrek emandako saria. Hautagaiak aurkezteko bide bakarra dago; hain zuzen ere, *www.kirolsariak.com* webgunean sartuta egin daitezke proposamenak.

**ESKALADA** > TXAPELKETAK

## Emaitza onak lortu dituzte eskalatzaile gazteek




Mirian Mulas, Ondarroako proban. DEBAGOIENEKO ESKALATZAILE TALDEA

**M.B.** > ARRASATE

Debagoieneko eskalatzaile taldeko kideek emaitza onak lortu zituzten aurreko aste bukaeran. Eskalatzaileak bi taldetan banatu, eta Ondarroan eta Tolosan jokatutako txapelketetan parte hartu zuten.

Tolosako eskalada txapelketa han ospatzen duten mendi astearen barruan egin zuten. Debagoieneko eskalatzaile taldeko sei lagun lehiatu ziren, elite mailan eta 18 urtez azpikoen mailan, eta bietan lehen postuak eskuratu zituzten. Alde batetik, elite mailan Aritz Domingez, Mikel Velasco eta Iñaki Viejo sailkatu ziren lehen, bigarren eta hirugarren tokietan, hurrenez hurren. Gainera, Josu Viejok bosgarren tokian bukatu zuen.

Beste alde batetik, 18 urtez azpikoetan Iñaki Velasco eta Kepa Briña sailkatu ziren lehenengo eta bigarren tokietan.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**

Bestalde, Ondarroako proban lehiatu ziren Mirian Mulas eta Naia Vizcaino 16 urtetik azpikoen mailan. Mirian Mulasek lan ona egin zuen eta bigarren tokian sailkatu zen.

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko kideek buru-belarri dihardute hilaren 19an Arrasaten jokatuko duten Euskadiko txapelketa prestatzen. "Denboraldiko helburu nagusia da", esan digute.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Real Union
Zapatua. 18:00. Anoeta.

**Gazteen liga nazionala**
Aretxabaleta-Santurtzi
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Gazteen euskal liga**
Bergara-Gernika
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

**Ohorezko erregiona maila**
Hondarribi-Bergara
Zapatua. 15:30. Ondartza.

Pasajes-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Don Bosco.

Mondra-Aurrera
Zapatua. 16:30. Mojategi.

**Lehen erregionala**
UDA Arizmendi-Gazteak
Zapatua. 15:30. Ibarra.

Eibartarrak-Mondra
Zapatua. 15:30. Unbe

Urki-Bergara
Zapatua. 17:30. Unbe

**Gazteen ohorezko maila**
Mondra-Billabona
Domeka. 16:00. Mojategi.

Aloña Mendi-Beti Gazte
Zapatua. 16:00. Azkoagain.

**Gazteen lehen maila**
Arizmendi-Aretxaba. B
Zapatua. 11:30. Almen.

Bergara B-Urki
Zapatua. 11:30. Ipintza.

Soraluze-Urola
Zapatua. 11:00. Estala.

**Ohorezko kadeteak**
Aretx.Arizmendi-Reala
Egubakoitza. 19:00. Ibarra.

Bergara-Kostkas
Domeka. 11:30. Ipintza.

Eibar-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Unbe.

**Lehenengo kadeteak**
Elgoibar-Arizmendi
Zapatua. 11:00. Mintxeta.

Aloña Mendi-Urki
Zapatuaa. 11:00. Azkoagain.

Arrasate-Aretxabaleta
Zapatua. 11:00. Mojategi.

Eibartarrak-Bergara
Domeka. 10:30. Unbe

**Infantilak, txapeldunen f.**
Sanse-Arrasate
Domeka. 16:30. Felix Garin.

Antiguoko-Aretxabaleta
Zapatua. 13:45. Berio.

**Infantilen ohorezko kopa**
Aloña Mendi-Lagun Onak
Domeka. 11:00. Azkoagain.

Urki-Bergara
Zapatua. 09:00. Unbe.

**Emakumezkoen liga**
Eibar-Aloña Mendi
Domeka. 12:30. Unbe
.

Bergara-Mondra
Zapatua. 17:30. Ipintza.

Arizmendi: atsedena.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko seniorrak, giz.**
Ford Mugarri-Hondarribi
Egubakoitza. 20:45. Iturripe.

**Kadete mutilak**
Berezao Aloña-Usurbil
Zapatua. 17:00. Zubikoa.

Talleres Chapime-Leizaran
Zapatua. 10:30. Iturripe

**ARETO FUTBOLA**

**Euskal Liga**
Eskoriatza-Ortziri
Zapatua. 17:00. Intxaurtxueta

**SASKIBALOIA**

**Lurralde selekzioen Euskadiko txapelketa Gazte neskak**
Bizkaia-Gipuzkoa
Domeka. 10:00. Eskoriatza .

Araba-Bizkaia
Astelehena. 10:00. Eskoriatza

Gipuzkoa-Araba
Martitzena. 10:00. Eskoriatza

**Gazte mutilak**
Bizkaia-Gipuzkoa
Domeka. 12:00. Eskoriatza .

Araba-Bizkaia
Astelehena. 12:00. Eskoriatza

Gipuzkoa-Araba
Martitzena. 12:00. Eskoriatza



> XABIER LETE
Elgetan egin zuen emanaldiarekin txundituta utzi zituen entzuleak > 39



> DANTZA
Ekialdeko dantzak Alima taldearen eskutik bihar Zabalotegin > 39



> 'EGUNKARIA AUZIA'
Txema Auzmendi GOITBn izango da eguaztenean, 'Magazinea'-n > 43

# Uzta oparoa ibarretik euskal liburu eta disko azokara

**DURANGORA**
Debagoieneko hainbat egile Durangoko azokan izango dira

**NOBEDADEAK**
400 nobedade inguru aurkeztuko dituzte

**BOST EGUN**
Martitzenera bitartean euskal kulturaren topaleku izango da Durango

**O. ELORTZA/E. MENDIBIL** > BERGARA

Bost egunez, Durango euskal liburu eta diskoaren hiriburu izatea. Horixe da Gerediaga elkarteko arduradunen asmoa. Gaur zabalduko ditu ateak Durangoko azokak eta datozen egunotan milaka lagun hurbilduko dira bertara, erromesaldian, euskarazko kultura produkzioarekin bat egitera. Aurtengoa azokaren 44. ekitaldia da, eta, antolatzaileek emandako datuen arabera, 490 produktu berri baino gehiago egongo dira: hain zuzen, 308 liburu berri (joan den urtean baino 30 bat gutxiago); 69 disko (iaz baino bospasei gehiago); eta bestelako 82 produktu. Baldintza bakarra hau izaten da: euskarazko argitalpenak izatea edo euskal gaiak edozein hizkuntzatan jorratzen dituztenak. Ohikoa denez, euskal argitaletxe, banatzaile eta diskoetxeek, erakundeek eta kultura eragileek ez dute hutsik egingo Durangoko hitzorduarekin.

**HAINBAT DEBAGOIENDAR**

Debagoienak ere aurkezpen zabala izango du Durangoko azokan. Hainbat egilek euren azken produktuak eramango dituzte Durangora. Horien artean, zalantzarik gabe, Ruper Ordorika dugu Durangoko beteranoetako bat: 18. diskoa kaleratu berri du kan-

(38. orrialdean jarraitzen du.)




**AURRERA BEGIRA**
**Des-kontrol**
Baga-Biga

Arrasatearrek 13 abesti batu dituzte lan berrian.




**GORRIA**
**Gose**
Autoekoizpena

Japonian ere izan dira arrasatearrak hirugarren diskoa aurkezten.




**HANDITZEN, HANDITZEN**
**Amaia Diaz de Monasterioguren**
Ttarttalo

Dietista oñatiarrak haurrak ondo elikatzeko 200 errezeta batu ditu.




**30 URTE ERDIKO KALETIK**
**Arrasateko Gaiteroak**
Arrasateko Gaiteroak

30 urteotako ibilbidea jasotzen duen DVDa eta diskoa.




**IRUÑA-VELEIAKO EUSKARAZKO GRAFITOAK**
**Juan Martin Elexpuru**
Arabera argitaratzailea

Iruña-Veleiaren historia eta istorioak, argazkiak, testuak...




**AUTOKARABANA**
**Fermin Etxegoien**
Pamiela

Kazetari oñatiarrak lehen eleberria kaleratu du.




**HAIZEA GARIZUMAKOA**
**Ruper Ordorika**
Elkar

New Yorken eta Euskal Herrian grabatu du Ruperrek azken diskoa.




**THE BEATLES ETA NI**
**Juan Carlos Irizar**
J. C. Irizar

The Beatles taldea omendu nahi izan du konpositore oñatiarrak.




**SEDUKZIOAZ**
**Anger**
Musikherria

Joan den zapatuan Arrasaten aurkeztu zuten hirugarren diskoa.




**MENDIKO BEHATOKIA**
**Pello Zabala**
Alberdania

Izadiaren gramatikan sartzea da Pello Zabalaren asmoa.




**DENBORA ENAREN HEGALETAN**
**Karmele Igartua**
Pamiela

Karmele Igartua aretxabaletarraren bigarren poesia liburua.




**HEGAZKADAK DAKAR EKAITZA**
**Malenkonia**
Gor Banaketak

Oñatiarren pop-rock dotorea eta pieza orkestralak.

# Uzta oparoa ibarretik euskal liburu eta disko azokara

(37. orrialdetik dator)

tari oñatiarrak, *Haizea Garizumakoa*. Karmele Igartua aretxabaletarrak *Denbora enaren hegaletan* liburua kaleratu du eta Durangora urtero joateko ohitura dauka. Aurten, gainera, liburua irakurleen aurrean *defendatzea* tokatuko zaio: "Poz handia da Durangora joatea euskal literaturaren bilgune handia delako. Askotan kanpokoari jartzen diogu arreta eta Durangon ikusten da badirela euskal egileak eta badagoela zer erosi". Zapatu eguerdian Pamielako standean liburuak sinatuko ditu Igartuak.

**AHOTSENEA**

Esan bezala, Landakoko kristalezko kutxaz gain, Durango osoa euskal liburu eta diskoaren hiriburu bihurtu nahi dute antolatzaileek, Gerediaga elkartekoek. Nobedadeen artean, aurten, gune berri bat egongo da: Ahotsenea gunea, hain zuzen. Sormenari lotutako txokoa izango dela aurreratu digu Jon Irazabalek, Gerediaga elkarteko presidenteak. Landako eraikinaren alboan bi espazio izango ditu Ahotseneak: bata musikarentzat eta bestea literaturarentzat. Batez ere, literaturazale, musikazale eta ikus-entzuleen parte-hartzea bermatzea da asmoa. Azokara hurbiltzeko aukerarik ez dutenek eta Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunek Ahotseneak zabalik dirauen bitartean sortzaileen jardunaren berri izateko aukera izango dute Internet bidez. Besteak beste, Karmele Igartua aretxabaletarrak, Fermin Etxegoien oñatiarrak eta Gose eta Anger talde arrasatearrek hartuko dute parte. Igartuak solasaldia izango du Edorta Jimenezekin zapatuan, 11:30ean.

**ARGIZAIOLA SARIA, ANDEREÑOEI**

Bihar, zapatua, Argizaiola saria jasoko dute 1960-70 hamarkadetan ikastolen alde lan egin zuten andereñoek. San Agustinen izango da ekitaldia, 20:30ean, Felipe Barandiaranek aurkeztuta. Iparraldeko, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako andereño banak izango du frankismo garaian ikastolak aurrera atera zituzten andereño guztien ordezkaritza. Jon Irazabalek zera dio: "zor bat daukagu haiekin, klandestinitatean eta medio oso gutxirekin ikastolak aurrera atera zituzten andereñoekin eta egindako lana eskertzeko Argizaiola saria jasoko dute". Azken ekitaldietan, Juan Zelaia enpresaburu oñatiarrak (2008), *Maiatz* aldizkariak (2007), *Jakin*-ek (2006) eta Gotzon Garate idazleak (2005) jaso dute Argizaiola saria.




Aurtengo kartela. GOIENKARIA

**KATALUNIA, GONBIDATUTA**

Katalanez egindako kultura izango da 44. edizioko gonbidatu nagusia. Institut Ramon Llull-ekin elkarlanean, Gerediaga elkarteak azoka egunetan ekintza kultural ezberdinak martxan jarriko ditu: kontzertuak, antzerki emanaldiak, erakusketak, hitzaldiak eta poesia irakurketak, besteak beste. Irazabalen hitzetan, "topiko jakin batzuetatik haratago joan nahi dugu, hainbat arlotako ekintzak antolatuz eta Euskal Herriko eta Kataluniako kulturen arteko konexioa bultzatuz".

**GOITB, DURANGON**

Goiena Telebista Durangoko azokan izango da. Hain zuzen, azokak leiho berria izango du: Azoka Telebista. Gipuzkoako Foru Aldundiaren bultzada eta babesari esker gauzatutako proiektua da eta, GOITBrekin batera, ETB3k eta Hamaika TBk hartuko dute parte.



Debagoieneko hainbat egile euren azken lanekin. XABIER URTZELAI

## AZOKA, DATUTAN

**> BOST EGUNEZ**
Durangoko azoka bost egunez izango da zabalik. Gaur, egubakoitza, zabalduko ditu ateak eta martitzenera arte, abenduaren 8ra arte, iraungo du. Egunero 10:30etik 20:30era izango da zabalik Landako Erakustazoka.

**> WEBGUNEA**
Egitarau nagusia, Haur Literatur Aretokoa, aurkezpenak eta ekitaldi nagusiak *http://www.durangokoazoka.com/agenda* webgunean.

**> 390 NOBEDADE**
Antolatzaileen arabera, 490 produktu berri baino gehiago egongo dira: hain zuzen, 308 liburu berri (joan den urtean baino 30 bat gutxiago); 69 disko iaz baino bospasei gehiago); eta bestelako 82 produktu.

**> ARGIZAIOLA SARIA**
1960-70 hamarkadetan ikastolen alde lan egin zuten andereñoek jasoko dute Argiozaiola saria zapatuan, 20:30ean.

EUSKARAZ JOLASTU,
EUKARAZ BIZI!




EROSI
EUSKARAZKO
JOSTAILUAK

Ikastolen Elkartea

www.ikastola.net
Tel.: 943 37 72 11 // 94 630 86 87

**KRONIKA** > XABIER LETE

# Esku izoztuekin bihotzak berotuz

**NON:** Elgetako Espaloia antzokian.
**EGUNA:** Domeka, azaroak 29.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.



Xabier Lete emanaldiaren une batean poemak irakurtzen. JOSETXO ARANTZABAL

PATXI HIPOLITO > ELGETA

Domekan, Espaloian, olerkia eta musika bat eginik aurkezten zituen emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuen, eta bukaeran jendeak gogoz txalotu zituen Xabier Lete eta Joxan Goikoetxea; berauek komunikatu nahi zituzten mezuak bertaratuek ezin hobeto jaso zituzten seinale. Agertoki gainean, apaltasunez jaso zuen bikoteak ikus-entzulearen berotasun hori.

Hamasei urte pasa dira Letek azken olerki-liburua argitaratu zuenetik. Orain, *Egunsentiaren esku izoztuak* poema-bildumak gaur egun Euskal Herrian daukagun ahots poetiko onenetariko bat bueltan ekarri digu. Pamiela argitaletxeak argitaratua, liburuak 2008. urteko Euskadi Literatura Saria eta Kritika Saria jaso ditu euskarazko olerkiaren atalean.

**AKORDEOIA LAGUN**

Emanaldira bueltatuz, adin guztietako lagunak bazeuden ere, aretoan jende gaztea nagusitu zen. Xabier Leteren olerkigintza belaunaldi guztiengana, eta gazteenengana bereziki ailegatzen dela ikustea pozgarria da.

Lehenago aipatu dugunez, Oiartzungo olerkariarekin batera, Joxan Goikoetxea musikari hernaniarra aritu zen. Emanaldian bere akordeoiaz interpretatu zituen bost kantu ederren artean, *Chapeu preto* aipatu nahi dugu bereziki, indar handiko kantu portugaldarra.

ENTZULEEN ESANETAN

**Arantxa Ozaeta**
Arrasate

### "Letek emozionatu egin gintuen"

"Lete errezitatzen ikusten nuen lehen aldia zen. Ezaguna nuen bere ahotsa, memoria kolektiboan sartua. Parean izatea poemak irakurtzen gazi-gozoa izan zen. Heriotza ez da gai erraza, ezta amodio eta gaztetasunaren galtzea ere. Irakurria nuen liburua, eta gustatu zitzaizkidan poemak, pentsatu nuen noizbait jo beharko nukeela liburura kontsolamendu bila. Errezitaldian poema batzuk esanguratsuagoak egin zitzaizkidan. Ekintza poetikoa izan zen: Letek emozionatu egin gintuen."

**Alberto Agirreazaldegi**
Elgeta

### "Malkoek txaloak isilarazi zituzten"

"Domekan aspaldiko ametsa bete zen. Xabier Letek poesia errezitaldi bikaina eskaini zigun Espaloian. *Egunsentiaren esku izoztua* liburua irakurria nuen, baina berak zuzen-zuzenean, aurrez aurre, barne-barnetik irakurtzean entzuleok hunkituta utzi gintuen. Azken poema, Lurdesi eskainia, bere ahots dardartian entzutean, ezin izan nien malkoei eutsi eta, aspaldiko partez, matrailean behera isuri zitzaizkidan. Behin eta berriz, malkoek txaloak isilarazi zituzten. Eskerrak, bihotz-bihotzez, Xabier."

**Elena Laka**
Bergara

### "Poeta hunkitu egin zen eta gu ere bai"

"Joan den domeka iluntzean opari bat egin ziguten Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Itxuraz ahula ikusi genuen poetak ahots indartsu eta garbiaz poema hunkigarriak kontatu zizkigun. Xabier Lete bera hunkitu egin zen eta gu, entzuleok, ere bai. Oinazeaz, kulpaz, heriotzaz, galeraz, neguaz... hitz egin zigun; bizitzaren alde zailez eta ilunez. Itxaropena poetaren beraren ahotsean eta guri poesia kontatzeko ausardian zegoen, entzulearengan pudore puntu bat eragiteraino."

**HERIOTZA**

Poesiak bere esanahi guztia gorde dezan, jendaurrean deklamatu behar da. Xabier Letek ahotsindarra, erritmoa eta sentimendua berezko ezaugarriak ditu, eta horiek olerkiaren eta olerkariaren erabateko sinesgarritasuna transmititzen dute.

Liburuaren bertso askotan, Letek bere geografia zabalaz hitz egiten digu: Soria, Venezia, Aragoi eta, bereziki, Obaba, jada gu guztion balizko lurralde pertsonala... Heriotza ere liburuaren beste presentzia bat da, bere bi atal heriotzari eskainitakoak baitira: *Joan zirenei* eta *Neguan izan zen*.

**EMOZIOA**

Emanaldia aurrera joan ahala, bilakaera nabarmena garatu zen, eta publikoa gero eta hunkituago antzematen zen. Horrela, emanaldi amaiera ailegatu zenean, Xabier Letek azkeneko olerkia irakurri zuen, liburuan ere azkenekoa dena. Lurdes Iriondori eskainia, azkeneko bertsoak hauek ditu: "Jaso nazazu, maite, azken egunean/zatoz nere bidera eta adeitsu, irriz/ dei nazazu nere izenez/ni zure erruki handian salbatua izan nadin,/salbatuak elkarrekin eta maitasunean glorifikatuak betirako".

Azken bertso horiek irakurtzen ari zela, emozio bizia igarri genuen olerkariaren ahotsean, baita pausa txiki bat ere, azkeneko bertsoa bere ahotik irten aurretik. Bertako askoren begietan ere emozio bera islatu zen, eta momentu hartan sentimenduak zeinek zabaltzen eta zeinek jasotzen zituen jakitea jadanik ezinezkoa bilakatu zen. Gero etorriko zen txalo zaparrada, eta barne desendrokea.

**IKUSKIZUNA** > DANTZA

# Ekialdeko dantzak eskainiko ditu Zestoako Alima taldeak zapatuan Zabalotegin

Sabel-dantza erako mugimenduak ikusi ahal izango dira Amancay Gaztañagaren koreografian



Ekialdeko jantziak soinean dituztela egingo dute dantza. ALIMA

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Alima dantza gunea da "ekialdeko dantzak, dantza magikoak, errito zaharretan oinarrituak eta gaur egunera arte gizaldiz gizaldi transmitituak izan direnak, jendearengana iristeko sortutako Zestoako taldea", Amancay Gaztañaga taldeko koregrafoak azaldu digunez.

Zapatuan ekialdeko dantzak eskainiko dituzte Bergarako Zabalotegi aretoan, 22:30ean; gurean sabel-dantza moduan ezagutzen dena, hain zuzen ere.

Amancay Gaztañaga koreografoaren esanetan: "Ekialdeko dantzetan murgilduta, hainbat estilo aurkeztu nahi ditugu ikuskizun horretan: folklore egiptoarra, sortaldeko estilo klasikoa eta belo fantasia, besteak beste".

**SEI LAGUNEKO TALDEA**

Alima dantza taldearen ibilbidea orain dela urte eta erdi hasi zen, taldeko koreografo Amancay Gaztañaga Madrildik itzuli zenean. Zestoan dantza eskola irekitzea erabaki zuen, eta gaur egun sei lagunek osatzen dute dantza konpainia. Hala ere, zapatuan, Bergarako emanaldian, bost dantzarik hartuko dute. Helburua da ekialdeko dantzak jendearengana hurbiltzea: "Jadanik hain bertakotuta dagoen kultura arabiarra gehiago ezagutaraztea".

> BERTSOLARITZA

### Bertxoko sariketako finala gaur Iturrieta sagardotegian

Arabako Bertsozale Elkarteak eta Hala Bedi Irratiak elkarlanean antolatzen duten Bertxoko sariketako finala gaur, abenduaren 4an, jokatuko da Aramaioko Iturrieta sagardotegian. 20:30ean izango da afaria eta afalostean Manex Agirreren esanetara jardungo dute Abetxukoko Iñaki Viñasprek, Alegiako Mikel Artolak, Arrasateko Jokin Labaienek, Bergarako Enaitz Alustitzak, Algortako Jone Uriak eta Gasteizko Ander Solozabalek. Saioari kutsu serioa kentzeko lan bereziak egin beharko dituzte: agurra kantu ezagun baten doinuan; bakarkakoan bideo bati kantatuko diote; eta hamarreko txikiko ofizioa kartzelan izango da eta egoera bitxi bat irudikatuz.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Herri erdi-erdian 91 metro koadroko etxebizitza. 32 metro koadroko ganbararekin. Bizi izateko moduan dago, baina berritu beharra dauka. Aukera ona. Premiazkoa da. 110.000 euro. 615 73 85 77.

**Arrasate.** Erguin kalean etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komuna eta sukaldea. 606 86 71 97.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bolun. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi komun, trastelekua eta garajea. Aukera ona. 688 67 10 31.

**Oñati.** Bidebarrieta auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta ganbara. Garajea aukeran. 620 02 51 95

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** 40 m²ko apartamentu kapritxosoa ematen da errentan herri erdialdean. Aproposa pertsona bakarrarentzat edo bikotearentzat. 600 euro hilean. 943 85 06 23.

**Arrasate.** Erdialdean guztiz berritutako 60 m²ko etxebizitza. Bi logela. 635 71 79 57.

**Elgeta.** Etxebizitza ematen da errentan Salbador kalean. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. 650 23 10 19.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Arrasateko hiru gazte langilek etxebizitza errentan hartuko lukete. 665 75 40 36.

**Bergara.** Bergarako neska batek etxebizitza hartuko luke errentan, merke. 649 40 72 49.

### 105. ETXEAK OSATU

**Antzuola.** Sagasti auzoan pertsona bat behar da etxea osatzeko. Beheko solairua da eta terraza dauka. 618 12 08 01.

**Arrasate.** Gelak errentan Makatzenan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Telebista, DVDa, kafe-makina... erosotasun guztiekin. Bista polit eta giro ezin hobea. Alexandragatik galdetu. 690 61 08 26.

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670 59 73 62.

**Arrasate.** Pertsona bat behar dugu lau gelako etxebizitza osatzeko. Langileak bizi dira bertan. 605 77 51 66 edo 943 79 46 13.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

## 3/ LOKALAK

### 301. ERRENTAN EMAN

**ARRASATE**

**Gozoki denda edo lokal komertziala errentan. 50 m². Kontzeziño kalea. 646 65 12 20 943 77 10 97**

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**

**Esperientziadun ile -apaintzailea behar da. Deitu 20:00etatik aurrera. 699 96 45 41**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Lan egingo nuke garbiketa lanetan: elkarteak, tabernak, bulegoak eta abar. Astean zehar zein asteburuetan. Erreferentzia onak. Deitu 648 19 10 38 telefonora.

**Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza.** Neska gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. Sukaldean, barran zein jangelan. Ordutegi malgua. Legezko paperak dauzkat. 620 54 60 59.

**Aretxabaleta.** Goizetan atari edota etxeak garbituko nituzke, orduka. 943 79 96 25 edo 647 10 58 72.

**Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatza.** Neska gertu garbiketa lanetarako (10 euro orduko) edo nagusi zein umeak zaintzeko (9 euro orduko). Deitu 618 00 08 28 edo 943 79 82 43 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Deitu 636 25 56 68 edo 943 25 02 94 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Emakumea gertu ume edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko. Deitu 619 78 63 41 telefoora..

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Deitu 662 70 31 68 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Esperientziaduna. Deitu 679 04 42 68 telefonora.

**Arrasate.** Etxeak garbitu edo umeak zainduko nituzke. Deiotu 649 30 13 60 telefono zenbakira. Mari.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**

**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**AUKERA**

**Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan.**
**Lehen mailako materialekin.**
**Eraikuntza bukatua.**
**PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Korosti inmobiliaria**
**Ibargarai 3 – Bergara Tel.: 943 76 97 97**
***www.inmokorosti.com***

**Bergara edo Arrasate.** Nagusiak zainduko nituzke, egunez. 943 53 28 18 edo 696 84 19 51.

**Bergara.** Neska gertu 08:00etatik 10:00etara bitartean etxeko lanak egiteko. Deitu 20:00etatik aurrera . 943 76 28 12.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, egunez zein etxean bertan bizi izaten. Legezko paperak dauzkat. Deitu 648 60 27 87 telefonora. Ana.

**Debagoiena.** Emakume esperientziadunak etxean bertan bizi izaten lan egingo luke. Legezko paperak ditut. Deitu 689 50 61 24 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume gaztea gertu nagusi zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko: etxeak, atariak, tabernak edo bestelakoak. Sukaldean ere arituko nintzateke. 676 28 87 84.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. Deitu 671 27 78 36 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona edadetuen zein haurren zainketa lanak egiteko. Etxean bizi izateko prest. Deitu 663 65 78 43 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu sukalde laguntzaile edo lisatze lanak egiteko. Hiru urteko esperientzia. Deitu 647 16 40 49 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu zerbitzari lanetarako. Garbiketa egiteko ere gertu. Esperientziaduna. 679 04 42 68.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska euskalduna gertu nagusi zein umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. Baita zerbitzari jarduteko ere. Informeak ditut. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Lau urteko esperientziadun neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bizi izaten ere bai. 626 78 22 95.

**Debagoiena.** Neska arduratsu esperientziaduna gertu garbiketa, dendari, azafata edo bestelako lanetarako. Deitu 639 86 96 76 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona edadetuen eta umeen zaintza lanak egiteko gertu nago. Esperientziaduna naiz gaian eta baita oso arduratsua ere. Etxean zein kanpoan egingo nuke lan. Luis Marina. Deitu 606 85 67 08 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko gertu (Maite). Deitu 943 53 27 11 edo 650 17 74 87 telefonora.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zaindu eta etxeak garbituko ituzke. Deitu 669 98 46 47 telefonora.

**Garbiketak.** Neska langile eta esperientziduna garbiketak egiteko prest, orduka. 669 20 57 98 edo 665 70 00 63.

**Oñati.** Neska portugaldarra (gaztelania dakit), oso arduratsua, zaharrak nahiz umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edota edozein motatako garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziaduna. 697 50 41 90.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Batxilergoko** gaztelera eta literaturako eskolak jasoko nituzke Oñatin. 688 63 82 28.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Goi Ingeniaritzako ikasle arduratsua eskola partikularrak emateko prest. Deitu 625 74 91 50 telefonora.

**Bergara.** Ingeleseko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Azterketak gertatzeko ere bai. 618 91 32 89.

**Oñati.** Ingeniaritzako ikasketak ditut eta Lehen Hezkuntzako, DBHko eta batxilergoko eskola partikularrak emateko prest nago (matematika, marrazketa, fisika...). Deitu 678 27 27 57 telefono zenbakira.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Honda Varadero** XL 1000v motorra salgai. 2006koa. Egoera oso onean. 23.000 km. Estra askorekin: hiru maleta, eskuberogailua eta Givi defentsak. Beti garajean. Deitu 605 71 24 73 telefono zenbakira.

**Yamaha FZ6 Facer S** motorra salgai. 600 cc. 98 ZP. 2007koa. 32.000 km. Givi maleta ekipo osoa. Estrak. 4.500 euro. Deitu 679 81 87 87 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Kanarioak** salgai. Anilladunak. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta galdetu Mikelengatik. 635 75 54 53.

### 704. BESTELAKOAK

**Setter gordon** zuri-beltza galdu zen asteartean, azaroaren 17an, Makatzenan. Galdu zenean katea zeraman arrastaka. Mesedez, deitu zenbaki honetara: 699 18 13 34.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Baserritar arropa.** 6-8 urteko mutikoarendako alkandora, 6 eurotan; eta gomazko abarka beltzak, 10 eurotan. Artilezko galtzerdiak opari. 656 78 64 64.

**Tronpeta.** Tronpeta salgai Bergaran. 638 89 78 76.

**Bikiendako** EasyWalker markako karroa salgai. 943 03 66 80.

**Eskiatzeko materiala.** Buzoa, 10 neurrikoa, 15 eurotan; botak, 6-7 urteko umeentzat, 20 eurotan; 1,40 neurriko eskiak, 15 eurotan; eta metro bateko bastoiak, 6 eurotan. Gore-Tex eskularruak opari. 656 78 64 64.

**Liburuak salgai.** Liburu sortak salgai, denetarikoak. Oso-oso merke. 665 73 59 83.

**Nokia 5800** mugikorra salgai. Movistarkoa. Berria. 150 euro. 661 68 11 24.

**Samsung J700** poltsikoko telefonoa salgai. Oso ondo dago. 30 euro. 615 49 09 36.

**Snow-taula** salgai, fijazioekin. Ondo dago. 85 euro. Deitu arratsaldez. 671 92 06 49.

**Umeendako motxila.** Salewa etxekoa. Aulkia, motxila, eguzkitik babestekoa eta ez bustitzeko zakua. 60 euro. Deitu 645 72 08 11 telefonora.

### 802. EROSI

**Akordeoi-pianoa** erosiko nuke. 120 baxukoa. Deitu 699 10 74 45 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Egongelako mahaia** oparitzen dut. Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. 635 72 58 14.

### 806. GALDU

**Bandolera argazkiekin.** McKinley etxeko bandolera beltza galdu nuen Arrasateko Iturripe frontoi inguruan. Barruan dokumentazioa eta argazki zahar batzuk daude. Balio sentimental handikoak dira eta aurkitu badituzu, mesedez, eraman itzazu BAZera. Eskerrik asko.

**Betaurrekoak.** Umearen betaurreko graduatu urdinak galdu genituen zapatuan, azaroaren 28an, Arrasaten, Iturriotz eta San Andres artean. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 665 72 23 06 telefonora.

**Nintendo DSa** galdu dut, Oñatin. Urdin argia da. Aurkitu baduzu, mesedez, deitu. 943 71 65 35 edo 635 55 67 23.

**Paparreko orratza** galdu nuen Bergaran azaroaren 21ean; Espoloitik zaharren egoitzara bitartean. 676 36 64 12.

### 807. AURKITU

**Arrasate.** Ikasle Egunean, Arrasateko Basati tabernan, Trango markako txamarra beltza trukatu nuen poltsikoan MP3a zuen beste batengatik. Txamarra eta MP3a errekuperatu nahi badituzu, deitu: 626 32 04 72.

**Eskumuturrekoa** aurkitu nuen azaroaren 24an Aretxabaletan, Azbeko aparkalekuan. Zilar kolorekoa. Zurea baldin bada, deitu. 615 79 20 66.

**Gurpildun aulkia** agertu zen zapatuan, azaroaren 21ean, Bergarako kiroldegiko taberna aldamenean. Galdu duena pasa dadila tabernatik.

**Kaskoa** aurkitu nuen Oñatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. 658 75 64 65.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Oñati-Gasteiz.** Egunero joaten gara. 08:00etan heltzen gara eta irten 17:00etan. Interesatzen bazaizu, deitu. 635 20 33 14.

---

KOROSTI

INMOBILIARIA

**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 230 m². Berritua.
- Aranerreka 85 m². Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- San Antonio, 46 m². Berritua.
- Masterreka. 46 m². Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m². Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbararekin.
- Osintxu 64 m². Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m². Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m². Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m². Oso ondo.
- Osintxu 62 m². Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Zubiaurre 52 m². Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m². Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m². Berritua.
- San Roke 80 m². 80 m²-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m². Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

---

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo.
- Matxiategi, 88 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m², berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 m², berritzeko.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 m², oso ondo.
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m², ia berria.

**DEBA**
- Txalet bateko etxebizitza, hondartzako lehenengo ilaran

---

# LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak behar du:**

## TELEBISTARAKO ERREALIZADOREA

Eskatzen da:
- Ikus-entzunezko titulazioa izatea.
- Euskaraz jakitea.
- Gidabaimena izatea.

Baloratuko da:
- Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziaduna izatea.
- Esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerriko hizkuntzak jakitea.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Basabe poligonoa E-0-5
20550 Aretxabaleta
edo posta elektronikoz: *idazkaritza@goiena.com*

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2009ko abenduaren 10a**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

